

Enplegu Publikoaren Eskaintza 2016-2017
Gestioko Erdi Mailako Teknikaria
(Gestio espezialitatea)
Galdera sorta

oman ta zabal zazuz



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ATAL OROKORRA

1. **Espainiako Konstituzioaren 16.2 artikulua arabera, inor ezingo da behartu hauei buruz deklaratzera:**
 - a) Bere laneko metodologiari buruz
 - b) Bere ideologiari, erlijioari edo sinesmenari buruz
 - c) Bere lantokiaren bortxaezintasunari buruz
 - d) Bere ohoreari buruz

2. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, enplegatu publiko dira herri-administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak zeregin hauetan...**
 - a) Interes orokorrak zaintzeko zereginetan
 - b) Enpresa kontratatzailearen interesak zaintzeko zereginetan
 - c) Autonomia-gobernuaren interesak zaintzeko zereginetan
 - d) Gobernu Zentralaren interesak zaintzeko zereginetan

3. **Langile funtzionarioen oinarrizko ordainsariak estatuaren aurrekontu orokorren legean finkatzen dira; hauek izango dira beren osagai bakar-bakarrak:**
 - a) Esleitutako soldata eta hirurtekoak
 - b) Esleitutako soldata
 - c) Soldata, hirurtekoak eta destino-osagarria
 - d) Soldata, hirurtekoak, osagarriak eta dietak.

4. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer sistemaren bidez hauta litezke lan-kontratudun langile finkoak?**
 - a) Oposizioa, oposizio-lehiaketa edo merezimenduak balioesteko lehiaketa
 - b) Oposizioa edo oposizio-lehiaketa
 - c) Oposizioa
 - d) Berariaz egindako lan-poltsa

5. **Ez da izango karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoia:**
 - a) Nazionalitatea galtzea
 - b) Funtzionarioak erabateko erretiroa hartzea
 - c) Funtzionario izateari uko egitea
 - d) Lanerako aldi baterako ezintasuna

6. **Funtzionarioen erretiroa ezingo da izan:**
 - a) Borondatezkoa
 - b) Partziala txanda-kontratuarekin
 - c) Nahitaezkoa, lege ezarritako adina betetzen denean
 - d) Funtzionarioak ezintasuna duela erabakitzen denean

7. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, honela sailkatuko dira langile lan-kontratudunak:**
- a) Lan-arloko legeriaren arabera
 - b) Enpresa-batzordearen barne-akordioen arabera
 - c) 1996ko urriaren 23ko akordio arautzailearen arabera
 - d) Estatuaren Aurrekontu Orokorretako xedapen gehigarrien arabera
8. **Zer falta motatzat joko da greba-eskubidea askatasunez baliatzea eragozteko egin-tzak egitea?**
- a) Falta astuntzat
 - b) Falta arintzat
 - c) Falta oso larria.
 - d) Diziplinazkoa ez den faltatzat
9. **Zeinek izango du UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langile lan-kontra-tudunen III. hitzarmenaren interpretazioak sor ditzakeen arazoak aztertu eta kon-pontzeko eskumena?**
- a) Batzorde Parekideak
 - b) Negoziazio Batzordeak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Plangintza Batzordeak
10. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren arabera, zein izango da UPV/EHU-n ordaindutako urteko oporraldia-ren iraupena?**
- a) 22 egun
 - b) 25 egun
 - c) 24 egun
 - d) 23 egun
11. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileek aparteko hiru ordainsari izango dituzte hilabete hauetan:**
- a) Apirila, abuztua eta abendua
 - b) Martxoa, ekaina eta abendua
 - c) Ekaina, iraila eta abendua
 - d) Otsaila, ekaina eta urria
12. **Unibertsitateko hizkuntza-politikaren ildo nagusiak, zeinek euskararen garapenari eta normalizazioari laguntzen baitiete, hemen jasotzen dira:**
- a) Euskararen Plan Gidarian
 - b) Jardun Akademikoari buruzko Planean
 - c) Esparru Akordio Eleaniztunean
 - d) Hizkuntza Politikari buruzko Oinarrizko Akordioan

13. **Nolakoa da UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzua?**
- a) Berezko zerbitzua
 - b) Besteren zerbitzua
 - c) Enpresaburuak pertsonalki onartutako zerbitzua
 - d) Esleitutako langile baten bidezko zerbitzua
14. **UPV/EHU-koak ez diren pertsonak edo erakundeek ezin izango dute erabili unibertsitatearen zigitua, baldin eta horretarako baimena ematen ez badie beren beregi:**
- a) Errektoreak
 - b) Gerenteak
 - c) Unibertsitateko Klaustroak
 - d) Gobernu Kontseiluak
15. **UPV/EHU-ren estatutuei jarraituz eta legeek diotena kontuan hartuta, UPV/EHU-k honela jarduten du:**
- a) Foru-erregimenean
 - b) Autonomiaz
 - c) Mendekotasun funtzionalez
 - d) Eskumen eskuordetuen erregimenean
16. **UPV/EHU-k, bere estatutuen 5.3 artikuluan, hau onartu eta bermatzen du:**
- a) Adierazpen-askatasuna
 - b) Erlijio-askatasuna
 - c) Katedra-askatasuna
 - d) Pentsamendu-askatasuna
17. **UPV/EHU-ko II. berdintasun-planak esparru hauetan antolatu du berdintasun arloko jarduketak:**
- a) Gizartea, irakaskuntza eta zerbitzuak
 - b) Irakaskuntza, zerbitzuak eta ikerkuntza
 - c) Erakundea eta gizartea
 - d) Irakaskuntza, ikerkuntza eta erakundea
18. **UPV/EHU-n, hizkuntza ofizialak hauek dira:**
- a) Euskara, gaztelania eta ingelesa
 - b) Euskara eta ingelesa
 - c) Gaztelania eta ingelesa
 - d) Euskara eta gaztelania
19. **Zein da UPV/EHU-ren kide bakarreko organoa?**
- a) Gizarte Kontseilua
 - b) Gobernu Kontseilua
 - c) Errektorea
 - d) Bizkaiko Campuseko Batzarra

20. **Unibertsitateko kideak talde hauetan banatzen dira:**
- a) Ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak
 - b) Ikasleak eta langile autonomoak
 - c) Irakasle eta ikertzaileak, eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak
 - d) Ikasleak, langile autonomoak eta zuzendaritzako karguak
21. **Irakasleek lan egingo dute...**
- a) Arduraldi osoan edo partzialean
 - b) Arduraldi osoan bakarrik
 - c) Arduraldi partzialean bakarrik
 - d) Arduraldi osoa eta partziala txandakatuz seihilekotik seihilekora
22. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, nork ezarriko ditu Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordainsariak?**
- a) Errektoreak
 - b) Unibertsitateko Klaustroak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Gobernu Kontseiluak
23. **UPV/EHU-ren estatutuen arabera, langile lan-kontratudunak honela sailkatuko dira:**
- a) Ikastegietako batzarren akordioen arabera
 - b) Indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera
 - c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera
 - d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera
24. **Zeini dagokio Administrazio eta Zerbitzuetako langileen karrera profesionalari buruzko arautegia garatzea?**
- a) Unibertsitateko Klaustroari
 - b) Gizarte Kontseiluari
 - c) Gobernu Kontseiluari
 - d) Enpresa Batzordeari
25. **Zein da lan-kontratudun langileen ordezkaritza-organo bateratua?**
- a) Langileen Batzarra
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Gobernu Kontseilua
 - d) Unibertsitateko Klaustroa

26. **Zein da Administrazio eta Zerbitzuetako langile funtzionarioen ordezkaritza-organo bateratua?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Gobernu Kontseilua
 - d) Unibertsitateko Klaustroa
27. **UPV/EHU-ren unibertsitate-inguruneak irisgarria izan beharko du...**
- a) Ikasleek hala eskatuz gero
 - b) Langileek hala eskatuz gero
 - c) Ikasleek edo langileek hala eskatuz gero
 - d) Legeriak xedatutakoari jarraituz
28. **Zeinek hartuko ditu ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileen diziplina-araubideari buruzko erabakiak, indarrean dagoen legeriak beste organo bati esleitzen ez badizkio?**
- a) Aldezleak
 - b) Errektoreak
 - c) Arbitraje Batzordeak
 - d) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak
29. **Unibertsitateko jarduera guztiekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebazteko bide alternatiboak, aurkakoak izango ez direnak, bultzatuko dituen erakunde burujabe eta inpartziala da:**
- a) Aldezlea
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea
 - d) Errektorea
30. **Aldezle izateko hautagaia:**
- a) Gobernu Kontseiluak proposatu eta aukeratuko du
 - b) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta aukeratuko du
 - c) Gobernu Kontseiluak proposatu eta Unibertsitateko Klaustroak aukeratuko du
 - d) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta Gobernu Kontseiluak aukeratuko du
31. **Aldezleak ez du hartuko parte:**
- a) Ofizioz
 - b) Hauteskunde-prozeduretan
 - c) Alde batek eskatuta
 - d) Unibertsitateko edozein kidek aurkeztutako kexetatik abiatuta

32. **Aldezlearen gomendioen aurka errekurtsoa jarri ahalko da:**
- a) Errektorea zerikusia duen alderdia denean
 - b) Ezingo da jarri errekurtsorik
 - c) Beti jarri ahal izango da errekurtsoa
 - d) Unibertsitateko talde handi bati eragiten dionean
33. **Zeinen eskumena da graduondoko ikasketen helburuak onartzeko proposamena egitea gobernu-kontseiluari?**
- a) Graduoko Batzordearena
 - b) Graduondoko Batzordearena
 - c) Berezko Titulazioen Batzordearena
 - d) Errektorearena
34. **UPV/EHU-n, organo honek zehaztuko du zein lanpostutan izango den nahitaezko euskara eta gaztelania jakitea:**
- a) Gobernu Kontseiluak
 - b) Unibertsitateko Klaustroak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Langileen Batzarrak
35. **UPV/EHU-n, honi dagokio campusak aldatzea:**
- a) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Klaustroaren proposamenari jarraituz
 - b) Unibertsitateko Klaustroari, Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz
 - c) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Campusaren proposamenari jarraituz
 - d) Unibertsitateko Campusari, bere proposamenari jarraituz
36. **Hau da UPV/EHU-ko kontratazio-organoa, ahalmen hori eskuordetu badezake ere:**
- a) Gerentea
 - b) Errektorea
 - c) Kontratazio eta erosketen gerenteordea
 - d) Unibertsitateko Klaustroa
37. **Banakako babes-ekipamenduak erabili beharko dira:**
- a) Langileari egokia iruditzen zaionean.
 - b) Langileari arriskuan dagoela iruditzen zaionean.
 - c) Arriskuak ezin direnean saihestu edo behar beste murriztu babes kolektiboko neurri teknikoen bidez edo lana antolatzeko neurri, metodo edo prozeduren bidez.
 - d) Erreibindikazio sindikal baten mende dagoenean haiek erabiltzea.
38. **Zeinek eman beharko ditu banakako babes-ekipamenduak?**
- a) Prebentziorako eskuordeak.
 - b) Enpresaburuak.
 - c) Langilearen sindikatuak.
 - d) Langilea.

39. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko estatutua hauei aplikatzen zaie, besteak beste:**
- a) Unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
 - b) Unibertsitate publikoetako langile lan-kontratudunei bakarrik.
 - c) Funtzionarioei eta, dagokion neurrian, unibertsitate publikoetako zerbitzupean dauden langile lan-kontratudunei.
 - d) Unibertsitate pribatuetao langile guztiei eta unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
40. **Honela sailkatzen dira langile publikoak...**
- a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan) eta behin-behineko langileak.
 - b) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
 - c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak.
 - d) Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finko nahiz aldi batekoak.
41. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunak dira...**
- a) Legezko izendapen baten ondorioz Administrazio Zuzenbideak araututako estatu-harreman baten bidez administrazio publiko bati lotuta daudenak, izaera iraunkorreko zerbitzu profesional ordainduak emateko.
 - b) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeo edozein modalitate erabilita, eta idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.
 - c) Berariaz justifikatutako larrialdi- eta premia-arrazoia direla-eta halakotzat izendatua dena berez karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko.
 - d) Izendapen baten bidez eta iraupen ez-iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.
42. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunen lanbide-karrera eta sustapena...**
- a) Langileen Estatutuan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
 - b) Hitzarmen kolektiboetan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
 - c) Langileen Estatutuan edo hitzarmen kolektiboetan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
 - d) Funtzio Publikoaren Legean jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.

43. **39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen administrazio prozedura erkidearena, sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira hauek...**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoen administrazioak.
 - b) Estatuaren Administrazio Orokorra, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
 - c) Autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
 - d) Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
44. **Lan-arriskuaren definizioa**
- a) Enpresa batean azpikontratatua egotea.
 - b) Lanaren ondorioz langileak kalteren bat izateko posibilitatea.
 - c) Lan-baldintzak direla-eta nagusiari kexa adieraztea.
 - d) Gaixo egonda lan egitea.
45. **Zer esan nahi du lan-prebentzioa egiteak?**
- a) Lan-prebentzioko ikastaroak egitea.
 - b) Lanetik eratorritako arriskuak saihesteko edo gutxitzeko enpresako jarduera-fase guztietan hartutako edo hartzea aurreikusitako neurrien edo jardueren multzoa.
 - c) Lan-jarduera oro geraraztea balizko arrisku bat dagoenean.
 - d) Balizko arrisku bat ikustea eta haren berri ez ematea.
46. **Nork onartzen du behin betiko UPV/EHU-ren aurrekontua?**
- a) Errektorea.
 - b) Dekanoak.
 - c) Gobernu Kontseiluak.
 - d) Gizarte Kontseiluak.
47. **UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzua honen mende dago zuzenean:**
- a) Ikerketako errektoreordearen mende.
 - b) Errektorearen mende.
 - c) Gerentearen mende.
 - d) Campuseko gerenteordearen mende.
48. **2003ko apirilaren 7ko ebazpenak, UPV/EHU-ko errektorearenak, UPV/EHU-ren beraren prebentzio-zerbitzua eratu, antolatu eta zerbitzuaren funtzionamendua zehazteko denak, adierazten du hau dela prebentzio-zerbitzuaren jarduera-eremua:**
- a) UPV/EHU-ko langile guztiei eragiten die.
 - b) UPV/EHU-ko langile eta ikasleei eragiten die.
 - c) Langile, ikasle eta enpresei eragiten die.
 - d) Langile, ikasle, enpresa eta bisitariari eragiten die.

49. **UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzuak aholku eman behar dio:**
- a) Administrazioari bakarrik.
 - b) Langileei eta haien ordezkariari bakarrik.
 - c) Administrazioari eta langileei eta haien ordezkariari.
 - d) Administrazioari, langileei, haien ordezkariari eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun- eta osasun-batzordeei.
50. **Hauek dira UPV/EHU-ko segurtasun- eta osasun-batzordeak:**
- a) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat.
 - b) Campus arteko Batzorde bat, Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat eta Laneko Ikuskaritza.
 - c) Campus arteko Batzorde bat eta laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko.
 - d) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Laneko Ikuskaritza.
51. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrari laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Hezkuntza-laguntzako teknikari espezialista.
52. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langile lan-kontratudunen hitzarmenetik eratorritako batzorde parekidea honetarako eratuko da:**
- a) Hitzarmeneko funtzionamendurako arauak aplikatzeko.
 - b) Hauteskunde sindikaletan hauteskunde-araudia aplikatzeko.
 - c) Hitzarmenaren interpretazio, iraunaldi edo ezarpenak sor ditzaketan arazoak aztertu eta konpontzeko.
 - d) Sindikatuen lana garatzeko funtsak administratzeko.
53. **Zer talde profesionaletan sailkatzen dira UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren eraginpeko langileak?**
- a) Ez dago talde profesionalen araberrako sailkapenik.
 - b) I. taldea, II. taldea eta III. taldea.
 - c) I. taldea, II. taldea, III. taldea eta IV. taldea.
 - d) I. taldea, II. taldea, V. taldea, VI. taldea eta VII. taldea.

54. **Zein dira UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langileak?**
- a) Langile funtzionarioak, lan-kontratudun langileak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - b) Langile funtzionarioak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - c) Langile lan-kontratudunak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - d) Langile funtzionarioak bakarrik.
55. **Zein da UPV/EHU-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. planaren helburu nagusia?**
- a) Gizon baino emakume gehiago egotea ardura-karguetan.
 - b) UPV/EHUko langileak gai izatea hizkuntza ez-sexista erabiltzeko idatzietan.
 - c) Gizonek ez edukitzea aukerarik ardura-karguak izateko.
 - d) Generoko ikuspegi integratua unibertsitateko jarduera osoan txertatzea, politika aktiboak martxan jarrita, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa benetan gauzatzeko eta diskriminazio-jarrerak saihesteko.
56. **Zein dira UPV/EHU-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. planaren ezaugarriak?**
- a) Egingarria, dinamikoa, zeharkakoa, katalizatzailea, integratzailea eta konprometitua.
 - b) Dinamikoa, integratzailea eta katalizatzailea.
 - c) Egingarria, dinamikoa, zeharkakoa eta konprometitua.
 - d) Dinamikoa, zeharkakoa, katalizatzailea eta integratzailea.
57. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, honela egituratzen dira unibertsitateko ikasketa ofizialak:**
- a) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta doktoregoa.
 - b) Bi ziklotan: gradua eta masterra.
 - c) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta lanbide-heziketa.
 - d) Bi ziklotan: gradua eta doktoregoa.
58. **Nola du izena UPV/EHU-ko arartekoak?**
- a) Ararteko.
 - b) Herriaren defendatzaile.
 - c) Aldezle.
 - d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
59. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, UPV/EHU unibertsitatea...**
- a) Campus anitzekoa da
 - b) Pluricampus motakoa da.
 - c) Campus bakarrekoa da.
 - d) Bi campusekoa da.

60. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, zein dira ikastegiak?**
- a) Eskola eta fakultateak.
 - b) Unibertsitateko campusak.
 - c) Ikastetxe nagusiak.
 - d) Ikasgelategiak.
61. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, dekanoren agintaldia...**
- a) 2 urtekoa izango da.
 - b) 3 urtekoa izango da.
 - c) 4 urtekoa izango da.
 - d) 5 urtekoa izango da.
62. **Zer organori dagokio UPV/EHU-ko plan estrategikoa eta hizkuntza-normalkuntzarako plana onartzea?**
- a) Klaustroari.
 - b) Gobernu Kontseiluari.
 - c) Errektorego-taldeari.
 - d) Errektoreari.
63. **Nork du ikastegi bateko arautegia onartzeko eskumena?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Zuzendaritza Kontseiluak.
 - c) Campuseko Batzarrak.
 - d) Gobernu Kontseiluak.
64. **Nork izendatzen ditu dekanook eta ikastegietako zuzendariak?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Errektoreak.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Eusko Jaurlaritzak.
65. **Gizarte kontseilua...**
- a) UPV/EHUri atxikitako organo bat da.
 - b) UPV/EHUREN kide anitzeko organo bat da.
 - c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako organo bat da.
 - d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kide anitzeko organo bat da.
66. **Zer organok du eskumena unibertsitateko irakasleen irakaskuntzaren alorreko irizpide orokorrak esleitzeko UPV/EHU-n?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Irakaskuntza Plangintzarako Batzordeak.
 - c) Dekanotzak edo ikastegiko zuzendaritzak.
 - d) Saileko Kontseiluak.

67. **Aldezlearen helburua hau izango da:**

- a) Unibertsitatea ordezkatzeko prozedura judizialean.
- b) Unibertsitateko jarduerarekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebaztea.
- c) Gobernu Kontseiluak onartutako akordioak berrestea.
- d) Unibertsitateko kideen arteko lotura izatea.

68. **Zer erantzun da zuzena UPV/EHU-ko estatutuen arabera?**

- a) Ikastegi bakoitzak bere oinarriko arautegia izango du, Gobernu Kontseiluak egina, eta dagokion barne-arautegiarekin osatu ahal izango da.
- b) Gobernu Kontseiluak fakultate edo eskola bakoitzerako egiten duen arautegia izango dute ikastegiak.
- c) Ikastegiak beren autonomiaren eta irizpideen arabera hartzen dituzten erabaki eta akordioen arabera jardungo dute.
- d) Ikastegiko kide guztiek adostutako batzar-arautegiaren arabera jardungo dute ikastegiak.

69. **Honi dagokio hasierako onespina ematea fakultate bat sortzeko proposamenei**

- a) Gobernu Kontseiluari
- b) Fakultateko Batzarrari
- c) Errektoreari
- d) Unibertsitate-gaietako sail eskudunari

70. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, zeinek hartuko du doktorego-eskola bat sortzeko erabakia?**

- a) Gobernu Kontseiluak
- b) Gizarte Kontseiluak
- c) Klaustroak
- d) Errektoreak

71. **Zer egitura du ikastetxe nagusi batek?**

- a) Unibertsitate-zentro bat da
- b) Sail bat da
- c) Ikastegiko sail bat da
- d) Bera kokatuta dagoen campuseko errektoreordetza bat da.

72. **UPV/EHU-ko gobernu-kontseiluaren kideak, besteak beste, hauek dira:**

- a) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko kideak
- b) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bost kide
- c) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko hiru kide
- d) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bi kide

73. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, nor arduratzen da UPV/EHU-ren Administrazio-eta Ekonomia-zerbitzuak antolatu eta kudeatzeaz?**
- a) Errektorea.
 - b) Gerentea.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Ondare eta Kontratazioetarako gerenteeordea.
74. **Noren mende dago organikoki eta funtzionalki gerentzia?**
- a) Gobernu Kontseiluaren mende
 - b) Ekonomi Gaietarako errektoreordearen mende
 - c) Errektorearen mende
 - d) Gizarte Kontseiluaren mende
75. **Campuseko batzarrak kide hauek izango ditu, besteak beste**
- a) Gehienez sail-zuzendarien zortzi ordezkari.
 - b) Gehienez sail-zuzendarien sei ordezkari.
 - c) Gehienez sail-zuzendarien bost ordezkari.
 - d) Gehienez sail-zuzendarien lau ordezkari.
76. **UPV/EHU-ko gizarte-kontseiluak:**
- a) Araugintzarako ahalmena erabiliz, UPV/EHUko estatuak garatu eta aplikatzeko arauak onartzen ditu
 - b) Bere eginkizunak hobeto betetzeko komenigarritzat jotzen dituen batzordeak eratu ditzake
 - c) Campus berriak sor ditzake
 - d) Inbertsio eta azpiegituren urte anitzetako programazioa onartzen du
77. **Erabateko deuseztasunari eta egintzen deuseztagarritasunari dagokienez**
- a) Erabat deusezak izango dira, legez ezarritako beste kasu batzuen artean, administrazio publikoen egintzak, arau-hauste penal baten ondorioz eman badira.
 - b) Forma-akatsak zehaztuko du egintzaren deuseztagarritasuna.
 - c) Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, egintza deuseztagarria izango da.
 - d) Administrazio-egintzaren parte bat deusez edo deuseztagarri izateak inola ere ez dakar parte horrekin zerikusirik ez duten gainerako zatien deuseztasuna edo deuseztagarritasuna.
78. **Espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, administrazio-prozedura bat ebazteko eskatzen diren txostenak:**
- a) aukerakoak eta ez-lotesleak izango dira
 - b) nahitaezkoak eta ez-lotesleak izango dira
 - c) aukerakoak eta lotesleak izango dira
 - d) nahitaezkoak eta lotesleak izango dira

79. **Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein den zuzena:**

- a) aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko epea hilabete izango da, gora jotzeko errekurtsoaren ebazpena jakinarazten denetik
- b) administrazio-bidea amaitzen duten ebazpen eta egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren edo hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean
- c) administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan
- d) gora jotzeko edo berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren aurka, ezin izango da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri.

80. **UPV/EHU-ren aurrekontuaren ezaugarriak Euskal Unibertsitate-sistemaren Legearen 104. artikuluan jasotzen dira, eta hauek dira:**

- a) Publikoa, bakarra eta orekatua izango da, eta bere diru-sarrerara eta gastu guzti-guztiak agertu beharko dira bertan
- b) Publikoa eta orekatua eta solidarioa izango da
- c) Nahikoa, zabala eta malgua izango da, eta kontabilitate-mugimendu guztiak agertu beharko dira bertan
- d) Barnekoa, anizkoitza eta orekatua izango da

81. **Langile-kostuetarako baimenari dagokionez**

- a) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari, maiatzaren 31 baino lehen
- b) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari, abenduaren 31 baino lehen
- c) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero Gizarte Kontseiluari, maiatzaren lehena baino lehen
- d) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero Gizarte Kontseiluari, maiatzaren 31 baino lehen

82. **Lanpostuak hauen bidez sortu, aldatu edo ezabatuko dira:**

- a) Aurrekontu-legeen bidez.
- b) Lanpostu-zerrenden bidez.
- c) Langileen berrizendapen-prozeduren bidez.
- d) Enplegu publikorako eskaintzen bidez.

83. **Egiteko nagusia ofizio batean jardutea duten lanpostuak, zeinetan batez ere eskuzko teknikak erabili behar baitira eta zeinetan aritzeko ez baita ezinbestekoa ikasketa-titulaziojakin bat izatea:**

- a) Langile lan-kontratudun finkoentzat gordeko dira.
- b) Langile lan-kontratudun finkoentzat gorde ahalko dira.
- c) Langile funtzionarioentzat gordeko dira.
- d) EAEko administrazio publikoetan ez dago halako lanposturik.

84. **Hizkuntza-eskakizunak hau zehazten du:**
- a) Lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren mailak.
 - b) Administrazioak harremanetarako erabiltzen duen hizkuntza.
 - c) Lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailak.
 - d) Funtzionarioek beren harremanetan erabili behar duten hizkuntza.
85. **Hitzarmen kolektiboaren arabera, UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileek zenbat aparteko ordu egin ditzakete gehienez urteko?**
- a) 80.
 - b) 85.
 - c) 100.
 - d) Gutxienez kopuru bat dago, baina gehienek ez.
86. **Zer kontratu motarekin lotzen da langile baten erretiro partziala?**
- a) Praktikaldiko kontratuarekin.
 - b) Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin.
 - c) Txanda-kontratuarekin.
 - d) Prestakuntzarako kontratuarekin.
87. **UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langileek borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea dute?**
- a) Gutxienez urtebeteko antzintasuna badute enpresan.
 - b) Ez dute halako eskubiderik; funtzionarioek bakarrik dute.
 - c) Gutxienez bi urteko antzintasuna badute enpresan.
 - d) Gutxienez bi hirurteko aitortu badituzte.
88. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrari laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Laborategiko teknikari espezialista.

89. **AZP-aren euskalduntze-batzordearen osaerari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**
- a) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kideak hauek izango dira: hamar irakasle edo ikertzaile, hiru ikasle, Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkari bat eta sindikatu bakoitzeko bi ordezkari.
 - b) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kide izango dira campusetako euskara-batzordeetako eta ikastegietako euskara-batzordeetako ordezkari bana, halakorik badago.
 - c) Batzordea osatuko dute AZPko langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzaren ordezkari bik eta Administrazioaren beste horrenbeste ordezkari. Horrez gain, sindikatu bakoitzak gehenez aholkulari bat eraman ahal izango du batzordearen bileretara.
 - d) Gobernu Kontseiluak arautuko ditu batzordeko kideak izendatzeko prozedura eta funtzionamendua.
90. **Zer da Administrazio eta Zerbitzuetako langileen erreferentziako plantila?**
- a) Giza baliabideak kudeatzeko tresna bat da
 - b) Giza baliabideen plangintza egiteko tresna bat da
 - c) Giza baliabideak kontrolatzeko tresna bat da
 - d) Lanpostuak baloratzeko tresna bat da
91. **Administrazio eta Zerbitzuetako langile lan-kontratudunen ordainsariak honela egituratzen dira:**
- a) Oinarrizko soldata, lanpostu mailako osagarria, osagarri espezifikorokorra eta osagarri espezifikoberezia
 - b) Oinarrizko soldata, lanpostu mailako osagarria, osagarri espezifikorokorra, osagarri espezifikoberezia, produktibitate-osagarria eta aparteko haborokinak
 - c) Oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak
 - d) Oinarrizko soldata, antzinasun-osagarria, toxikotasun, arrisku edo nekagarritasunagatiko plusa eta arduraldi bereziko osagarria.
92. **Lan-arriskuen Prebentziorako Legearen arabera, zenbat langile dituzten enpresa edo lantokietan eratzen da segurtasun eta osasuneko batzordea?**
- a) 30 langile baino gutxiago.
 - b) 30 langile.
 - c) 51 langile edo gehiago.
 - d) 50 langile edo gehiago.
93. **Segurtasun eta osasuneko batzordea...**
- a) Parte hartzeko organo bitariko eta kolegiatua da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
 - b) Parte hartzeko organo igualitario eta kide bakarrekoa da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
 - c) Parte hartzeko organo indibidual eta parekidea da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
 - d) Parte hartzeko organo parekidea da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.

94. **Prebentziorako eskuordeen eskumenak hauek dira:**
- a) Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, prebentzio-ekintza hobetzeko.
 - b) Arriskuak prebenitzeko planak eta programak egin, abian jarri eta ebaluatzen parte hartzea.
 - c) Arriskuak benetan prebenitzeko metodo eta prozedurei buruzko ekimenak sustatzea.
 - d) Prebentzioari buruzko prestakuntza ematea gainerako langileei.
95. **Hau da prebentzio-zerbitzua:**
- a) Prebentzio-jarduerak gauzatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa.
 - b) Laneko segurtasunaren arloan lan egiten duten pertsonen multzoa.
 - c) Lantoki guztietan izan beharreko lehen sorospeneko lokalak.
 - d) Langileei lanbide-gaixotasuna dutenean ematen zaaien zerbitzua.
96. **Zer helburu du UPV/EHU-ren euskararen II. plan gidariak Administrazio eta Zerbitzuetako langileentzat?**
- a) LPZko lanpostu guztiek derrigortasun-data gainditua izatea 2017ko abendurako.
 - b) IVAPekin elkarlanean aritzea, hizkuntza-prestakuntzarako politika koordinatzeko eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
 - c) Plangintzaldian zehar titulazio-talde bakoitzean izan behar diren derrigortasun-datak gutxienez talde horretako lanpostuen % 25 izan beharko du.
 - d) Planaren amaieran A eta I taldeetako lanpostuen % 30ek 4. hizkuntza-eskakizuna ezarria izan beharko du, nahiz eta ez guztiek derrigortasun-data gainditua izan.
97. **Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 dekretuan, administrazio atalak honela sailkatzen dira:**
- a) Kidegoa eta eskala.
 - b) Bi kategoriatan: jendaurreko atalak eta jendaurrekoak ez direnak.
 - c) Lau kategoriatan: jendaurreko atalak, gizarte-mailako atalak, atal orokorrak eta atal bereziak.
 - d) Ordainsari-mailaren arabera.
98. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko estatutuak:**
- a) Bitarteko funtzionarioaren figura ezabatzen du.
 - b) Bitarteko funtzionarioaren figura jasotzen du.
 - c) Bitarteko funtzionarioen figura mantentzen du estatutu hori indarrean sartu aurretiko kontratuetarako bakarrik.
 - d) Adierazten du bitarteko funtzionarioak karrerako funtzionario izatera pasatuko direla hirugarren xedapen gehigarrian jasotako prozedura berezi baten bidez.

99. **Behin-behineko langileei dagokienez:**
- a) Izendatzea nahiz kargutik kentzea librea izango da.
 - b) Izaera ez-iraunkorreko langileak dira.
 - c) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzte.
 - d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
100. **Hirurtekoak:**
- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan oinarrizko ordainsaritzat hartzen dira.
 - b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ordainsari osagarritzat hartzen dira.
 - c) Bitarteko funtzionarioek ezin dituzte kobratu.
 - d) Ez dira ordainsaritzat hartzen.
101. **Desgaitasuna duten pertsonak:**
- a) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko hiruko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.
 - b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ez du kontuan hartzen inolako neurririk desgaitasuna duten pertsonak funtzioan publikoan sartzeari dagokionez.
 - c) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen kupo bat gorde ahal izango da, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten. Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du kopuru hori, zeina ezingo baita izan eskaintzen diren lanpostuen % 3 baino txikiagoa eta % 10 baino handiagoa.
 - d) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.
102. **Zein dira karrerako funtzionarioak hautatzeko sistemak?**
- a) Oposizioa.
 - b) Lehiaketa.
 - c) Oposizioa eta oposizio-lehiaketa.
 - d) Lehiaketa-sistema bakarrik erabili ahal izango da baldin eta Administrazio Publiko-rako Estatuaren Goi Ikuskaritzak onartzen badu.
103. **Karrerako funtzionarioak hautatzeko prozesuetan, noiz erabili ahal izango da lehiaketa-sistema bakarrik?**
- a) Inoiz ez.
 - b) Legearen indarrez bakarrik, eta salbuespen modura.
 - c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:
 - d) Administrazio publiko bakoitzeko organo arduradun nagusiak onartzen badu.
104. **Nolanahi ere, enplegu publikoaren eskaintza betetzeko, epe hau izango da gehienez ere:**
- a) Hiru urte.
 - b) Lau urte.
 - c) Hamar urte.
 - d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten.

105. **Esaldi hauetako zein da zuzena?**

- a) Debekatuta dago hemezortzi urtetik beherakoak lanerako hartzea.
- b) Debekatuta dago hamasei urtetik beherakoak lanerako hartzea.
- c) Konstituzioaren arabera, debekatuta dago hemezortzi urtetik beherakoak lanerako hartzea.
- d) Konstituzioaren arabera, debekatuta dago hamasei urtetik beherakoak lanerako hartzea.

106. **Lan-kontratua**

- a) Idatziz egin behar da beti.
- b) Berbaz egindako kontratuak zuzenbidean erabat deusezak dira.
- c) Lanbideren F3 ereduaren arabera egin behar da.
- d) Praktikaldiko kontratuak idatziz jaso behar dira kasu guztietan.

107. **Praktikaldiko kontratuaren iraupena:**

- a) Ezingo da izan urtebete baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria bera izanda.
- b) Ezingo da izan bi urte baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua bera izanda.
- c) Langilearen eta alderdi kontratatzailearen arteko akordio bidez zehaztuko da.
- d) Ez dago araututa Langileen Estatutuan.

108. **Langileen estatutuan jasotzen diren hitzarmen kolektiboak:**

- a) Notario aurrean erregistratu behar dira.
- b) Eskumenak dituzten laneko agintariei aurkeztu behar zaizkie, indarrean sar daitezzen behin betiko.
- c) Eskumenak dituzten laneko agintariei aurkeztu behar zaizkie, erregistroan jasotzeko.
- d) Autonomia-erkidego bakoitzean eskumena duen organoari aurkeztu behar zaizkio, eta erregistratu.

109. **Lanaldi bat amaitzen denetik eta hurrengoa hasten denera arte...**

- a) 24 ordu igaro behar dira gutxienez.
- b) 12 ordu igaro behar dira gutxienez.
- c) 16 ordu igaro behar dira gutxienez.
- d) Hitzarmen kolektibo bakoitzean ezarriko da, sektorearen, gremioaren eta ekoizpenaren ezaugarrien arabera.

110. **Benetan lan egindako ordu kopurua:**
- a) Inoiz ezingo da izan egunean bederatzi ordu baino gehiago.
 - b) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan bederatzi baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
 - c) Inoiz ezingo da izan egunean hamar ordu baino gehiago.
 - d) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan hamar baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
111. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, lanpostu-zerrendek nahitaez jaso beharreko informazioaren artetik, erantzun hauetako bat okerra da:**
- a) Dedikazio-erregimena.
 - b) Hizkuntza-eskakizuna.
 - c) Hizkuntza-eskakizunak indarra galtzen duen eguna.
 - d) Lanpostua elebiduna ala elebakarra den.
112. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, lehiaketa-oposizio bidezko aukeraketa-prozedura batean, lehiaketa-aldiaren balorazioa:**
- a) Beti % 45 izango da.
 - b) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 45etik gorakoa.
 - c) Prozesua deitzen duen administrazio publikoak erabakitzen du.
 - d) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 50etik gorakoa.
113. **Erantzun hauetatik zein ez da baliozkoa funtzionario bat zerbitzu berezietakotzat jotzeko?**
- a) Nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeetako funtzionario-izaera hartzen duenean.
 - b) Administrazioaren baimena duenean EAeko GKEen Erregistroan jaso eta aintzatesitako gobernuz kanpoko erakundeetako batean sei hilabetetik gorako denboraldian nazioarteko edo nazioz gaindiko eginkizunak betetzeko.
 - c) Foru-diputazioetan eta toki-korporazioetan hautatutako kargua izan, eta kargu hori ordaindua eta dedikazio osokoa denean.
 - d) Gorte Nagusiek aukeratzen dutenean Konstituzio-erakundeetako edo ganberek hautatu beharreko organoetako kide izateko.
114. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, kontzeptu hauetatik zein ez da lansari osagarri bat?**
- a) Lanpostu-mailako osagarria.
 - b) Produktibitate-osagarria.
 - c) Berariazko osagarria.
 - d) Ordainsari bereziak.

115. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko arauak ez betetzea?**
- a) Falta oso larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta larria.
 - d) Falta arina.
116. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako falta da lantegietan iskanbilaren bat sortzea edo hartan parte hartzea?**
- a) Falta larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta oso larria.
 - d) Falta arina.
117. **Hizkuntza-eskakizunak betetzen direla akreditatzeko, zer erakundek erabakiko ditu kasu bakoitzean behar den euskara-maila ebaluatzeko proben edukia eta forma?**
- a) Euskerazaintzak.
 - b) Euskaltzaindiak.
 - c) Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
 - d) Euskara Batzorde Nagusiak.
118. **Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu batera sartzeko:**
- a) Hautatutako hautagaiak urtebeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
 - b) Hautatutako hautagaiak sei hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
 - c) Eskakizuna bete beharrekoa izango da lanpostura sartzeko.
 - d) Hautatutako hautagaiak hiru hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
119. **Zer unibertsitatek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema?**
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate publikoek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
 - c) Euskal Unibertsitate Sistema hauek osatzen dute: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Makina Erremintaren Institutua eta Zamudioko Unibertsitate Ikerketako Zentroa.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek eta egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izanik atxikitze-eskaera onartzen zaien unibertsitateek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera.

120. **UPV/EHUko ikasketa-planak egitea:**

- a) Unibertsitate bakoitzeko klaustroaren egitekoa da.
- b) Unibertsitate publikoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena ez da beharrezkoa izango.
- c) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.
- d) Behin betiko onartzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren oniritzia behar da.

121. **Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzea:**

- a) Eusko Legebiltzarrari dagokio, unibertsitatearen jardun-eremua EAEko hiru lurralde historikoak badira.
- b) Unibertsitatearen jardun-eremua lurralde historiko bakar bat baldin bada, lurralde horretako Batzar Nagusiei dagokie.
- c) Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio.
- d) Unibertsitate-hezkuntzako gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio.

122. **Unibertsitate-planak:**

- a) Lau urteko iraupena du.
- b) Bost urteko plan bat da.
- c) Hiru urteko plan bat da.
- d) Hezkuntza Sailak ezartzen du haren iraupena.

123. **Erakunde hauetatik zein ez dago jasota Euskal Unibertsitate Sistemaren legean?**

- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
- b) Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
- c) Gizarte Kontseilua.
- d) EAEko Errektoreen Batzarra.

124. **Unibertsitate publikoaren aurrekontuetan, programa-kontratuak:**

- a) Unibertsitateak ez du lege-baimenik programa-kontratuak sinatzeko; unibertsitate publikoek bakarrik.
- b) Oinarrizko ekarpen bat dira.
- c) Ekarpen subsidiario bat dira.
- d) Baldintzapeko finantzaketa-era bat dira.

125. **UPV/EHU**

- a) Foru-zuzenbideko erakunde bat da.
- b) Zuzenbide publiko erkideko erakunde bat da.
- c) Zuzenbide publikoko erakunde bat da.
- d) Zuzenbide pribatuko eta finantzaketa publikoko erakunde bat da.

126. **Zehazteko zehaztea UPV/EHU-ko irakasleen eta ikertzaileen zerbitzu-eginkizun, lizentzia, baimen eta eszedentzia guztiak emateko araubidea?**
- a) Unibertsitateko Klaustroari.
 - b) Gerentearen, Enpresa Batzordearen eta Langileen Batzarraren akordio bidez zehazten da.
 - c) Gobernu Kontseiluari, kontuan hartuta UPV/EHUko Irakasleen Batzordearen iritzia.
 - d) Gobernu Kontseiluari, Gerenteak proposatuta.
127. **Administrazio eta Zerbitzuetako langileak hartzeko UPV/EHUren lan-eskaintzan jasotako plaza hutsak betetzeko egingo diren hautatze-probetako deialdia:**
- a) Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - b) Gobernu Batzarrak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
 - c) Gobernu Kontseiluak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
 - d) Enplegu publikoko gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
128. **Hauetako zein ez da UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkari-organoa bat?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Ikastegietako batzarrak.
 - d) Atal sindikalak.
129. **Nork aukeratuko du aldezia?**
- a) Gobernu Kontseiluak gehiengo osoz, 5 urterako.
 - b) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen gehiengo osoz, 5 urterako.
 - c) Klaustroak, errektoreak proposatuta, 5 urterako.
 - d) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen bi herenen gehiengoarekin, 5 urterako.
130. **Euskal Unibertsitate-sistemaren unibertsitate-ikastegiak sortu, aldatu edo kentzea:**
- a) Unibertsitateko Klaustroari dagokio, Gobernu Kontseiluak proposatuta.
 - b) Gobernu Kontseiluari dagokio.
 - c) Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - d) Gobernu Kontseiluari eta ikastegia dagoen edo egongo den Campuseko Batzarrari dagokie.
131. **Zein da UPV/EHUko kontratazio-organoa?**
- a) Kontratazio eta Plangintza Batzordea.
 - b) Errektorea, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.
 - c) Gerentzia.
 - d) Campuseko gerentziordetzak, campus anitzeko unibertsitate bat baita.

132. **Zeinek onartzen du behin betiko UPV/EHUko aurrekontua?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Kudeaketa Klaustroak, zeina urtero egiten baita.
 - c) Gizarte Kontseiluak.
 - d) Klaustroak.
133. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, berdintasunaren arloko zer neurri diseinatu eta egikaritzea dagokie instituzio komunei?**
- a) Diskriminazio positiborik gabekoak.
 - b) Ekintza positibokoak.
 - c) Ekintza publikokoak.
 - d) Diskriminazio positibokoak.
134. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, zeini dagokio lege hau zein neurritan betetzen den ebaluatzea?**
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari.
 - b) EAEko administrazio publikoei.
 - c) Auzitegi arruntei.
 - d) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
135. **2005eko otsailaren 18ko gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako 4/2005 Legearen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organismoetan ordezkariak orekatutzat joko da sexu biek gutxienez ordezkariak hain dutenean:**
- a) % 50eko ordezkariak dutenean.
 - b) % 40tik gorako ordezkariak dutenean.
 - c) % 45eko ordezkariak, gutxienez, dutenean.
 - d) % 40ko ordezkariak, gutxienez, dutenean.
136. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langile lan-kontratadunen hitzarmen kolektiboa hauei aplikatuko zaie:**
- a) UPV/EHUrekin lotura juridiko eta laboral mugagabea edo aldi baterakoa duten Administrazio eta Zerbitzuetako langileei.
 - b) UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako langile guztiei.
 - c) UPV/EHUren zerbitzupeko funtzionarioei.
 - d) Lotura juridiko eta laboral mugagabea bakarrik duten Administrazio eta Zerbitzuetako langileei.

137. **Langile lan-kontratudunen lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak:**
- a) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Batzorde Parekidearekin negoziatu ondoren.
 - b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - d) UPV/EHUko Klaustroak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
138. **Lanpostuen zerrendetan, hauek jaso behar dira:**
- a) Aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak.
 - b) Aurrekontuetan diruz hornituta egon eta langile funtzionarioentzat gordeta daude-nak bakarrik.
 - c) Langile funtzionario eta langile lan-kontratudunentzakoak bakarrik, hutsik daude-nak izan ezik.
 - d) Lanpostu guztiak, aurrekontuetan diruz hornituta egon nahiz ez.
139. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboaren arabera, norberaren kontuutarako baimena:**
- a) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuutarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu.
 - b) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuutarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen aldez aurretiko baimena beharko da.
 - c) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuutarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu.
 - d) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuutarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen aldez aurretiko baimena beharko da.
140. **Nahitaezko eszedentzian dagoen langileari dagokionez:**
- a) Lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, baina eszedentzia aldia ez zaio kontuan hartuko antzinasunerako.
 - b) Antzinasuna kontuan hartuko zaio, baina ez du eskubiderik izango lanpostua gordea izateko.
 - c) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, eta eszedentzia-aldia kontuan hartuko zaio antzinasunerako.
 - d) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du baldin eta eszedentzia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta antzinasunerako zenbatzeko eskubidea izango du.

141. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren arabera, langileak, ezkonduz gero, eskubidea izango du**
- a) 15 laneguneko baimena hartzeko.
 - b) 20 laneguneko baimena hartzeko.
 - c) 15 egun naturaleko baimena hartzeko.
 - d) 20 egun naturaleko baimena hartzeko.
142. **Erretiro partziala eta txanda-kontratua hartu nahi duten langileek baldintza hauek bete behar dituzte:**
- a) Langile lan-kontratuduna izatea.
 - b) Gutxienez 20 urteko antzinatasuna izatea.
 - c) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea darraren beste edozeinetan, edo egonkortasuna aitortua izatea.
 - d) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea darraren beste edozeinetan.
143. **UPV/EHUren prebentzio zerbitzua honela antolatuta dago:**
- a) Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa.
 - b) Osasun-arlo bat campus bakoitzeko eta Arlo Teknikoa.
 - c) Osasun Arloa eta arlo teknikoa campus bakoitzeko.
 - d) Osasun Arloa, Arlo Teknikoa eta Psikologia Aplikatua Saila.
144. **UPV/EHUren osasun arloaren zereginak hauek izango dira:**
- a) UPV/EHUko ikastegietako arriskuen ebaluazioak egitea.
 - b) Osasunaren zaintzari dagozkionak eta ergonomia eta psikosoziologia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak.
 - c) Istripu eta gorabeherak aztertzea, haien arrazoiak aztertzeke eta berriro gerta daitezzen eragozteke.
 - d) Larrialdi-planak diseinatu eta koordinatzea.
145. **Prebentzioko ordezkariak:**
- a) Larrialdi-planak diseinatzeko ardura dute.
 - b) Prebentzio-jarduerak planifikatuko dituzte urtero prebentzioko teknikariek batera.
 - c) Unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.
 - d) Larrialdi-planak kudeatzeko ardura izango dute.
146. **Administrazio publikoetako zuzendaritzako langile profesionalak:**
- a) Eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak aintzat hartuta ebaluatuko da haien zeregina.
 - b) Ez daude araututa Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan.
 - c) Lau urterako kontratatzen dira, eta beste lau urterako bakarrik luza dakieke kontratua.
 - d) Ez daude aurreikusita unibertsitate publikoetarako.

147. **Administrazio-prozedura batean interesa duten pertsonatzat hartzen dira:**
- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboaren titular modura prozedura hori sustatu dutenak.
 - b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubiak dituztenak.
 - c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
148. **Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legearen arabera, honelakotzat jotzen dira unibertsitate publikoak:**
- a) Administrazio publikotzat
 - b) Zuzenbide publikoko korporaziotzat.
 - c) Partzuergotzat.
 - d) Sektore publiko instituzionaltzat.
149. **Administrazio-prozedura batean epe jakin bat egunetan adierazten denean, hau ulertzen da:**
- a) Egun naturalak direla.
 - b) Egun baliodunak direla, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
 - c) Egun baliodunak direla, larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
 - d) Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.
150. **39/2015 Legearen arabera, zuzenbidean erabat deusezak dira:**
- a) ahozko administrazio-egintzak.
 - b) legez ezarritako prozedura zeharo alboratuz egindako administrazio-egintzak.
 - c) epez kanpo emandako administrazio-egintzak.
 - d) aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
151. **39/2015 Legearen arabera, zein da epea egintza espresu baten aurka gora jotzeko errekurso bat jartzeko?:**
- a) Hamabost egun.
 - b) Hilabete.
 - c) Bi hilabete.
 - d) Hiru hilabete.
152. **39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurso bat jarri ondoren, zein da epea ebazteko eta ebazpena jakinarazteko?**
- a) Hilabete.
 - b) Bi hilabete.
 - c) Hiru hilabete.
 - d) Sei hilabete.

153. **Adierazi kasu hauetako zein ez den administrazio-errekurtso bat ez onartzeko arrazoia:**
- a) Errekurtsogileak legitimaziorik ez izatea.
 - b) Errekurtsoa jartzeko epea igaro izana.
 - c) Errekurtsoa jar ez dakiokeen egintza izatea.
 - d) Errekurtsogileak okerren bat egitea errekurtsoaren kalifikazioan.
154. **Administrazio-prozedura baten arauak bestelako eperen bat adierazten ez badu, hau izango da prozedura hori ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea:**
- a) Hilabete.
 - b) Bi hilabete.
 - c) Hiru hilabete.
 - d) Sei hilabete.
155. **39/2015 Legearen arabera, epe honetan egin behar dira jakinarazpen guztiak:**
- a) Gehienez hamar egun administrazio-egintzaren datatik.
 - b) Gehienez hamabost egun administrazio-egintzaren datatik.
 - c) Gehienez hilabete administrazio-egintzaren datatik.
 - d) Gehienez bi hilabete administrazio-egintzaren datatik.
156. **39/2015 Legearen arabera, noiz argitaratu behar dira egintza administratiboak?**
- a) Beti.
 - b) Egintzaren jasotzailea jende kopuru mugagabe bat denean.
 - c) Kalterako den egintza denean.
 - d) Administrazio-egintzak ezin dira argitaratu inoiz.
157. **39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura batean interesa duen pertsonak, edo haren ordezkariak, administrazio-jardun baten jakinarazpena atzera botatzen badu:**
- a) Berrito saiatu beharra dago jakinarazten interesdunak jasotzen duen arte.
 - b) Administrazio-jardun hori dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da.
 - c) Espedientean aipatuko da, jakinarazteko egindako saioaren xehetasunak eta bidea zehaztuz; jakinarazitzat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du.
 - d) Prozedura bertan behera utziko da beti.
158. **Nori dagokio UPV/EHU-ko erregistro orokorra mantentzea?**
- a) Idazkari nagusiari.
 - b) Errektoreari.
 - c) Dagokien zerbitziburuei.
 - d) Campuseko errektoreordetzei.

159. **Unibertsitateko klaustroa:**

- a) Unibertsitatearen gobernu-organoa da.
- b) Gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoa da.
- c) Jakintza-arlo bateko edo batzuetako ikasketak koordinatzeaz arduratzen den irakaskuntza- eta ikerketa-unitatea da.
- d) Unibertsitateko kideen ordezkaritza-organoa da.

160. **UPV/EHU-ren estatutuei jarraituz, zer organori dagokio beste organo batzuei espre-suki esleituak ez dauden eskumenak egikaritzea?**

- a) Gobernu Kontseiluari.
- b) Klaustroari.
- c) Errektoreari.
- d) Idazkari nagusiari.

ATAL ESPEZIFIKOA

1. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, gorputz-hezkuntza:**
 - a) Nahitaezkoa da unibertsitate-irakaskuntza guztietan.
 - b) Hautazko irakasgaia da derrigorrezko irakaskuntzako ziklo guztietan.
 - c) Nahitaezko irakasgaia da, unibertsitate-hezkuntzaren aurreko hezkuntza-maila eta -gradu guztietan.
 - d) Nahitaezkoa da haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan.

2. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen ondoretarako, klubak:**
 - a) Pertsona juridikoz osatutako elkarte pribatuak dira.
 - b) Kirol-elkarteak dira.
 - c) Zuzenbide publikoko erakunde pribatuak dira.
 - d) Elkarte ludikoak dira.

3. **Kirolari buruzko 10/1990 Legeak honela sailkatzen ditu kirol-lehiaketak:**
 - a) Haien izaera eta esparrua kontuan hartuta.
 - b) Nazioartekoak eta nazionalak.
 - c) Ofizialak eta amateurak.
 - d) Adinaren arabera.

4. **Kirolari buruzko 10/1990 Legeak jokoaren edo lehiaketaren arau-haustetzat jotzen ditu hauek:**
 - a) Indarkeria fisikoa edo hitzezkoa.
 - b) Zigor Kodearen arau-hausteak.
 - c) Espainiako kirol-kluben, liga profesionalen eta kirol-federazioen estatutu- edo erregelamendu-xedapenak ez betetzea.
 - d) Jokoaren edo lehiaketaren garapen normala urratzen, galarazten edo endredatzen duten egintzak edo ez-betetzeak.

5. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen definizioz, goi-mailako kirolaritzat jotzen dira hauek:**
 - a) Kirol Kontseilu Gorenak, Espainiako kirol-federazioekin eta, hala dagokionean, autonomia-erkidegoekin batera urtero-urtero prestatzen dituen zerrendetan ageri direnak.
 - b) Kirol-diziplinetako nazioarteko lehiaketetan parte hartzen dutenak.
 - c) Estatuko liga profesionaletako kirolari profesionalak.
 - d) Estatuko Buruzagitzaren aldetik, kirol-eliteko kide-izendapena jasotzen dutenak.

6. **Kirolari buruzko 10/1990 Legeak ezartzen duenez, hau izango da Kirolaren Batzar Orokorraren helburu nagusia:**
 - a) Kirolari buruzko gidalero estrategikoak ezartzea.
 - b) Espainiako kirol-federazio guztiak biltzea.
 - c) Kirol Kontseilu Gorenaren erabakiak betearaztea.
 - d) Aholkularitza eskaintzea Kirol Kontseilu Gorenaren presidenteari, haren esku ipinitako kirol-alorreko gaitan.

7. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen erregulazioz, zein izango da kirol-elkarte anoni-moen administrazio-organoa?**
- a) Batzar Orokorra.
 - b) Administrazio-kontseilu bat.
 - c) Zuzendaritza Batzordea.
 - d) Kontseiluko presidentea.
8. **Kirolari buruzko 10/1990 Legeak ezartzen duenez, honako hauek Espainiako kirol-federazioen gobernu- eta ordezkaritza-organo izango dira ezinbestean:**
- a) Batzorde teknikoak.
 - b) Lurralde-batzarrak.
 - c) Lurralde-federazioak.
 - d) Batzar Orokorra eta presidentea.
9. **Estatuan, kirol-antolaketaren sektore publikoaren barruan, honako instituzio hauek topa ditzakegu, besteak beste:**
- a) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
 - b) Espainiako kirol-federazioak.
 - c) Probintzia-diputazioak.
 - d) Autonomia-erkidegoetako kirol-zuzendaritza nagusiak.
10. **Espainiako kirol-federazioak:**
- a) Kirol Kontseilu Gorenaren mendeko erakunde publikoak dira.
 - b) Nortasun juridiko propiorik gabeko entitate pribatuak dira.
 - c) Jarduera-esparru nazionaleko entitate pribatuak dira, nortasun juridiko propioa dutenak.
 - d) Esparru nazionalean kirolaren alorreko eskumenak dituen Ministerioaren mendeko entitate publikoak dira.
11. **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zein kontratu mota jasotzen ditu, besteak beste?**
- a) Obra-kontratuak
 - b) Ekipamendu-kontratuak
 - c) Hornidura emateko kontratuak
 - d) Zuzeneko kontratuak
12. **Espainiako Estatuan, zer organok erabakitzen ditu administrazio-bidean eta azken instantzian, Estatuaren eskumenekoak diren kirol-diziplinako auziak, barnean hartuta 3/2013 Lege Organikoan bildutakoak (kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoa)?**
- a) Kirol Kontseilu Gorenak.
 - b) Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak.
 - c) Kiroletarako Administrazio Auzitegiak.
 - d) Dopinaren aurkako Batzordeak.

13. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera, lehiaketan edo lehiaketatik kanpo kirolariei egindako dopin-kontroletan, zein laborategitan egingo dira kirolean debekatutako substantziak eta metodoak detektatzera bideratutako analisiak?**
- a) Estatuaren edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-organismo publikoetan.
 - b) Dopinaren Aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena dutenetan edo Estatuak homologatuetan.
 - c) Olinpiar Batzordearenetan.
 - d) Gernu-probak egiteko gaitutako instalazioak dituztenetan.
14. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera, Nazioarteko Federazioak nazioarteko kirolariei erabilera terapeutikorako emandako baimenak nolako balioa izango du?**
- a) Nazioarteko lehiaketetan bakarrik balioa du.
 - b) Erabateko balioa izango du Estatuko kirol-lehiaketa eta -jardueretan ere.
 - c) Urtebeteko balioa izango du.
 - d) Dopinaren Estatuko Agentziak baliozkotu beharko du.
15. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoak ezarritako dopinaren alorreko arau-hausteen tipifikazioari dagokionez, zer eratako arau-haustea izango da ez betetzea kirolariaren kokapenari buruzko informazioa aurkezteko betebeharrak edo kirolariak kontrolak kokaleku horretan egiteko prest egoteari dagozkionak, araudi erregulatzaillean xedatutako moduan?**
- a) Arina.
 - b) Oso astuna.
 - c) Astuna.
 - d) Delitua da.
16. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera, diziplina-erantzukizuna iraungitzeko arazoietako bat hau izango da:**
- a) Preskripzioa.
 - b) Zigor-kommutazioa.
 - c) Salaketa.
 - d) Jakinarazpen-eza.
17. **Dopinaren Aurkako Munduko Kodean eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren barne-araudian aurreikusitako ondoretarako, kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera, zer erakunde hartzen da dopinaren aurkako erakunde nazional gisa, esparru horretan dagozkion eskumenak bere gain hartuz?**
- a) Kirol Kontseilu Gorena.
 - b) Modalitateko kirol-federazioak.
 - c) Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia.
 - d) Justizia-auzitegiak.

18. **Kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legeak ezartzen duenez, nori dagokio Lege horretan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako segurtasun-neurriak hartzea?**
- a) Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoei.
 - b) Autonomia-erkidegoetako eta udaletako agintariei.
 - c) Bereziki, kirol-lehiaketak eta -ikuskitzak antolatzen dituzten pertsonei.
 - d) Parte hartzen duten kirolariei.
19. **Kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legean tipifikatutako arau-hausteez zehapen ekonomikoa jasoko dute:**
- a) 3.000,01 eta 60.000 euro artekoa, arau-hauste astunen kasuan.
 - b) Arau-hausteez oso astunak baldin badira.
 - c) 650.000 eurotik gorakoa ere bai, kasuaren arabera.
 - d) Ezingo da ipini zehapen ekonomikorik.
20. **Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearen maiztaren 21eko Ebazpenak ezartzen duenez (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean gradu-amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia argitaratzekoak), zenbat kreditu amortizatu ahal izango dituzte ikasturte akademiko bakoitzeko Kirol Kontseilu Gorenak, Eusko Jaurlaritzak edo autonomia-erkidegoetako gobernuek goi-mailako kirolaritzat hartutako ikasleek?**
- a) Bost.
 - b) Bat.
 - c) Hiru.
 - d) Zortzi.
21. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuak jasotzen duenaren arabera, nork proposatuko ditu goi-mailako kirolaritzat hartzeko hautagaiak, ezarritako irizpideetan eskatutako emaitzak lortu ostean?**
- a) Espainiako kirol-federazioek.
 - b) Segimendurako Azpibatzerde Teknikoak.
 - c) Espainiako Olinpiar Batzordeak.
 - d) Ministroen Kontseiluak.
22. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak jasotzen duenez, zer printzipiotan inspiratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko kirolaren antolaketa instituzionala?**
- a) Zentralitate administratiboan, unibertsitate-koordinazioan eta eraginkortasun ekonomikoan.
 - b) Gastuaren kontrolean, koordinazio administratiboan eta zerbitzu defizitarioen pribatizazioan.
 - c) Administrazio publikoen deszentralizazioan, koordinazioan eta eraginkortasunean.
 - d) Hierarkian, eraginkortasunean eta efizientzian.

23. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak jasotzen duenez, nori dagokio kirol-ekipamenduaren lurralde-plan sektorialak onartzea?**
- a) Eusko Jaurlaritzari.
 - b) Kirol Kontseilu Nagusiari.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalei.
 - d) Lurralde historikoetako foru-organismoak, zeini bere lurralde-esparruan.
24. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak jasotzen duenez, nork osatzen du, besteak beste, Kirolaren Euskal Kontseilua?**
- a) Euskadiko unibertsitate publikoek.
 - b) Euskadiko unibertsitate publikoek eta pribatuek.
 - c) Udal-administrazioek.
 - d) Kirol-klubek.
25. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen ondoretarako, noren egitekoa da unibertsitate-txapelketak ordenatzea, kalifikatzea eta baimentzea?**
- a) Unibertsitate bakoitzarena.
 - b) Eusko Jaurlaritzarena.
 - c) Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearena.
 - d) Kirol-modalitate bakoitzaren federazioarena.
26. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, nork beteko ditu ordenatzeko, kalifikatzeko eta baimentzeko funtzioak unibertsitateen arteko txapelketetan?**
- a) Eusko Jaurlaritzak, Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen laguntzarekin.
 - b) Euskal federazioek, Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen laguntzarekin.
 - c) Kirol Kontseilu Gorenak, Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen laguntzarekin.
 - d) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordeak, Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen laguntzarekin.
27. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen ondoretarako, hau jotzen da eskola-kiroltzat:**
- a) Eskolaumeek praktikatzen duten kirol-jarduera antolatua, aukerako eskolatzeko-aldiaren barruan eskola-orduetatik kanpo egiten dutena.
 - b) Eskolaumeek praktikatzen duten kirol-jarduera antolatua, derrigorrezko eskolatzeko-aldiaren barruan eskola-orduetan egiten dutena.
 - c) Eskolaumeek praktikatzen duten kirol-jarduera antolatua, derrigorrezko eskolatzeko-aldiaren barruan eskola-orduetatik kanpo egiten dutena.
 - d) Eskolaumeek praktikatzen duten jardueraren antolatua, derrigorrezko eskolatzeko-aldiaren barruan eskola-orduetatik kanpo egiten dutena.

28. **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zein kontratu mota jasotzen ditu, besteak beste?**
- a) Lanak geratzeko kontratuak
 - c) Dirulaguntzak emateko kontratuak
 - c) Hornidura emateko kontratuak
 - d) Hornidura-kontratuak
29. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, noren egitekoa da Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroa arautzea eta kudeatzea?**
- a) Autonomia Erkidegoaren instituzio erkideena.
 - b) Kirol-federazioena.
 - c) Foru-aldundiena.
 - d) Erregistro orokorra.
30. **Zer legetan aurreikusten da Kirolaren Euskal Kontseilua?**
- a) 3/1979 Lege Organikoan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarenean.
 - b) Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legean.
 - c) Kirolari buruzko 10/1990 Legean.
 - d) 3/2013 Lege Organikoan, kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkakoan.
31. **Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duen 220/2000 Dekretuak ezartzen duenez, Kirolaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkuran kide hau egongo da:**
- a) Unibertsitate-kirolaren ordezkari bat, zeina Kulturako sailburuak izendatuko baitu sektore horretan proposatutako pertsonen artetik.
 - b) Kulturako foru-diputatuen ordezkari bat.
 - c) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat, Gobernu Kontseiluak proposatua.
 - d) Herri-kiroletako eskumenak bere gain dituen Eusko Jaurlaritzako zuzendaria.
32. **Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duen 220/2000 Dekretuak ezartzen duenez, nork beteko du Kirolaren Euskal Kontseiluaren, Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorren presidentetza?**
- a) Lehendakariak edo hark eskuordetutako pertsonak.
 - b) Osoko Bilkurako kideek beren artean aukeratzen duten pertsonak.
 - c) Kulturako sailburuak edo hark eskuordetutakoak.
 - d) Presidentetzako sailburuak.
33. **Goi-mailako Kirolaren 203/2010 Dekretuaren arabera, goi-mailako teknikari izateko ezinbestekoa izango da, beste hainbat eskakizunen artean:**
- a) Euskaldun baldintza politikoa izatea.
 - b) Lehen Hezkuntzako graduatu izatea.
 - c) Zirkulazioko arau-hauste larririk ez edukitzea.
 - d) Goi-mailako epaile izatea.

34. **Goi-mailako Kirolaren 203/2010 Dekretuaren arabera, zer baliatu ahal izango dute unibertsitate-ikasketak egiten ari diren goi-mailako kirolariek, teknikariek eta epaileek?**
- a) Ikasturte akademiko bakoitzean egin beharreko kredituen % 25eko murrizketa.
 - b) Ordutegi, txanda edo talde egokiena aukeratzeko modua, eskolak eta kirol-jarduera bateragarri egin ahal izateko.
 - c) Tasetatik salbuestea, herri-kiroletako modalitatean eskuratutako txapelketengatik eta dominengatik.
 - d) Erasmus programari uko egitea.
35. **Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuaren arabera, zer-nola antolatzen dira Euskadiko kirol-federazioak?**
- a) Lurralde-federazioak eta euskal federazioak.
 - b) Kirol-modalitateen arabera.
 - c) Probintziako federazioak eta federazio nazionalak.
 - d) Federazio publikoak eta federazio pribatuak.
36. **Euskadiko Kirol Federazioen 16/2016 Dekretuaren arabera, kirol-federazioek honako hauek prestatu, onetsi eta exekutatu behar dituzte dagozkien tutoretza-administrazioek ezarritako epe eta baldintzetan:**
- a) Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekintza positiboko planak.
 - b) Azpiegiturei buruzko urte anitzeko aurrekontuak.
 - c) Gizarteratze-planak.
 - d) Kirol-tutoretzarako planak.
37. **Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuak arautzen duenez, lurralde historiko batean modalitate jakin baterako lurralde-federaziorik izan ezean, nork hartuko ditu bere gain eta gauzatuko hari dagozkion funtzio guztiak?**
- a) Dagokion foru-aldundiak.
 - b) Kulturako sailburuak.
 - c) Dagokion Euskadiko federazioak.
 - d) Beste lurralde bateko dagokion federazioak.
38. **Euskadiko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko 94/1990 Dekretuak arautzen duen Euskadiko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroari dagokionez, honako hauetatik zein topa dezakegu haren hiru sekzioen artean?**
- a) Sekzio bakarra: elkarteak, klubak eta federazioak.
 - b) Sekzio berezia: goi-mailako errendimenduko kirolariak.
 - c) Bigarren sekzioa: elkarteak.
 - d) Lehen sekzioa: uretako jarduerak.

39. **Kirol Kluben eta Elkarteen 163/2010 Dekretuaren arabera, kirol-klub baten bidez ki-
detzeko eskubideak:**
- a) Federatuta egotea eskatzen du.
 - b) Esandako erakunde hori aldez aurreko baimenik gabe sortzeko askatasuna dakar.
 - c) Adierazpen-askatasuna ondorioztatzen du.
 - d) Elkartzeko eta biltzeko askatasuna biltzen du.
40. **Kirol Kluben eta Elkarteen 163/2010 Dekretuaren helburua zera da: kirol-kluben eta
-elkarteen araubidea ezartzea:**
- a) Euskadin lehiatzen direnena, alegia.
 - b) Baldin eta haien kideak Euskadin bizi badira.
 - c) Euskadin izena eman nahi badute.
 - d) Euskadin bizi badira.
41. **Kirol Kluben eta Elkarteen 163/2010 Dekretuak ezartzen duenaren arabera, nola eta
presidenteak ez dituen hartu bere gain, estatutu-aurreikuspenez, klubaren gaineko
administrazio-funtzio guztiak, Zuzendaritza Batzordea:**
- a) Kirol-klubaren gobernu-organoa izango da.
 - b) Kirol-klubaren administrazio-organoa izango da.
 - c) Kirol-klubaren ordezkari-tza-organoa izango da.
 - d) Kirol-klubaren gobernuburua izango da.
42. **Euskadin, areto-futboleko modalitatea:**
- a) Bertan behera utzi eta futbol-modalitate gisa jaso zen, Kulturako sailburuaren 2012ko
urriaren 19ko Aginduaren bidez.
 - b) Futbol-diziplinaren barruan dago 2006tik.
 - c) Inork praktikatzen ez duen modalitatea da.
 - d) Kulturako sailburuaren 2012ko urriaren 19ko Aginduaren bidez sortu zen.
43. **ECD/273/2004 AGINDUAREN arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Ki-
rolaren Espainiako Batzordea, batzorde hori:**
- a) CRUEren mendeko organo bat da.
 - b) Irabazi-asmoa duen erakunde pribatu bat da.
 - c) Organo kolegiatu bat da.
 - d) Espainiako Olinpiar Batzordearen egituran dago.
44. **ECD/273/2004 AGINDUAREN arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate
Kirolaren Espainiako Batzordea, unibertsitate bakoitzak Unibertsitate Kirolaren Es-
painiako Batzordean dituen ordezkariak/ordezkariek:**
- a) Osoko Bilkuraren kide dira.
 - b) Aholkulari teknikoak dira.
 - c) Ez dute boto-eskubiderik.
 - d) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordeko lehendakariak izendatzen ditu.

45. **Nola sortua da eta nola arautzen da Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea?**
- a) 14/1998 Legearen 58. artikulua bidez.
 - b) Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua bidez.
 - c) Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 29ko 131/2004 Dekretuaren bidez.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako kontseiluen akordio bidez.
46. **2018an, Euskadiko Unibertsitate Txapelketen zenbatgarren edizioa izan zen?**
- a) Lehenengoa.
 - b) 25. edizioa.
 - c) 18. edizioa.
 - d) 50. edizioa.
47. **Zer unibertsitateari egokitu zitzaion 2018an Euskadiko Unibertsitate Txapelketak antolatzea?**
- a) UPV/EHUri.
 - b) Mondragon Unibertsitateari.
 - c) Deustuko Unibertsitateari.
 - d) Paueko Unibertsitateari.
48. **Zeini atxikita dago UPV/EHUko Kirol Zerbitzua?**
- a) Hiru campusetako bakoitzaren errektoreordetzei.
 - b) Fakultate bakoitzeko kiroltako arduradunei.
 - c) Gerentziari.
 - d) Txandaka tokatzen zaion zuzendaritza akademikoari.
49. **UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Kirol Zerbitzuko kirol-jarduera eta jarduera fisikoaren eskaintzak honako campus-txapelketa hau hartzen du barnean:**
- a) Champions League.
 - b) Udaberriko Torneoa.
 - c) Udako Txapelketa.
 - d) Haurren Liga.
50. **UPV/EHUko Kirol Zerbitzuaren Lehiaketan Arloak UPV/EHUko ikasleen partaidetza kudeatzen du:**
- a) Unibertsitateko nazioarteko lehiaketetan.
 - b) Errugbiko liga profesionaletan.
 - c) Kadeteen txapelketetan.
 - d) Fórmula Student lasterketetan.
51. **UPV/EHUren Kirol Zerbitzuaren alor hauetatik, hauek identifika ditzakegu:**
- a) Zerbitzu-arloa.
 - b) Vending-arloa.
 - c) Kirol-instalazioen arloa.
 - d) Nazioarteko lehiaketan arloa.

52. **Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2009-ko maiatzaren 12ko EBAZPENAK ezartzen duenez, gehienez zenbat kreditu lortu ahalko dituzte honelako ikastaro, mintegi edo hitzaldietan parte hartzen duten ikasleek?: kirol baten teknikekin erlazionatuta egiten diren kirol-ikastaroetan, Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen ikastaro, mintegi edo hitzaldietan, edo Eusko Jaur-laritzan edo/eta Kirol Kontseilu Gorenean erregistratutako kirol-federazioen iritzi positiboa, haien bermea edo haiekiko ituna dutenetan.**
- a) 5 kreditu.
 - b) Bi kreditu, ikasturte akademikoko.
 - b) Lau kreditu, ikasturte akademikoko.
 - d) Urtean 60 kreditu.
53. **Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak jasotzen duenez, nola arautuko dira Europar Batasunaren funtsen kargura finantzatutako dirulaguntzak?:**
- a) Kontabilitate-arau orokorren bidez.
 - b) Funtsak jasotzen dituen autonomia-erkidegoan indarrean den araudiaren bidez.
 - c) Kasu bakoitzean aplikatzekoak diren EBko arauen bidez, baita arau haiek garatzeko eta egokitzeko arau nazionalen bidez ere.
 - d) Kasu bakoitzean aplikatzekoak diren foru-arauen bidez, baita arau haiek garatzeko eta egokitzeko arau nazionalen bidez ere.
54. **Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak dirulaguntzen kudeaketa arautzeko printzipioak jasotzen ditu. Haien artean, honako hauek:**
- a) Aurrekontu-oreka.
 - b) Dirulaguntza ematen duen administrazioak zehaztutako helburuak betetzeko efizientzia.
 - c) Elkarrekotasuna.
 - d) Ekitatea.
55. **Espainiako legerian, kirol-instalazioak zeharka kudeatzeko ageri diren aldaeren artean, honako hau ageri da:**
- a) Errentamendua.
 - b) Kudeaketa eskuzabala.
 - c) Kudeaketa publikoa.
 - d) Azpikontrata.
56. **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zein kontratu mota jasotzen ditu, besteak beste?**
- a) Lanak emateko kontratuak
 - b) Ekipamendu-kontratuak
 - c) Hornidura emateko kontratuak
 - d) Zuzeneko kontratuak

57. **Kirola praktikatzea giza eskubide gisa dago aitortuta:**
- a) Autonomia-estatutuan.
 - b) Gutun Olinpikoan.
 - c) Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean.
 - d) Federazioen lizentzietan.
58. **Kirol indibidualetan, zein da alderdi teknikoen funtsa?**
- a) Ezaugarri motorrak hobetzea.
 - b) Ezaugarri fisikoak hobetzea eta keinu teknikoak (automatismoak) eta estilo teknikoa eskuratzea; hau da, oinarritzko alderdi teknikoak subjektuen ezaugarrietara egokitzea.
 - c) Subjektuaren ezaugarriak.
 - d) Nekeari, oreka psikologikoari eta tankera horretako barne-aldaketei aurre egiteko gaitasun taktikoa, baita kanpo-aldaketei —giroa edo instalazioaren ezaugarriak, besteak beste— aurre egitekoa ere.
59. **Hainbat egilek diotenez, kirol kolektiboen taxonomiak zenbait eratako kirolak bereizten ditu:**
- a) Kooperazio-kirolak eta kooperazio-aurkakotasuneko kirolak.
 - b) Lankidetzak-kirolak eta kooperazio-kirolak.
 - c) Aurkakotasun-kirolak eta enfrentamendu-kirolak.
 - d) Kirol kolektiboak eta indibidualak.
60. **Talde-kirolak irakasteko metodoen artean, hauek ageri dira:**
- a) Eredu zabalkorra.
 - b) Eredu olinpiarra.
 - c) Eredu estrukturala.
 - d) Eredu nazionala.
61. **Kirolari buruzko EB 2007 Liburu Zuriaren arabera, gizarteratzeko ahaleginean, integrazioan eta aukera-berdintasunean kirolak duen potentziala aprobetxatzeari dagokionez:**
- a) Kirola lagungarri izan liteke baita etorkinak integratzeko ere.
 - b) Koordinazio-metodo irekiak ez du biltzen kirola erreminta eta adierazle gisa.
 - c) Toki-agintaritzek kirol-entitateen sorrera sustatu behar dute.
 - d) Eraikuntza-enpresei dagokie azpiegiturak desgaitasuna duten pertsonen beharriaz netara egokitzea.
62. **Kirolari buruzko EB 2007 Liburu Zuriak nabarmentzen duenez:**
- a) Herrialde kide bakoitzak arautuko du EBko kirol-jarduera.
 - b) Kirol-jarduerari ez zaio aplikatuko EBko legeria.
 - c) Kirol-jarduera lotuta dago EBko legeria aplikatzeari.
 - d) Herrialde kide bakoitzeko kirol-araudia bakarrik aplikatuko zaio kirol-jarduerari.

63. **Kirol-ekitaldi bat antolatzeko faseen artean, honako hauek bereiz ditzakegu: aldez aurrekoa edo hautagaitza baten aurkezpena, ekitaldiaren konfigurazioa osatzen duten ezaugarrien definizioa eta diseinua, ekitaldiaren egitura eta programazioa definitzea, ekitaldia edo proiektua gauzatzea eta ekitaldia bera egitea. Eta, azkenik:**
- a) Ebaluazioa.
 - b) Sari-banaketa.
 - c) Babesletza.
 - d) Podiuma.
64. **Kirol-ekitaldien antolaketan identifikatzen ditugun alorren artean, hauek nabarmentzen dira:**
- a) Atsedeen-alorra.
 - b) Triangelu-alorra.
 - c) Kudeaketa- eta kongestio-alorra.
 - d) Marketin-alorra.
65. **Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legeak mugak ezartzen dizkio ekintza boluntarioari. Horien artean:**
- a) Aurrekontu-muga.
 - b) Boluntariotza-jarduerak egitea ezin liteke izan arrazoi lan-kontratua eten izana justifikatzeko.
 - c) Ekintza boluntarioak ezin du gainditu lurralde nazionala.
 - d) Administrazio publikoen borondatea.
66. **Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legearen arabera, honako hauek sartuko dira besteak beste boluntariotzaren jarduera-esparruan:**
- a) Boluntariotza profesionala eta erdiprofesionala.
 - b) Gizarte-, kultura- eta kirol-boluntariotza.
 - c) Esparru olinpiarra eta paralinpikoa, Espainia barruan zein kanpoan gauzatzen dela ere.
 - d) Estatuko esparrua edo autonomia-erkidegoz gaindikoa, Espainia barruan zein kanpoan gauzatzen dela ere.
67. **Zer ekitaldirekin inauguratu ziren telebistako kirol-emanaldiak?**
- a) Munduko futbol-txapelketekin.
 - b) Munduko automobilismo-txapelketarekin.
 - c) 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoekin.
 - d) Frantziako Tourrarekin.
68. **Kirolaren Europako Gutunak, kirol-manifestazioetan –eta, bereziki, futbol-partidetan– ikusleen indarkeriari eta jende-gainezkatzei buruzko Europako Hitzarmenean ageri diren printzipio etikoak eta gidalerro politikoak garatzeaz gain, hauek ere lantzen ditu:**
- a) Gutun Olinpikoa.
 - b) Estatu kideetako konstituzioak.
 - c) Konstituzioa.
 - d) Dopinaren aurkako Hitzarmena.

69. **Gutun Olinpikoak ezartzen duenez, hauek dira mugimendu olinpiarra osatzen duten hiru zati nagusiak:**
- a) Nazioarteko Olinpiar Batzordea (NOB), nazioarteko kirol-federazioak (NF) eta olinpiar batzorde nazionalak (OBN).
 - b) Nazioarteko Olinpiar Batzordea (NOB), kirol-federazio nazionalak (FN) eta olinpiar batzorde nazionalak (OBN).
 - c) Nazioarteko Olinpiar Batzordea (NOB), nazioarteko kirol-federazioak (NF) eta nazioarteko olinpiar batzordeak (NZOB).
 - d) Nazioarteko Olinpiar Batzordea (NOB) eta nazioarteko kirol-federazioak (NF).
70. **Zer helburu dauka kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiak?**
- a) Kirol-instalazioetako arduradunei ezar dakizkiekeen zehapenak arautzea.
 - b) Kirol-instalazioen proiektuan eta eraikuntzan kontuan hartu beharreko erregelamendu-, plangintza- eta diseinu-baldintzak zehaztea.
 - c) Egiaztatzea ea instalazioek betetzen ote dituzten nazioarteko kirol-erakundeen kalitate-estandarrik.
 - d) Unibertsitate-kirolaren nazioarteko erreferentzia izatea.
71. **Zer urtetan ipini zen martxan Kirol Egokituaren Euskal Federazioa?**
- a) 1999an.
 - b) 2018an.
 - c) 2004an.
 - d) 1945ean.
72. **Kirol Egokituaren Euskal Federazioa, besteak beste, honako lege eta arau hauek arautzen dute:**
- a) Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak eta Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuak.
 - b) Kirolari buruzko 10/1990 Legea bakarrik da aplikatzekoa.
 - c) Araudi olinpikoa, lehiaketa nazionalai dagokienez.
 - d) Ez zaio aplikatzen Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea.
73. **Hauetatik, zer kirol-modalitateren eskumena du Kirol Egokituaren Euskal Federazioak?**
- a) Euskal pilotarena.
 - b) Herri-kirolena.
 - c) Izotz gaineko hockeyarena.
 - d) Esgrimarena.

74. **Zer aintzatesten dute Kirol Egokituaren Euskal Federazioak emandako GaituzSport sariek?**
- a) Pertsonak eta erakundeak egiten duten lan eredugarria, jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez gizarte inklusiboagoa, bidezkoagoa eta berdinzalegoa eraikitzeko.
 - b) Erakunde publikoek finantziarioa kirol egokitura bideratzeko egiten duten lana.
 - c) Kirolari paralinpikoak.
 - d) Entitate pribatuak finantziarioa kirol egokitura bideratzeko egiten duten lana.
75. **Nola deitzen da administrazioak zuzenean bere langileekin egiten duen kudeaketa, zerbitzuak bere aurrekontuarekin finantzatuta, eta aldi berean erabiltzaileen kuantak zuzenean kobratuta?**
- a) Kudeaketa zuzena.
 - b) Zeharkako kudeaketa.
 - c) Kudeaketa mistoa.
 - d) Ituna.
76. **Gallardo Guerrero eta Jiménez Gómez egileek La Gestión de los Servicios Deportivos Municipales (2004) liburuan zehazten dutenez, zein da kirol-kudeaketako sistemarik onena?**
- a) Kudeaketa zuzena.
 - b) Zeharkako kudeaketa.
 - c) Kontratu mistoak.
 - d) Ez dago erantzun bakarra, egoeraren arabera baizik.
77. **Zer kudeaketa-eredu har ditzake kirol-erakunde batek?**
- a) Kudeaketa zuzena.
 - b) Zeharkako kudeaketa.
 - c) Enpresa mistoaren kudeaketa.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
78. **Udalaren eskumena al da kirola eta kirol-instalazioak sustatzea?**
- a) Bai. Halaxe zehazten du 27/2013 Legeak, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoak.
 - b) Ez. Kirol-instalazioak autonomia-erkidegoaren eskumen izango dira, hala ezartzen baitu 27/2013 Legeak, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoak.
 - c) Ez. Kirol-instalazioak diputazioen eskumen izango dira, hala ezartzen baitu 27/2013 Legeak, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoak.
 - d) 20.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan bakarrik.
79. **Zeren baliokidea da udaleko kirol-zerbitzuen zentralizazioan oinarritutako kirol-politika?**
- a) Zeharkako kudeaketa.
 - b) Ituna.
 - c) Kudeaketa zuzena.
 - d) Kudeaketa interesatua.



80. **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zein kontratu mota jasotzen ditu, besteak beste?**
- a) Lanak geratzeko kontratuak
 - c) Zerbitzuak emateko kontratuak
 - c) Hornidura emateko kontratuak
 - d) Zeharkako kontratuak
81. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, zer-nola eratuko dira enpresa mistoak?**
- a) Hitzarmen bidez.
 - b) Kontratu pribatuz.
 - c) Eskritura publikoz.
 - d) Eskritura pribatuz.
82. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, enpresa mistoetan:**
- a) Batera ordainduko dira toki-korporazioen kapitalak eta partikularrenak, edo elkarren artekoak, udalaren edo probintziaren esku uzteko modukoak diren zerbitzuak eskaintzeko.
 - b) Ez dira batera ordainduko toki-korporazioen kapitalak eta partikularrenak, edo elkarren artekoak, udalaren edo probintziaren esku uzteko modukoak diren zerbitzuak eskaintzeko.
 - c) Batera ordainduko dira toki-korporazioen kapitalak eta partikularrenak, edo elkarren artekoak, lokalizatzeko modukoak diren zerbitzuak eskaintzeko.
 - d) Sozietate mugatuen kapitalak ordainduko dira, udalaren edo probintziaren esku uzteko modukoak diren zerbitzuak eskaintzeko.
83. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, enpresa mistoek izaera hauetako bat hartzen dute:**
- a) Merkataritza-sozietate komanditarioa, anonimoa edo erantzukizun mugatukoa.
 - b) Merkataritza-sozietate komanditarioa edo anonimoa.
 - c) Merkataritza-sozietate komanditarioa edo erantzukizun mugatukoa.
 - d) Sozietate anonimoa edo erantzukizun mugatukoa.
84. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, zerbitzuak emateko instalazioen errentamendu-kontratuaren iraupena ezingo da izan:**
- a) 5 urte baino luzeagoa.
 - b) 10 urte baino luzeagoa.
 - c) 15 urte baino luzeagoa.
 - d) 20 urte baino luzeagoa.

85. **Kirol-patronatuak:**

- a) Kudeaketa zuzeneko zat jotzen dira, administrazio-organo berezirik gabeak.
- b) Zeharkako kudeaketakotzat jotzen dira.
- c) Kudeaketa mistokotzat jotzen dira.
- d) Erakunde autonomo batek zuzenean kudeatutzat jotzen dira.

86. **Nori dagokio kirol-patronatu baten aurrekontua?**

- a) Kirol Kontseilu Nagusiari.
- b) Kirol-patronatuari berari.
- c) Unibertsitateari.
- d) Inplikaturako erakunde guztiei, neurri berean.

87. **Kirol-zerbitzuak udalez gairdiko erakundeek kudeatzen dituztenean, emakiden, itunen edo errentamenduen bidez, zer eratako kudeaketa izango da?**

- a) Kudeaketa mistoa.
- b) Kudeaketa interesatua.
- c) Kudeaketa partziala.
- d) Zeharkako kudeaketa.

88. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, zer-nola adostuko da hitzartutako zerbitzuen ordainketa?**

- a) Oroharreko zenbateko aldakor baten bidez.
- b) Aldizkako prestazio ekonomiko baten bidez.
- c) Oroharreko zenbateko aldagarri baten bidez.
- d) Oroharreko zenbateko aldaezin baten bidez.

89. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, hitzartutako zerbitzuen ordainketa:**

- a) Banan banakoa izango da, eta zerbitzu osoa edo prezio finkoko unitateak ordainduko dira.
- b) Denak baterakoa izango da, eta prezio aldagarri osoa edo prezio finkoko unitateak ordainduko dira.
- c) Denak baterakoa izango da, eta zerbitzu osoa edo prezio aldakorreko unitateak ordainduko dira.
- d) Denak baterakoa izango da, eta zerbitzu osoa edo prezio finkoko unitateak ordainduko dira.

90. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, toki-korporazioek beren eskumeneko zerbitzuak eskaini ahalko dituzte itun bidez:**

- a) Erakunde publiko edo pribatuekin, eta partikularrekin.
- b) Erakunde pribatuekin eta partikularrekin.
- c) Erakunde publikoekin eta partikularrekin.
- d) Erakunde publikoekin edo pribatuekin.

91. **«Kirol-sistemaren beraren eraldaketak zehaztu du kudeaketako kirol-praktiken bilakaera; hala, sistema itxia, homogenea, selektiboa, hierarkikoa eta baztertzaila izatetik, bestelako sistema irekia, heterogeneoa, integratzailea eta demokratikoa izatera igaro gara.» Nor da esaldiaren egilea?**
- a) Heinemann.
 - b) Garcia Tascón.
 - c) García Ferrando
 - d) Martínez del Castillo.
92. **Toki-arubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, zerbitzu publikoen zer eratako kudeaketan bilduko dira tokiko merkataritza-sozietateak, titulartasun publikoko kapitala dutenean?**
- a) Kudeaketa zuzena.
 - b) Zeharkako kudeaketa.
 - c) Kudeaketa zuzena eta zeharkako kudeaketa.
 - d) Kudeaketa mistoa.
93. **Emakidak kirol-kudeaketaren esparruan eskaintzen dituen aukeren barruan, honako hau ageri da:**
- a) Instalazioaren kontrol- eta mantentze-lanak.
 - b) Uretako sorospena.
 - c) Instalazioaren ustiaketa.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
94. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, toki-korporazioek beren eskumeneko zerbitzuak eskaini ahalko dituzte itun bidez:**
- a) Eta, horren ondorioz, ez da beste pertsona juridikorik sortuko.
 - b) Eta, horren ondorioz, beste pertsona juridiko bat sortuko da.
 - c) Beste pertsona juridiko bat sortzen den ala ez gorabehera.
 - d) Eta, horren ondorioz, beste pertsona fisiko bat sortuko da.
95. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, emakidaren ordenamendu juridikoaren oinarrizko printzipio izango da emakidako zerbitzuak honako kalifikazio hau izatea:**
- a) Toki-korporazioaren zerbitzu publikoa, korporazio horren eskumenari esleitua, edo zerbitzu pribatua, erakunde emakidadunaren mendekoa.
 - b) Zerbitzu erdipublikoa.
 - c) Toki-korporazioaren zerbitzu publikoa, korporazio horren eskumenari esleitua.
 - d) Zerbitzu pribatua.

96. **Zerbitzu publiko bat kontratu bidez erakunde pribatu bati transferitzean, zer eratakoa izango da erakunde horrek eskaintzen duen zerbitzua?**
- a) Zerbitzu pribatua.
 - b) Zerbitzu publikoa.
 - c) Zerbitzu mistoa.
 - d) Zerbitzu partekatua.
97. **Emakida guztietan aurreikusi beharreko gutxieneko klausulen artean, hau ageri da:**
- a) Emakidaren xedea.
 - b) Emakidaren ezaugarriak.
 - c) Emakidaren epea.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
98. **Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, nola sailkatzzen da zuzeneko kudeaketa?**
- a) Toki-erakundeak berak egindako eta toki-erakunde autonomo batek egindako kudeaketa.
 - b) Toki-erakundeak berak, toki-erakunde autonomo batek eta merkataritzako toki-erakunde batek egindako kudeaketa.
 - c) Toki-erakundeak berak, toki-erakunde autonomo batek, tokiko enpresa-erakunde publiko batek eta merkataritzako toki-erakunde batek egindako kudeaketa.
 - d) Patronatuek eta kirol-ordezkaritzek egindako kudeaketa.
99. **Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, korporazio bidezko kudeaketa-eredua:**
- a) Administrazio-organo berezirik gabea izango da.
 - b) Administrazio-organo bereziduna izango da.
 - c) Administrazio-organo berezirik gabea edo administrazio-organo bereziduna izango da.
 - d) Toki-organismo autonomo baten bidez eskainia izango da.
100. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, zer mailatako elkarte-ereduak dira Espainiako kirol-federazioak?**
- a) Lehen mailakoak.
 - b) Bigarren mailakoak.
 - c) Hirugarren mailakoak.
 - d) Laugarren mailakoak.
101. **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zein kontratu mota jasotzen ditu, besteak beste?**
- a) Zerbitzuak emateko kontratuak
 - b) Instalazioak emateko kontratuak
 - c) Zerbitzu-kontratuak
 - d) Zeharkako kontratuak

102. **Zenbatetik behin izaten dira Espainiako unibertsitate-txapelketak?**
- a) Urtero.
 - b) Bi urtetik behin.
 - c) Hiru urtetik behin.
 - d) Lau urtetik behin.
103. **Unibertsitate Kirolaren Nazioarteko Federazioak antolatzen dituen lehiaketen artean, honako hauek ageri dira:**
- a) Universitas.
 - b) Unibertsitate Liga.
 - c) Unibertsidadak.
 - d) Unibertsitateko olinpiar jokoak.
104. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatze-ari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren 18. artikulua arabera, zer kontrol egin litezke?**
- a) Dopinaren kontrolak eta substantzia eta metodo debekatuen kontrolak.
 - b) Dopinaren kontrolak eta osasun-kontrolak.
 - c) Dopinaren kontrolak eta osasuna babesteko kontrolak eta jarduerak.
 - d) Dopinaren kontrolak eta ikuskapen medikoak.
105. **Federazio bateko presidentea lau urtetik behin hautatzen da, ekitaldi honekin bat etorritik:**
- a) Neguko olinpiar jokoekin batera.
 - b) Munduko atletismo-txapelketa biz bat.
 - c) Munduko txapelketarekin batera.
 - b) Udako olinpiar jokoekin batera.
106. **Nork aitortua da Batzorde Olinpiko Nazionala?**
- a) Estatu Kontseiluak.
 - b) Nazioarteko Olinpiar Batzordeak.
 - c) Estatu-idazkariak.
 - d) Parlamentuak.
107. **Non jasotzen dira Batzorde Olinpiko Nazional baten antolaketarako eta barne-egiturarako gutxienezko eskakizunak?**
- a) Europako Gutunean.
 - b) Gutun Olinpikoan.
 - c) Parlamentuan.
 - d) Unescon.

108. **Espainiako Olinpiar Batzordearen Gobernu-Organoen artean daude:**
- a) Batzorde Federala.
 - b) Batzorde Orokorra.
 - c) Federazio ez-olinpikoen Batzordea.
 - d) Batzar Iraunkorra.
109. **Nork onartu behar ditu Batzorde Olinpiko Nazional batek bere egindako bandera, enblema eta himnoa?**
- a) Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren legegintza-batzordeak.
 - b) Europako Parlamentuak.
 - c) Unescok.
 - d) Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren batzorde exekutiboak.
110. **Nori egiten zaio olinpiar jokoetan parte hartzeko gonbita?**
- a) Estatuei.
 - b) Federazioei.
 - c) Olinpiar Batzorde Nazionalari.
 - d) Selekzioei.
111. **Kirol Kontseilu Gorena erakunde autonomo administratiboa da. Zeini atxikia?**
- a) Kultura eta Kirol Ministerioari.
 - b) Presidentetza Ministerioari.
 - c) Europako Gutunari.
 - d) Konstituzioari.
112. **Zer eratako kirol-klubak ez ditu aurreikusten Kirolari buruzko 10/1990 Legeak?**
- a) Kirol-klub elementalak.
 - b) Oinarrizko kirol-klubak.
 - c) Zaletuen kirol-klubak.
 - d) Kirol-sozietate anonimoak.
113. **Espainiako Olinpiar Batzordeko kideak dira, besteak beste:**
- a) Ohorezkoak, federaziokoak eta merezimenduzkoak.
 - b) Federaziokoak eta boluntarioak.
 - c) Federaziokoak, legalistak eta finantzarioak.
 - d) Kirolariak, legalistak eta ohorezkoak.
114. **Espainian nazioarteko lehiaketa bat antolatzeko, noren baimena beharko da?**
- a) Lehiaketaren modalitateko nazioarteko federazioarena.
 - b) Federazio nazionalarena.
 - c) Espainiako Olinpiar Batzordearena.
 - d) Kirol Kontseilu Gorena.

115. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, klub-elkarteen helburu eksklusiboa izan-go da kirol-jarduerak garatzea. Zer modalitate eta jardueratakoak?**
- a) Nazioarteko federazioek erregistratu gabeak.
 - b) Espainiako federazio nazionalak aurreikusi gabeak.
 - c) Kirol-modalitate gisa erregistratu gabeak.
 - d) Espainiako kirol-federazioek aurreikusi gabeak.
116. **Zein da Kirolari buruzko 10/1990 Legearen xedea?**
- a) Kiroleko manifestazio sektorialak egitea.
 - b) Gutxiengoan kirolak sustatzea.
 - c) Ikastetxeak antolatzea.
 - d) Kirolaren ordenamendua.
117. **Kirolari buruzko 10/1990 Legean, kirol-fenomenoak ematen dira, hainbat alderdi argiro berezita. Horien artean ageri dira:**
- a) Elkartze-egituren bidez antolatutako kirol-jarduera.
 - b) Herritarraren kirol-jarduera, bat-bateko jarduera eskuzabal eta ludiko gisa hartzen dena, heziketa- eta osasun-helburuak dituena.
 - c) Kirol-ikuskizuna, masen fenomeno, gero eta profesionalizatuagoa eta merkantilizatuagoa.
 - d) Arte- eta kirol-jarduera.
118. **Tokiko zerbitzu publiko batek Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean bildutako kontratu misto bat erabiltzen du. Zer izango da?**
- a) Hainbat kudeaketa motaren artean bitartekaritza egitea.
 - b) Kudeaketa zuzena.
 - c) Zeharkako kudeaketa.
 - d) Kudeaketa mistoa.
119. **Olinpiar Batzordearen biziarteko ohorezko kide dira, besteak beste, honako hauek:**
- a) Nazioarteko Olinpiar Batzordeko kide diren pertsonak, atzerriko herritartasuna dutenak.
 - b) Espainiako Olinpiar Batzordean presidente edo idazkari nagusi karguak betetzen ari direnak.
 - c) Nazioarteko Olinpiar Batzordeko kide diren edo izan diren pertsonak, atzerriko herritartasuna dutenak.
 - d) Espainiako Olinpiar Batzordean presidente edo idazkari nagusi karguak bete dituztenak edo betetzen ari direnak.
120. **Zer helbururekin sortua da kirolaren batzar orokorra?**
- a) Arauak proposatzea kirolaren esparruan.
 - b) Nazioarteko Olinpiar Batzordearekin lankidetzan jardutea.
 - c) Aholkularitza eskaintzea Kirol Kontseilu Gorenaren lehendakariari.
 - d) Bat ere ez da zuzena.

121. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen printzipio orokorren artean, zer eratako aitortze-
na ematen zaio kirola praktikatzeari?**
- a) Askea eta borondatezkoa.
 - b) Aukerakoa eta beharrezkoa.
 - c) Hezkuntzakoa eta prestakuntzakoa.
 - d) Osasungarria eta higienikoa.
122. **Espainiako kirol-federazioak dagozkien nazioarteko kirol-federazioetan inskriba-
tzeko eskumena zeinek du?**
- a) Nazioarteko Olinpiar Batzordeak.
 - b) Olinpiar Batzorde Nazionalak.
 - c) Espainiako Olinpiar Batzordeak.
 - d) Kirol Kontseilu Gorenak.
123. **Kirolari buruzko 10/1990 legearen ondoretarako, zeini dagokio kirol-modalitate
bat aitortzea?**
- a) Espainiako Olinpiar Batzordea.
 - b) Nazioarteko Olinpiar Batzordeari.
 - c) Kirol Kontseilu Gorenaren Zuzendaritza Batzordeari.
 - d) Kirol-modalitate horretako klub-elkarteei.
124. **Kirolari buruzko 10/1990 legearen ondoretarako, honela sailkatzen dira kirol-lehia-
ketak:**
- a) Lehiaketa ofizialak edo ez-ofizialak, profesionalak edo ez-profesionalak.
 - b) Lehiaketa ofizialak eta pribatuak, profesionalak edo amateurak.
 - c) Lehiaketa ofizialak eta nazionalak.
 - d) Lehiaketa nazionalak eta nazioartekoak.
125. **Navarrok bide eta metabolismo nagusiaren araberako erresistentziari buruz egin-
dako sailkapenaren arabera (1994), zer denbora ez da zuzena?**
- a) Potentzia anaerobiko alaktikoa: 0-10".
 - b) Gaitasun anaerobiko alaktikoa: 0-20".
 - c) Potentzia anaerobiko laktikoa: 0-45".
 - d) Gaitasun anaerobiko laktikoa: 0-60".
126. **Zer neurtzeko baliatzen da *course navette* testa?**
- a) Arintasuna.
 - b) Malgutasuna.
 - c) Erresistentzia.
 - d) Koordinazioa.

127. **Delgadoren arabera (1990), hauetatik zein ez da ezaugarri fisikoa?**
- a) Malgutasuna.
 - b) Aurre hartzea.
 - c) Indarra.
 - d) Erresistentzia.
128. **Álvarez del villarrek bereizten dituen erresistentzia moten artean (1983), zein ez da ageri?**
- a) Laktikoa.
 - b) Dinamikoa.
 - c) Aerobikoa.
 - d) Anaerobikoa.
129. **Zer da Mugimendu Olinpiarra?**
- a) Nazioarteko olinpiar federazioen agintaritza gorenaren pean egindako ekintza hitzartua, inprobisatua, unibertsala eta iraunkorra, olinpismoaren balioek inspiratutako pertsona eta erakunde guztien gainekoa.
 - b) Nazioarteko Olinpiar Batzordearen agintaritza gorenaren pean egindako ekintza hitzartua, antolatua eta unibertsala, olinpismoaren balioek inspiratutako pertsona eta erakunde guztien gainekoa.
 - c) Nazioarteko olinpiar federazioen agintaritza gorenaren pean egindako ekintza hitzartua, antolatua, unibertsala eta iraunkorra, olinpismoaren balioek inspiratutako pertsona eta erakunde guztien gainekoa.
 - d) Nazioarteko Olinpiar Batzordearen agintaritza gorenaren pean egindako ekintza hitzartua, antolatua, unibertsala eta iraunkorra, olinpismoaren balioek inspiratutako pertsona eta erakunde guztien gainekoa.
130. **Zer eratako teknika mistoa da errazte neuromuskular propiozeptiboa?**
- a) Lan muskularra.
 - b) Luzaketa.
 - c) Estimuluzkoa.
 - d) Hainbat funtziotakoa.
131. **Álvarez del villarren arabera (1983), indar mota hauetatik zein ez da existitzen?**
- a) Maximoa.
 - b) Leherkorra.
 - c) Erresistentzia.
 - d) Aktiboa.
132. **Metodo isometrikoa borondatezko jarduera muskular bat egitea da. zeren kontra?**
- a) Erresistentzia mugikorra.
 - b) Erresistentzia angeluarra.
 - c) Erresistentzia mugiezina.
 - d) Erresistentzia finko-mugikorra.

133. **Zer gihar lantzen dira batez ere banku-pressaren bidez?**
- a) Saihets aldekoak.
 - b) Dortsalak.
 - c) Bularraldekoak.
 - d) Abdominalak.
134. **Álvarez Del Villarren arabera (1983), indar-lanaren ondorioetako bat gihar-mintzak indartzea da:**
- a) epimisia.
 - b) Sarkolema.
 - c) Perimisia.
 - d) Zuzenak dira denak.
135. **Zer neurtzen du cooperren testak?**
- a) Abiadura.
 - b) Indarra.
 - c) Malgutasuna.
 - d) Erresistentzia.
136. **Álvarez Del Villarren Arabera (1983), zein ez da hartzen abiadura motatzat?**
- a) Erreakzio-abiadura.
 - b) Keinu bidezkoa.
 - c) Desplazamendua.
 - d) Aktiboa.
137. **Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, zer araubide juridikoren mende egon ahalko dira kontratu horiek?**
- a) Zuzenbide administratiboaren edo zuzenbide pribatuaren mende.
 - b) Zuzenbide administratiboaren mende.
 - c) Zuzenbide pribatuaren mende.
 - d) Zuzenbide publikoaren mende.
138. **Álvarez Del Villarren arabera (1983), zer dugu hizpide laktikoa eta alaktikoa aipatzean?**
- a) Erresistentzia.
 - b) Abiadura.
 - c) Indarra.
 - d) Malgutasuna.

139. **F. Paris Roche-Ren arabera (2015), urteko plan ekintzailea honi lotuta dago:**
- a) Proiektuaren izenburuari.
 - b) Erakundearen aurrekontuari.
 - c) Langileen lan-harremanei.
 - d) bazkide kopuruari.
140. **Zer neur dezakegu Barrowren Testaren bidez?**
- a) Erresistentzia aerobikoa.
 - b) Gehienezko indarra.
 - c) Arintasuna.
 - d) Birika-edukiera.
141. **Álvarez Del Villarren arabera (1983), gaitasun fisikoak hauek dira:**
- a) Abiadura.
 - b) Indarra.
 - c) Malgutasuna.
 - d) Denak dira zuzenak.
142. **Álvarez Del Villarren (1983) formulazioak oinarri hartuta, hauetatik zein ez da erreazio-abiaduraren fase bat?**
- a) Pertzepzioa.
 - b) Exekuzioa.
 - c) Analisia eta erantzuna.
 - d) Intentzioa.
143. **F. Paris Roche-ren arabera (2015), urteko plan ekintzailea honi lotuta dago:**
- a) Kudeaketari.
 - b) Langileetan egindako inbertsioari.
 - c) Proiektuaren izenburuari.
 - d) Langileen lan-harremanei.
144. **Zer test baliatuko dugu malgutasuna neurtzeko?**
- a) Course Navetteren testa.
 - b) Cooperren testa.
 - c) Sit and reach testa.
 - d) Zuzenak dira denak.
145. **F. Paris Roche-ren arabera (2015), urteko plan ekintzailea honi lotuta dago:**
- a) Proiektuaren izenburuari.
 - b) Bazkide kopuruari.
 - c) Makrozikloari.
 - d) Langileen errendimenduari.

146. **Zein da bizepsaren muskulu antagonikoa?**
- a) Trizepsa.
 - b) Bizeps femorala.
 - c) Koadrizepsa.
 - d) Trapezioa.
147. **J.A. Mestreren arabera (2008), hauek dira plangintzako zehaztasun-mailak, ekintza-ren konplexutasun handienetik txikienera:**
- a) Plana – Programa – Proiektua
 - b) Plana – Proiektua
 - c) Proiektua – Programa – Plana
 - d) Programa – Plana – Proiektua
148. **Álvarez Del Villarren arabera (1983), desplazamendu-abiaduran eragiten duten faktoreen artean hau ageri da:**
- a) Zangokaden luzera.
 - b) Mugimenduaren maiztasuna.
 - c) Erlaxazio eta koordinazio neuromuskularra.
 - d) Zuzenak dira denak.
149. **Cooperren testean, zenbat denboran egin behar da ahalik eta distantzia luzeena?**
- a) 5 minutuan.
 - b) 10 minutuan.
 - c) 12 minutuan.
 - d) 30 minutuan.
150. **J. Paredes Ortizen arabera (2002), kirola terminoa:**
- a) Ez da fenomeno kultural hutsa.
 - b) Fenomeno sozioekonomiko bat da.
 - c) Fenomeno soziokultural eta hezkuntzazko baten erakusle da.
 - d) Jolas- eta hezkuntza-fenomeno baten erakusle da.
151. **Piernaviejak (1969) baieztatzen duenez, zein izan zen kirola hitzaren jatorria, beste hizkuntza erromantzeetara igaro aurretik?**
- a) Portugesa.
 - b) Gaztelania.
 - c) Ingelesa.
 - d) Proventzala.

152. **A. Alcobaren arabera (2001), badira faraoien garaiko egipton egindako kirol-praktiken irudikapen batzuk. Joko hauek ageri dira sarrien:**
- a) Hockeya.
 - b) Zezen-jokoak.
 - c) Pilota.
 - d) Zuzenak dira denak.
153. **P.Parlebasen arabera (1981), zer-nola definitzen da kirola?**
- a) Egoera motor arautua eta ludikoa.
 - b) Egoera motor arautua eta instituzionalizatu gabea.
 - c) Egoera motor ez-arautua eta instituzionalizatu gabea.
 - d) Lehiaketa-egoera motor arautua eta instituzionalizatua.
154. **Hernández Morenok (1994) honako alderdi hau gehitzen dio parlebásek kirolaz egindako definizioari (alegia, lehiaketa-egoera motor arautua eta instituzionalizatua):**
- a) Partizipatiboa.
 - b) Ekonomikoa.
 - c) Ludikoa.
 - d) Jolaserakoa.
155. **J.M. Cagigalek (1979) orientazio hauetan bildu zuen kirola terminoa:**
- a) Ikuskizun-kirola eta praktika-kirola edo guztientzako kirola.
 - b) Jolas-kirola eta lehia-kirola.
 - c) Ikuskizun-kirola eta jolas-kirola.
 - d) Ikuskizun-kirola eta guztientzako kirola.
156. **L.Matveev egileak, beharrezko ahalegin fisikoa oinarri hartuta, kirolen sailkapen hau egiten du:**
- a) Ziklikoak - Erresistentziakoak - Taldekoak - Borrokakoak - Konplexuak eta hainbat proba.
 - b) Aziklikoak - Ziklikoak - Erresistentziakoak - Borrokakoak - Konplexuak eta hainbat proba.
 - c) Aziklikoak - Erresistentzia aerobikokoak - Erresistentzia anaerobikokoak - Taldekoak - Borrokakoak.
 - d) Ziklikoak - Erresistentziakoak - Taldekoak - Sinpleak - Konplexuak eta hainbat proba.
157. **M. Piernaviejaren arabera (1969), kirol terminoa mio ciden eresian (1140) ageri da lehendabizikoz, esanahi honekin:**
- a) Kultismo bat.
 - b) Ariketa fisikoa.
 - c) Dibertsioa.
 - d) Ahalegina.

158. **Magaz-González, A.M. eta Fanjul-Suárez, J.L. autoreen arabera (2012), arlo hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Marketina
 - b) Harreman publikoak
 - c) Protokoloa
 - d) Instalazioak
159. **P.Parlebasek egindako kirolaren sailkapenak, ekintza motorean oinarrituak, hiru ekintza eskatzen ditu. haietatik zein ez dago bilduta?**
- a) Kidea.
 - b) Arerioa.
 - c) Arauak.
 - d) Ziurgabetasuna.
160. **Matveeve-k egindako kategorien artean (1975), entrenamenduaren periodizazioa abiapuntuko irizpide gisa hartzen duen sailkapenean, zer talderen barruan biltzen da kirol-gimnasia?**
- a) Kirol gimnastiko eta deportiboetan.
 - b) Kirol aziklikoetan.
 - c) Kirol indibidual gimnastikoetan.
 - d) Kirol konplexu eta proba anizkoitzetan.
161. **J.M. Cagigalen aburuz (1979), ikuskizun-kirolak:**
- a) Kirol-emaitza eztabaida ezinak biltzen ditu.
 - b) Eskakizun handiak izango lituzke lehiaketan.
 - c) Kirolariek amateur izateari uzten diote.
 - d) Denak dira zuzenak.
162. **Nola definitu zituen P. Parlebasek gizakiek beste batzuekin batera jardunez gartzten diren egoerak?**
- a) Egoera psikomotorrak.
 - b) Egoera soziomotorrak.
 - c) Egoera motorrak.
 - d) Egoera motorrak.
163. **Parlebasek (1988) ekintza motorraren irizpideen araberako sailkapen bat aurkezten du. zeinen arteko interakzio-sistema globalizat hartzen du ekintza motorra?**
- a) Kide jardulea, ingurune fisikoa eta balizko gainerakoa(k).
 - b) Subjektu jardulea, ingurune fisikoa eta balizko gainerako parte-hartzailea(k).
 - c) Subjektu jardulea, kidea eta balizko gainerako parte-hartzailea(k).
 - d) Kidea, ingurunea eta subjektu jardulea(k).

164. **Ekintza motorrean oinarritutako kirolari buruzko parlebaseren sailkapenak 8 kategoria bereizten ditu. Haietatik:**
- a) Lehendabiziko lau psikomotorrak dira, eta azken lauak, berriz, soziomotorrak.
 - b) Lehendabiziko hiru psikomotorrak dira, eta azken bostak, berriz, soziomotorrak.
 - c) Lehendabiziko biak psikomotorrak dira, eta azken seiak, berriz, soziomotorrak.
 - d) Lehendabiziko bost psikomotorrak dira, eta azken hirurak, berriz, soziomotorrak.
165. **Blázquezen arabera (1999), jolas-kirolaren helburua da gizakia entretenitzea eta atsegin hartzea praktika ireki batean, non ez baitago ezer aurrez finkatuta eta:**
- a) Emaitzak axola baitu gutxien.
 - b) Errendimenduak axola baitu gutxien.
 - c) Intentsitateak axola baitu gehien.
 - d) Alderdi teknikoa balioesten baita gehien.
166. **Blázquez eta Hernándezen (1984) sailkapenaren arabera, zer lau kirol-talde handiren barruan bilduko genuke judoa?**
- a) Borroka-kiroletan.
 - b) Kooperazio-kiroletan.
 - c) Aurkakotasun-kiroletan.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
167. **Durand egilearen sailkapenak (1968), orientazio erabat pedagogikoarekin, lau talde-tan biltzen ditu kirolak. Ez dira ageri haien artean:**
- a) Kirol gimnastikoak.
 - b) Borroka-kirolak.
 - c) Naturan egindako kirolak.
 - d) Kirol indibidualak.
168. **Sánchez Bañuelosen arabera (2000), zer printzipiok arautzen du lehia-kirola, kolektibo minoritario bat osatzen duena eta sakrifizio handia eskatzen duena?**
- a) Parte-hartzeak.
 - b) Selektibitateak.
 - c) Sozializazioak.
 - d) Teknifikazioak.
169. **Parlebaseren egindako kirolen sailkapena oinarri gisa hartuta, Blázquez eta Hernándezek (1984) beste sailkapen bat proposatu zuten, bi elementu berritzaile gaineratuta:**
- a) Batak espazioa erabiltzeko moduari egiten dio erreferentzia, eta besteak, berriz, jokalarien partaidetzari.
 - b) Batak kirola egiteko instalazioari egiten dio erreferentzia, eta besteak, berriz, aurkariei.
 - c) Batak espazioaren konfigurazioari egiten dio erreferentzia, eta besteak, berriz, aurkariei.
 - d) Batak espazioa erabiltzeko moduari egiten dio erreferentzia, eta besteak, berriz, aurkarien partaidetzari.

170. **Blázquez eta Hernándezen arabera (1984), kooperazio-aurkakotasun kiroletan, jokari talde batek antzeko ezaugarri fisikoak dituen beste talde baten aurka egiten du. Hauetatik zein ez da era horretakoa?**
- a) Boleibola.
 - b) Futbola.
 - c) Frontoia-binakakoa.
 - d) Borroka olinpikoa.
171. **Jokoaren erabilgarritasun-mailaren arabera, García Ferrandok hiru kategoriatako kirolak sailkatzen ditu (1990):**
- a) Kirol formalak, informalak eta sozialak.
 - b) Kirol formalak, informalak eta erdiinformalak.
 - c) Kirol formalak, informalak eta mistoak.
 - d) Kirol formalak, arautuak eta aisialdikoak.
172. **Almonden kirol-jokoaren sailkapenean (1986), honako definizio hau ematen zaie hormaren edo paretaren kontrako kirol-jokoei:**
- a) Elementu mugikorra hormaren kontra jaurtitzea, aurkariak/aurkariak ezin izan dezan/dezaten horma berera berriro bueltatu.
 - b) Elementu mugikorra jaurtitzea eta aurkari taldearen espazioa ukitzea, lurra ukitu gabe.
 - c) Elementu mugikorra jaurtitzea eta aurkari taldeak ahalik eta gehien atzeratzea bueltatzeko edo biltzeko unea.
 - d) Elementu mugikorra lurraren kontra jaurtitzea, aurkariak/aurkariak ezin izan dezan/dezaten atzera bueltatu.
173. **Almonden sailkapena (1986) kirol-jokoaren sailkapenari buruzko ellis-en lanean (1983) oinarritua dago. Zer eratako kirolean sartzen du waterpoloa?**
- a) Inbasiokoetan.
 - b) Horma edo paretakoetan.
 - c) Kantxa zatitukoetan.
 - d) Itu edo dianakoetan.
174. **Kirol-zientzien hiztegiak (Unisport 1992) kirolaren oinarritzko hiru ezaugarri erakusten ditu. Hauetatik zein ez dago han jasota?**
- a) Ingurune fisikoa.
 - b) Lehia.
 - c) Arauak.
 - d) Jarduera.
175. **Talde-kirolean, zer eratako ekintzak dira paseak?**
- a) Teknika kolektiboak.
 - b) Teknika indibidualak.
 - c) Taktika indibidualak.
 - d) Ez teknikak, ez taktikak; joko-ekintzak dira.

176. **Kirol kolektiboen sailkapenari dagokionez:**

- a) Zenbait sailkapen daude, parametroaren arabera.
- b) Bakarra dago, eta espazioaren okupazioari egiten dio erreferentzia.
- c) Bi bakarrik daude: batek espazioari egiten dio erreferentzia, eta besteak joko-txandari.
- d) Ofizialak espazioaren erabilerari egiten dio erreferentzia.

177. **Nork asmatu zuen saskibaloia?**

- a) J.P. Piednoirrek.
- b) G. Dersoirrek.
- c) P. Parlebasek.
- d) J. Naismithek.

178. **Kiroletan, bada erdidebekatutako eremurik?**

- a) Bai, baina ez zenbait kiroletan, eskubaloian bakarrik.
- b) Bai, baina kirol kolektiboetan bakarrik.
- c) Bai.
- d) Ez.

179. **Kirol kolektiboetan, zein dira markatze-elementuak?**

- a) Atea.
- b) Hondoko marra.
- c) Saskia.
- d) Denak dira zuzenak.

180. **Kirol kolektiboen esparruan, funtzio berak dituzte kirolari guztiek?**

- a) Bai, diskriminazioak saihesteko.
- b) Ez, jokalarri bakoitzak bere egitekoa du taldearen barruan.
- c) Bai, kirol guztietan.
- d) Bai, egitekoak berberak dira, eta guztiek rol berean jarduten dute.

181.- **Parlebas-en (1981) arabera, hauek izan daitezke egoera motorrak:**

- a) Parte-hartzaile(ar)ekiko interakzioa.
- b) Aurkari(ar)ekiko interakzioa.
- c) Inguruarekiko interakzioa.
- d) Denak dira zuzenak.

182. **Saskibaloian, hau ez da alderdi teknikotzat hartzen:**

- a) Baloia erabiltzea.
- b) Kontraerasoaren antolaketa.
- c) Saskira jaurtitzea.
- d) Tapoi bat.

183. **J.A. Mestre-ren arabera (2008), hauek dira plangintzako zehaztasun-mailak, txikie-netik handienera:**
- a) Plana – Programa – Proiektua
 - b) Plana – Proiektua.
 - c) Proiektua – Programa – Plana.
 - d) Programa – Plana – Proiektua.
184. **Zer da penalti bat?**
- a) Talde erasotzailearen kontra egindako arau-hauste bat.
 - b) Taldeak defentsan egindako arau-hauste bat.
 - c) Joko-eremuko gune jakin batean egindako arau-hauste bat.
 - d) Denak dira zuzenak.
185. **Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, hauek hartzen dira jolas-jardueratzat:**
- a) Parte hartzeko asmoz edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, aisiarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
 - b) Parte hartzeko asmoz edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, kirol-errendimenduarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
 - c) Bigarren mailako asmo gisa, parte hartzeko asmoz edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko asmoz jendea biltzen duten jarduerak, aisiarekin, denbora-pasarekin edo dibertsioarekin lotuak.
 - d) Bide publikoan eskaintzen den ikuskizun oro.
186. **Zer inplikutzen du kirolen esparruko estrategiak?**
- a) Jokoaren soluzio tekniko guztiak ezagutzea.
 - b) Egoera ideala aztertzea eta itxarotea.
 - c) Planteatutako arazoa hautematea, aztertzea eta konpontzea.
 - d) Arazoa hautematea eta aztertzea.
187. **Kontzeptu hauetatik, zein ez da taktikoa?**
- a) Kontraerasoaren antolaketa.
 - b) Eraso posizionala.
 - c) Baloia erabiltzea.
 - d) Defentsa indibiduala.
188. **Ikuskizun Publiko eta Aisialdi Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen Eranskinaren arabera, gimnasioak...**
- a) dibertsiorako establezimenduak dira.
 - b) kirol-erabilerako aisialdi-jardueretarako establezimenduak dira.
 - c) aisialdiko jolaserako establezimenduak dira.
 - d) aisialdi- eta kirol-erabilerako aisialdi-jardueretarako establezimenduak dira.

189. **Boleibolean, zer noranzkotan egiten dira errotazioak?**
- a) Ordulariaren orratzen kontrako aldera.
 - b) Ordulariaren orratzen aldera.
 - c) Diagonalean.
 - d) Sigi-sagan.
190. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, teniseko joko-eremuko markek zabalera hau izan behar dute:**
- a) 5 cm.
 - b) 3 cm.
 - c) gutxienez 2 cm eta gehienez 6 cm.
 - d) gutxienez 2,5 cm eta gehienez 5 cm.
191. **Kirol bat indibidualtzat har liteke, baldin eta banako batek zenbait aurkariri aldi be-reanegin behar badie aurre?**
- a) Bai, kirol batzuek badute ezaugarri hori.
 - b) Ez, hori desabantaila da.
 - c) Bai, baina berezitzat jotako eta epaileek baimendutako egoeretan.
 - d) Ez, norik bere buruaren kontra edo beste baten kontra izan behar du, ez bat baino gehiagoren kontra.
192. **Errelebo-proba bat proba indibiduala da?**
- a) Bai, inoiz ez baitira batera aritzen talde bereko bi kide.
 - b) Bai, partaide batek amaitu artean ez baita bestea hasten.
 - c) Ez.
 - d) Sailkapen hori egilearen arabera da.
193. **Zer fasek ez dauka tokirik ibilketa atletikoan?**
- a) Oszilazio-faseak.
 - b) Babes bikoitzeko faseak.
 - c) Hegaldi-faseak.
 - d) Babes bakuneko faseak.
194. **Ikuskizun Publiko eta Aisialdi Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen Eranskinaren arabera, frontoiak...**
- a) ikuskizun publikoetarako kirol-establezimenduak dira.
 - b) ikuskizun pribatuetaarako kirol-establezimenduak dira.
 - c) jokoaren aisialdi-jardueretarako establezimenduak dira.
 - d) aisialdi- eta kirol-erabilerako aisialdi-jardueretarako establezimenduak dira.

195. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, teniseko joko-eremuak luzera hau izan behar du bikotekako partidetan:**
- a) 23,55 m
 - b) 20,55 m
 - c) 23,77 m
 - d) 22,77 m
196. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, teniseko joko-eremuak luzera hau izan behar du banakako partidetan:**
- a) 23,55 m
 - b) 20,55 m
 - c) 23,77 m
 - d) 22,77 m
197. **Igeriketako Nazioarteko Federazioaren arabera, zer luzera behar dute igerilekuek, igeriketako nazioarteko lehiaketak egiteko?**
- a) 25 edo 50 metro, lehiaketaren arabera.
 - b) 25 metro, lehiaketa guztietan.
 - c) 50 metro, lehiaketa guztietan.
 - d) 35,5 metro, lehiaketa guztietan.
198. **Banakako kirolen ezaugarriek eta egiturek aldeak izaten dituzte jokatzeko inguru-neak eragiten dituen ziurgabetasunen arabera. Zeri deitzen diogu ingurune fluktua-tzailea?**
- a) Jokalariaren mende dagoenari.
 - b) Ziurgabetasuna sortzen duenari.
 - c) Lurreko inguruneari.
 - d) Ziurgabetasunik sortzen ez duenari.
199. **Planteatzen al du alderdi taktikorik maratoni-lasterketa batek?**
- a) Ez, kirolariaren egoera fisikoak bakarrik axola du.
 - b) Ez, lasterketaren baldintza fisikoak eta teknikoak bakarrik axola dute.
 - c) Bai, ahaleginaren dosifikazioa izan daiteke.
 - d) Ez, taktikak ez dauka garrantzirik banakako kirolean.
200. **Euskalitek proposatzen duen kudeaketa-eredua elementu eta azpielementuz konfi-guratuta dago. Zein dira elementu horiek?**
- a) Estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak.
 - b) Estrategia, bezeroak, giza baliabideak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak.
 - c) Estrategia, bezeroak, pertsonak, berrikuntza eta emaitzak.
 - d) Estrategia, bezeroak, pertsonak, teknologia eta emaitzak.
 - e) Estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea eta berrikuntza.

201. **Miguel Ángel Soria eta Antonia Cañellas-ek *La Animación Deportiva* liburuan jasozten dutenez, kirol-animatzailearen funtzioa hau izango da:**
- a) Eragile soziala.
 - b) Erlazionala.
 - c) Kirolaren arlo teknikoa
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
202. **Zer taldetara zuzentzen da kirol-animatzailea?**
- a) Eskolako adinean dauden neska-mutiletara bakarrik.
 - b) Heldu eta nagusietara, preskripzio medikoaren arabera.
 - c) Desgaitasuna duten pertsonetara eta hezkuntza-premia bereziak dituztenetara bakarrik.
 - d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
203. **Har al daiteke kirol-animatzailea hezitzailetzat?**
- a) Ez, animatzailearen egitekoa entretenitzea da, eta ez heztea.
 - b) Bai, baldin eta eskola-esparruan jarduten badu.
 - c) Bai, une oro saiatzen baita bere jardunaren xede diren pertsonak produktiboago izan daitezten.
 - d) Bai, une oro saiatzen baita bere jardunaren xede diren pertsonak baliotsuago izan daitezten berez eta gizartearentzat.
204. **Norbert Elias eta Erie Dunning soziologoek arabera (1992), denbora librearen zenbait-jardueratan erabil daiteke, baina hauetako zein ez da aintzat hartzen?**
- a) Atsedena
 - b) Lan pribatua eta etxeko administrazioa
 - c) Kirola
 - d) Behar biologikoak asetzea
205. **Zeri dagokio honako definizio hau? «Animazioaren zati honen oinarritzko helburua gizartearen sektoreak animatzea eta estimulatzea da, eta, horretarako, aisialdiaren okupazio positiboa sustatzen du kirol-jarduerak eta jarduera fisikoak praktikatzuz, eta, hala, harreman sozialak eta osasuna indartzen ditu, guztia ere izaera ludikoarekin eta aisialdiarekin loturik».**
- a) Kirol-animazioa.
 - b) Animazio soziokulturala.
 - c) Talde-dinamika.
 - d) Aisialdia.
206. **Norbert Elias eta Erie Dunning soziologoek arabera (1992), zenbat jardueratan erabil daiteke denbora librearen?**
- a) 3 jardueratan
 - b) 5 jardueratan.
 - c) 8 jardueratan.
 - d) 6 jardueratan.

207. **Norbert Elias eta Erie Dunning soziologoek arabera (1992), denbora librearen zenbait jardueratan erabil daitezke, baina hauetako zein ez da aintzat hartzen?**
- a) Atsedena
 - b) Harreman sozialak
 - c) Jarduera mimetikoak edo jolas-jarduerak
 - d) Naturako jarduerak
208. **«Aisialdia okupazioen multzo bat da, zeinetara gizakiak bere borondatez dedikatzen baitu denbora, atsedean hartzeko, dibertitzeko, informazioa edo trebakuntza modu desinteresatuan garatzeko, bere borondatezko gizarte-partaidetzarako edo sormen-gaitasun askerako, betiere lanbideko, familiako edo gizarteko okupazioetatik askatu denean». Nor da definizio horren egilea?**
- a) Margaret Mead.
 - b) Larson.
 - c) Dumazedier.
 - d) M. Ispizua.
209. **Margaret Mead-ek kontsumo pertsonalerako denbora gisa definitzen du aisialdia; hala, adierazten du produktioetik askatutako denbora-zentzua hartzen duela, ondatsun eta zerbitzuak kontsumitu ahal izateko. Zer urtetakoa da definizio hori?**
- a) 1957koa.
 - b) 1978koa.
 - c) 1965koa.
 - d) 1950koa.
210. **Joffre Dumazeider-ek, 1964an, adierazi zuen aisialdiak hiru egiteko nagusi zituela (3 D-ak).**
- a) Deskantsua, dibertsioa eta jarduerarako desioa.
 - b) Dibertsioa, disponibilitatea eta pertsonalitatearen garapena.
 - c) Deskantsua, dibertsioa eta pertsonalitatearen garapena.
 - d) Deskantsua, disponibilitatea eta garapena.
211. **Astialdirako eskubidea gizarte modernoek lorpen funtsezko bat da, eta denbora erabat pertsonala gozatzeko aukera ematen du, aisialdirako, alegia. Nor dio hori?**
- a) M.Ispizuak eta M.J. Monteagudok.
 - b) Mannell, Zuzanek eta Larson-ek.
 - c) Dumazeider-ek.
 - d) Norbert Elias eta Erie Dunning-ek.
212. **1993an, aisialdiaren eta jolasaren munduko elkarteak aisiako hezkuntzari buruzko gutuna plazaratu zuen. Zer biltzen zen agiri hartan?**
- a) Legeak.
 - b) Helburuak.
 - c) Postulatuak.
 - d) Arauak.

213. **Zer helburu du Aisiako Hezkuntzari buruzko Gutunak (1993)?**
- a) Gobernuei, gobernuz kanpoko erakundeei eta hezkuntza-erakundeei jakinaraztea aisiaren esanahia eta onurak, baita hezkuntzarako eta hezkuntzan heztearenak ere.
 - b) Gobernuei, gobernuz kanpoko erakundeei eta hezkuntza-erakundeei inposatzea aisiaren esanahia eta onurak, baita hezkuntzarako eta hezkuntzan heztearenak ere.
 - c) Gobernuei, gobernuz kanpoko erakundeei eta hezkuntza-erakundeei aisialdialdiko dedikazioei buruzko informazioa ematea.
 - d) Gobernuei, gobernuz kanpoko erakundeei eta hezkuntza-erakundeei aisialdialdiko dedikazioak inposatzea.
214. **J.M. Cagigal-ek, Dumazeider-ek aisialdiri buruz egindako analisitik abiatuta, aisiaren oinarritzko zenbait ezaugarri azaldu zituen, zeinak bat baitatuz kirolaren ezaugarriekin. Zenbat dira?**
- a) 3
 - b) 5
 - c) 6
 - d) 7
215. **UNE Espainiako Normalizazio Elkartearen zer da?**
- a) Erakunde pribatu bat, sektore anitzekoa eta irabazi asmoa duena.
 - b) Merkataritza-sozietate bat AENOR INTERNACIONAL S.A.U. sozietatearekin kide-tua.
 - c) Merkataritza-sozietate publiko bat AENOR INTERNACIONAL S.A.U. sozietatearekin kide-tua.
 - d) Erakunde pribatu bat, sektore anitzekoa eta irabazi asmorik gabea.
216. **Espainiako Normalizazio Elkartearen (UNE) batzordeen artean, kirolaren esparruan espezializatutako bat ageri da. Zer izen du?**
- a) CTN 147- Jarduera Fisikoa eta Kirola. Kirol-ekipamenduak eta -instalazioak.
 - b) CTN 147 - Kirolak. Kirol-ekipamenduak eta -instalazioak.
 - c) CTN 147 - Kirolak. Kirol-ekipamenduak, -materiala eta -instalazioak.
 - d) CTN 197 - Kirolak. Kirol-ekipamenduak, -materiala eta -instalazioak.
217. **Espainiako Normalizazio Elkartearen (UNE), kirolean espezializatutako batzordea azpibatordetan dago banatuta. Hauetatik, zein ez da azpibatorde horietako bat?**
- a) SC 1. Kirol-instalazio eta -barrutien kudeaketa- eta mantentze-lanak.
 - b) SC 2. Kirolak, joko-zelaiak eta bestelako jolas-ekipamenduak.
 - c) SC 3. Kirol-gainazalak.
 - d) SC 4. Kirolarientzako instalazioak.

218. **Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren arabera, dirulaguntzen zenbatekoa:**
- a) Inoiz ez da izango diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, dela dirulaguntza hori bera bakarrik hartuta, dela beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuekin batera.
 - b) Diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu ahal izango du, baldin eta justifikatzen bada dirulaguntzaren zenbateko osoaren erabilera.
 - c) Diruz lagundutako zenbatekoa gainditu ahalko du, baldin eta soberan geratzen den zenbatekoa tankera bereko jarduerak sustatzeko baliatzen bada.
 - d) Inoiz ez da izango diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, gainerako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitartekoak kontuan hartuta.
219. **J.A. Mestre-ren arabera (2008), zer dira adierazleak?**
- a) Laburpen-neurriak, ahal dela kualitatiboak, gizarte edo kolektibo baten aldagaien, atributuen edo parametroei buruzkoak.
 - b) Kirol-instalazio bateko seinaleztapen-kartelak.
 - c) Laburpen-neurriak, ahal dela estatistikoak, gizarte edo kolektibo baten aldagaien, atributuen edo parametroei buruzkoak.
 - d) Laburpen-neurriak, ahal dela kualitatiboak, kirol-instalazio baten aldagaien, atributuen edo parametroei buruzkoak.
220. **J.A. Mestre-ren arabera (2008), zer adierazlek dute garrantzia kirolaren plangintzan?**
- a) Eduki soziodemografikoa biltzen dutenek.
 - b) Gizartearekin eta kirolarekin lotutako edukia dutenek.
 - c) Kirol-eskaintzarekin eta -kontsumoarekin lotutako edukia dutenek, kirol-sistemen arabera.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
221. **J.A. Mestre-ren arabera (2004), zer da kirol-forum komunitarioa, kirol-kudeaketaren plangintzan baliatua?**
- a) Metodo misto bat.
 - b) Metodo kuantitatibo bat.
 - c) Metodo kualitatibo bat.
 - d) Metodo pragmatiko bat.
222. **Zer eratako hezkuntza motak ditugu?**
- a) Formala eta informala.
 - b) Formala, ez-formala eta informala.
 - c) Hezkuntza formala eta instituzionala.
 - d) Hezkuntza, berez, bakarra da.

223. **Zer eratakoa da familian transmititzen den hezkuntza, jardueren eta usadioen bidez emana?**
- a) Hezkuntza ez-formala.
 - b) Hezkuntza ez-instituzionala.
 - c) Hezkuntza informala.
 - d) Hezkuntza formala.
224. **Zenbat elementu eta azpielementu ditu Euskalitek proposatutako kudeaketa-eremuak?**
- a) 4 elementu eta 23 azpielementu.
 - b) 6 elementu eta 23 azpielementu.
 - c) 6 elementu eta 20 azpielementu.
 - d) 5 elementu eta 24 azpielementu.
225. **Nola deitzen da kirol-erakunde baten egitura formalaren eta antolaketaren irudikapen grafikoa?**
- a) Soziograma.
 - b) Kronograma.
 - c) Programa.
 - d) Organigrama.
226. **Toki-korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren arabera, zer ordainsari jasoko du emakidadunak emakida batean?**
- a) Erabiltzaileen kargurako tasak eta dirulaguntza-ordainsaria.
 - b) Zerbitzua ezartzeak dakartzan kontribuzio bereziak eta dirulaguntza-ordainsaria.
 - c) Zerbitzua ezartzeak dakartzan kontribuzio bereziak eta erabiltzaileen kargurako tasak.
 - d) Zerbitzua ezartzeak sortutako dakartzan kontribuzio bereziak, erabiltzaileen kargurako tasak eta dirulaguntza-ordainsaria.
227. **V. Año-Ren arabera (2003), arlo hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Marketina
 - b) Zerbitzu legegileak
 - c) Giza baliabideak
 - d) Segurtasuna
228. **Desbordes, M. eta Falgoux, J. autoreen arabera (2006), arlo hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Legegintza eta segurtasuna.
 - b) Administratiboa eta finantzarioa.
 - c) Komunikazioa eta komunikabideak.
 - d) Aholkularitza juridikoa.

229. **Zeregin hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Ostatua eta garraioak.
 - b) Lizentziak ematea.
 - c) Baimenak, gizarte-erantzukizuneko aseguruak, arriskuak.
 - d) Dirulaguntzak eta babesleekiko kudeaketa.
230. **Zeregin hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Erregistro Orokorra.
 - b) Publizitatea, ekitaldia sustatzea-jendarteratzea: triptikoak, eranskailuak, pankartak.
 - c) Akreditazioak.
 - d) Aurrekontua prestatzea.
231. **Zeregin espezifiko hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Sare bidezko komunikazioaren diseinua.
 - b) Bideo-grabaketa eta argazki-erreportajea.
 - c) Gizarte-zerbitzuak.
 - d) Epaileak eta arbitroak, lehiaketa-sistemak, ordutegiak.
232. **2019aren aurretik, zer urtetan onartu zen azken tasa eta prezio publikoen legea?**
- a) 1989an.
 - b) 1970ean.
 - c) 1966an.
 - d) 1998an.
233. **Zeregin espezifiko hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Amaierako memoria.
 - b) Birgaitze orokorra.
 - c) Segurtasuna: botika-kutzak, lehen sorospenekin harremanak izatea.
 - d) Materiala eta ekipamendua instalaziora eramatea.
234. **Txirrindularitza-martxa bat antolatzeko, noren baimena behar da?**
- a) Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, ibilbidea autonomia-erkidego bateko baino gehiagotako erabilera publikoko bide edo lursailetatik igarotzen denean.
 - b) Udalena, ibilbidea oso-osorik herrigunearen barrutik igarotzen bada, zeharbideak kanpo.
 - c) Autonomia-erkidego bakoitzean dagokion organoarena, ibilbideak ez badu gaindizten autonomia-erkidego horretako lurraldea.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

235. **Soria eta cañellas egileen arabera, estilo hauetatik zein ez da hartzen kirol-anima-zioko estilotzat?**
- a) Autoritarioa.
 - b) Demokratikoa.
 - c) Hierarkikoa.
 - d) Anarkikoa.
236. **Hiri-milia batean, zenbateko distantzia egin behar dute korrikalariek?**
- a) 1329 metro
 - b) 1609 metro
 - c) 2155 metro
 - d) 2003 metro
237. **Maratoi batean, zenbateko distantzia egin behar dute korrikalariek?**
- a) 35 km
 - b) 30,200 km
 - c) 42,195 km
 - d) 25 km
238. **Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, nori dagokio toki-erakunde autonomoak eta tokiko enpresa-erakunde publikoak sortzea, aldatzea, bateratzea eta ezabatzea?**
- a) Toki-erakundearen osoko bilkurari.
 - b) Fundatzaileei.
 - c) Udalerriko alkatetzari.
 - d) Udalerriko gobernu-batzordeari.
239. **Triatloietan ordena honetan jokatzeko dira diziplinak:**
- a) Igeriketa-Oinezko lasterketa-Txirrindularitza.
 - b) Txirrindularitza-Igeriketa-Oinezko lasterketa.
 - c) Oinezko lasterketa-Igeriketa-Txirrindularitza.
 - d) Igeriketa-Txirrindularitza-Oinezko lasterketa.
240. **Kirol-txapelketak antolatzeko sistemetan, bada «sistema suitzarra» izeneko aldagai bat. Zer txapelketatarako baliatzen da batez ere?**
- a) Boleibola.
 - b) Triatloia.
 - c) Xakea.
 - d) Futbola.

241. **Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, nori dago-
kio toki-erakunde autonomoen eta tokiko enpresa-erakunde publikoen estatutuak
onartzea?**
- a) Toki-erakundearen osoko bilkurari.
 - b) Fundatzaileei.
 - c) Udalerriko alkatezari.
 - d) Udalerriko gobernu-batzordeari.
242. **Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, nola arautuko
dira bakarrik tokiko merkataritza-sozietateak, edozein dela ere haien forma juridikoa?**
- a) Ordenamendu juridiko publikoaren arabera.
 - b) Ordenamendu juridiko publikoaren arabera, nola eta ez den aplikatzekoa aurrekon-
tuen, kontabilitatearen, finantza-kontrolaren, efikazia-kontrolaren eta kontrata-
zioaren araudia.
 - c) Ordenamendu juridiko pribatuaren arabera.
 - d) Ordenamendu juridiko pribatuaren arabera, nola eta ez den aplikatzekoa aurrekon-
tuen, kontabilitatearen, finantza-kontrolaren, efikazia-kontrolaren eta kontrata-
zioaren araudia.
243. **Toki-eskumeneko zerbitzu publikoen zer eratako kudeaketa mota izan behar dute
Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotako sektore pu-
blikoaren kontratu motek?**
- a) Kudeaketa zuzena.
 - b) Kudeaketa mistoa.
 - c) Zeharkako kudeaketa.
 - d) Zeharkako kudeaketa eta kudeaketa mistoa.
244. **París Roche, F. egilearen arabera (2015), plangintza estrategikoa beti dago lotuta:**
- a) Aldaketa-prozesuekin.
 - b) Parte-hartzaileen interesekin.
 - c) Bitartekoak bilatzearekin.
 - d) Helburukako zuzendaritzarekin.
245. **F. Paris Roche-ren arabera (2015), hau da urteko plan operatiboa:**
- a) Maila estrategikoaren eta maila operatiboaren arteko lotura-elementua .
 - b) Maila estrategikoaren eta zuzendaritza-mailaren arteko lotura-elementua .
 - c) Epe luzeko elementu bat.
 - d) Epe labur, ertain eta luzeko elementu bat.
246. **F. Paris Roche-ren arabera (2015), urteko plan operatiboa honi lotuta dago:**
- a) Erakundearen plan estrategikoari.
 - b) Langileen harreman pertsonalei.
 - c) Langileen lan-harremanei.
 - d) Makrozikloari.

247. **París Roche, F. egilearen arabera (2015), zer-nola definitzen da estrategia?**
- a) Zehaztutako helburuak lortzeko aukera ematen digun bidea.
 - b) Esperotako kirol-lorpenak erdiesteko aukera ematen digun bidea.
 - c) Zehaztutako helburuen multzoa.
 - d) Epe ertainera zehaztutako helburuen multzoa.
248. **París Roche, F. egilearen arabera (2015), ezin dira banandu plangintza eta:**
- a) Zuzendaritza.
 - b) Koordinazioa.
 - c) Programazioa.
 - d) Instalazioak.
249. **París Roche, F. egilearen arabera (2015), hauek dira plangintza estrategikoaren ezau-garriak:**
- a) Formaltasuna, globaltasuna, errealismoa, malgutasuna, jarraitutasuna eta erakunde osorako alderdiak.
 - b) Formaltasuna, globaltasuna, errealismoa, malgutasuna eta jarraitutasuna.
 - c) Formaltasuna, globaltasuna, malgutasuna eta jarraitutasuna.
 - d) Formaltasuna eta jarraitutasuna.
250. **Bidexka bat har daiteke natura-inguruneko kirol-instalazio gisa?**
- a) Ez.
 - b) Bai, parke natural baten barruan dagoenean izan ezik.
 - c) Bai, parke natural batetik kanpo dagoenean izan ezik.
 - d) Bai.
251. **Hauek dira CAME analisiak (zuzendu, aurre egin, mantendu, ustiatu) biltzen dituen estrategiak:**
- a) Defentsakoak, eraso egitekoak, bizirik iautekoak eta berrorientatzekoak.
 - b) Defentsakoak eta eraso egitekoak.
 - c) Bizirik irautekoak eta berrorientatzekoak.
 - d) Eraso egitekoak, defentsakoak, gaintzakoak eta berrorientatzekoak.
252. **Zein da bidexka bat seinaleztatzearen xedea?**
- a) Ezarritako trazatua definitzea, ibilbidea identifikatzea eta datu garrantzitsuak adieraztea, erabiltzaileentzako informazio eta gida gisa.
 - b) Instalazio egoki bat sortzea era guztietako oinezko mobilizaziorako, mobilizazio egokitua barne.
 - c) Ezarritako trazatua definitzea eta ibilbidea identifikatzea.
 - d) Kirol-instalazio bat amaitzea, haren bidez –eta bestelakoekin loturik– udalerrri batek dituen ondare-bitarteko guztiak eskuratu ahal izateko.

253. **Bidexkak seinaleztatzean, zer kolore margotzen da gaineretik beti, edozein dela ere bidexkaren maila?**
- a) Gorria.
 - b) Horia.
 - c) Zuria.
 - d) Berdea.
254. **Bidexkak seinaleztatzean, zer kolore dagokio bidexka bakoitzari?**
- a) Gorria GR bidexketarako, horia PRetarako eta berdea SLetarako.
 - b) Gorria SL bidexketarako, horia PRetarako eta berdea GRetarako.
 - c) Zuria GR bidexketarako, horia PRetarako eta berdea SLetarako.
 - d) Zuria SL bidexketarako, horia PRetarako eta berdea GRetarako.
255. **Zer abantaila ditu bidexka bat homologatzeak?**
- a) Ez dauka abantailarik.
 - b) Homologazioak lurralde osoaren oinarritzko homogeneotasunari laguntzen dio, Espainian diren kalitate-estandarrekin bat.
 - c) Homologazioak lurralde osoaren oinarritzko homogeneotasunari laguntzen dio, Europan diren kalitate-estandarrekin bat.
 - d) Homologazioak heterogenotasunari laguntzen dio, Espainian diren kalitate-estandarrekin bat.
256. **Udako Joko Paralinpikoetan bildutako kirol egokituaren modalitateen artean, arraunketa/piraguismoa ageri dira. Lehiatzeko zer klase aurreikusten dira?**
- a) LTA5+, TA2X, AW1X, AM2X
 - b) LTA5+, TA2X, AW1X, AM1X
 - c) LTA4+, TA2X, AW1X, AM1X
 - d) TA2X, AW1X, AM1X
257. **Kirol-azpiegitura hauetatik, zein ezin daiteke natura-ingurunean egon?**
- a) Via Ferrata bat.
 - b) Eskalada-bide bat.
 - c) Bidexka bat.
 - d) Futbol-estadio bat.

258. **Mendiko eta aire zabaleko kirolei buruzko literatura zabalean ageri denaren arabera, zer alde dago txangozaletasunaren —mendi-ibilien aurrekaria— eta mendi-ibilien artean?**
- a) Txangozaletasuna balizatu gabeko bide eta bidexketatik igarotzen da, eta, horrenbestez, ez ditu eskaintzen bidexka homologatuek eskaintzen dituzten segurtasun- eta kalitate-bermeak.
 - b) Mendi-ibilietarako, federatuta egon behar da, eta txangozaletasunerako, berriz, ez.
 - c) Txangozaletasunerako, federatuta egon behar da, eta mendi-ibilietarako, berriz, ez.
 - d) Mendi-ibiliak balizatu gabeko bide eta bidexketatik barrena egiten dira, eta, horrenbestez, ez dituzte eskaintzen bidexka homologatuek eskaintzen dituzten segurtasun- eta kalitate-bermeak.
259. **Baieztapen hauetatik, zein ez da zuzena?**
- a) Seinaleztatutako bidexkak oinezkoentzako ibilbide seinaleztatuak dira; hau da, seinaleak dituzte (mugarriak, geziak, panelak, pintura-markak eta abar).
 - b) Seinaleztatutako bidexkak ibilbide seinaleztatuak dira; hau da, seinaleak dituzte (mugarriak, geziak, panelak, pintura-markak eta abar), eta oinezkoak eta ibilgailuak igaro ahal izateko diseinatuta daude.
 - c) Seinaleztatutako bidexkak oinezkoentzako ibilbide seinaleztatuak dira, eta, ahal den guztietan, saiatzen dira errepide asfaltatuak eta ibilgailu-trafikoa dutenak saihesten.
 - d) Seinaleztatutako bidexkak oinezkoentzako ibilbide seinaleztatuak dira –hau da, seinaleak dituzte (mugarriak, geziak, panelak, pintura-markak eta abar)–, eta, ahal den guztietan, saiatzen dira errepide asfaltatuak eta ibilgailu-trafikoa dutenak saihesten.
260. **Seinaleztatutako bidexkak hiru talde handitan sailkatzen dira:**
- a) Ibilbide luzekoak, ibilbide laburrekoak eta zirkularrak.
 - b) Ibilbide laburrekoak, zirkularrak eta tokiko bidexkak.
 - c) Ibilbide luzekoak, ibilbide laburrekoak eta tokiko bidexkak.
 - d) Tokiko bidexkak, zirkularrak eta bidexka probintzialak.
261. **Ibilbide luzeko bidexkaren bat (GR) europako hiru estatutatik edo gehiagotatik igarotzen denean, nazioarteko bidexka gisa ere katalogatzen da. eta nola agertzen da zehaztuta?**
- a) «I» letrarekin.
 - b) «E» letrarekin.
 - c) «Z» letrarekin.
 - d) «S» letrarekin.
262. **Magaz-González, A.M. eta Fanjul-Suárez, J.L. autoreen arabera (2012), arlo hauetako zein ez dagokio kirol-ekitaldi baten antolaketari?**
- a) Kirolaren arlo teknikoa
 - b) Komunikazioaren teknologia
 - c) Ekonomiko-administratiboa
 - d) Giza baliabideak

263. **Zer da bidexka homologatu bat?**

- a) Ahal dela bide tradizionaletatik eta natura-ingurunean igarotzen den kirol-instalazio bat, Mendiko Kirol eta Eskaladako Espainiako Federazioaren (FEDME) marka propioekin identifikatua.
- b) Ahal dela bide tradizionaletatik eta natura-ingurunean igarotzen den kirol-instalazio bat, Mendiko Kiroletako Espainiako Federazioaren (FEDM) marka propioekin identifikatua.
- c) Ahal dela bide tradizionaletatik eta natura-ingurunean igarotzen den kirol-instalazio bat, Mendiko Kirol eta Eskaladako Espainiako Federazioaren (FEDME) marka propioekin identifikatua ez dagoena.
- d) Ahal dela bide tradizionaletatik eta natura-ingurunean igarotzen den kirol-instalazio bat, Mendiko Kiroletako Espainiako Federazioaren (FEDM) marka propioekin identifikatua ez dagoena.

264. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, teniseko joko-eremuak zabalera hau izan behar du banakako partidetan:**

- a) 8,23 m
- b) 7,23 m
- c) 10,97 m
- d) 9,97 m

265. **Badmintona:**

- a) Erraketarekin jokatzen da.
- b) Pilotarekin jokatzen da.
- c) Ziurgabetasun-kirol bat da.
- d) Indar-kirol bat da.

266. **World Rugbyren arabera, zenbat jokalarik izan ditzake gehienez ere joko-zelaian talde bakoitzak partida jokatu bitartean?**

- a) 15
- b) 14
- c) 13
- d) 11

267. **Noiz egin ziren Aro Modernoko lehendabiziko Olinpiar Jokoak?**

- a) 1894
- b) 1896
- c) 1899
- d) 1890

268. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, aire zabalako kirol-eremuek orientazio hau izan behar dute:**

- a) S-W.
- b) N-S.
- c) E-S.
- d) W-E

269. **Futbol-zelaietarako hazi mota hauen artean, zein ez da klima epeletarako?**
- a) *Cynodon dactylon* (askimotza).
 - b) *Paspalum notatum* (badia belarra).
 - c) *Agrostis*.
 - d) *Pennisetum clandestinum* (kikuyu).
270. **Mugimendu paralinpikoak aukerak ematen dizkie desgaitasun fisikoa, ikusizkoa edo intelektuala duten atletei, aukerako 10 desgaitasunetako bat gutxienez badute. Desgaitasun hauetako zein ez dago haien artean?**
- a) Indar muskular falta.
 - b) Gorputz-adarretako urritasuna.
 - c) Ikus-urritasuna.
 - d) Beso-luzeraren urritasuna.
271. **AMIA analisiaren erabileratik abiatuta, zertan datza CAME analisia (euskaraz, ZAMU)?**
- a) Ahuleziak zapaldu, mehatxuak arbuia, indarguneak mantendu eta aukerak ugaritu.
 - b) Ahuleziak zuzendu, mehatxuei aurre egin, indarguneak mantendu eta aukerak ustiatu.
 - c) Ahuleziak zokoratu, mehatxuei aurre egin, indarguneak mantendu eta aukerak ugaritu.
 - d) Ahuleziak zanpatu, mehatxuak alderatu, indarguneak moldekatu eta aukerak ustiatu.
272. **Non egin ziren Aro Modernoko lehendabiziko Olinpiar Jokoak?**
- a) Atenasen (Grezia).
 - b) Erroman (Italia).
 - c) Parisen (Frantzia).
 - d) Chamonixen (Frantzia).
273. **Zer da olinpismoa?**
- a) Kirol-korrante bat, gorputzaren nolakotasunak, borondatea eta espiritua multzo harmoniko batean goستن eta konbinatzen dituen.
 - b) Kirol-ekitaldi bat, gorputzaren nolakotasunak, borondatea eta espiritua multzo harmoniko batean goستن eta konbinatzen dituen.
 - c) Bizitza-filosofia bat, gorputzaren nolakotasunak, borondatea eta espiritua multzo harmoniko batean goستن eta konbinatzen dituen.
 - d) Gizarte-mugimendu bat, gorputzaren nolakotasunak, borondatea eta espiritua multzo harmoniko batean goستن eta konbinatzen dituen.

274. **Golfa:**
- a) Doitasun-kirol bat da.
 - b) Inbasio-kirol bat da.
 - c) Erraketaz jokutzen da.
 - d) Lankidetzeta-kirol bat da.
275. **Espainiako Igeriketako Errege Federazioaren arabera (RFEN), tximeleta erako bana-kako probetan, distantzia hauek dira existitzen dira:**
- a) 50, 100, 200, 400, 800 eta 1.500 metro
 - b) 50, 100, 200, 400 eta 800 metro
 - c) 50, 100, 200 eta 400 metro
 - d) 50, 100 eta 200 metro
276. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, luzera hau izan behar du, gutxienez eta gehienez, zelai batek 11ko futboleko nazioarteko txapelketa batean.**
- a) 60-80 m
 - b) 105-110 m
 - c) 110-120 m
 - d) 100-110 m
277. **Zer igeriketa-probatan egiten da irteera jauzi baten bidez?**
- a) Estilo librean, bular-estiloan, tximeletan eta errelebo libreetan.
 - b) Estilo librean, bular-estiloan, tximeletan, estilo indibidualetan eta errelebo libreetan.
 - c) Proba guztietan.
 - d) Proba batean ere ez.
278. **Zer igeriketa-lasterketatan irteten da uretatik?**
- a) Bizkar-igeriketan.
 - b) Bizkar-igeriketan eta errelebo estiloetan.
 - c) Proba batean ere ez.
 - d) Proba guztietan.
279. **Espainiako Igeriketako Errege Federazioaren arabera (RFEN), zeren arabera ezarriko dira marka nazional onenak?**
- a) Estatuko txapelketen urtearen arabera.
 - b) Jaiotza-urtearen arabera, edozein sexutan.
 - c) Jaiotza-urtearen eta sexuaren arabera.
 - d) Sexuaren arabera.

- 280. Espainiako Igeriketako Errege Federazioaren arabera (RFEN), estilo libreko banako probetan, distantzia hauek existitzen dira:**
- a) 50, 100, 200, 400, 800 eta 1.500 metro
 - b) 50, 100, 200, 400 eta 800 metro
 - c) 50, 100, 200 eta 400 metro
 - d) 50, 100 eta 200 metro
- 281. Nazioarteko Padel Federazioaren arabera, jokoan zehar jokalaria batek pala hautsiko balu ustekabean, jarrai dezake pala horrekin berarekin jokatzen baldintza horietan?**
- a) Bai, nola eta ez den segurtasun-kordoia hausten edo haustura horrek ez duen bihurtzen elementu arriskutsu.
 - b) Bai, nola eta ez den segurtasun-kordoia hausten eta haustura horrek ez duen bihurtzen elementu arriskutsu.
 - c) Ez.
 - d) Une horretako epailearen arabera.
- 282. Nazioarteko Padel Federazioaren arabera, erabil dezake jokalaria batek pala bat baino gehiago jokoan?**
- a) Bai, baina ez da onartzen puntua jokatzen ari den bitartean.
 - b) Bai, noiznahi.
 - c) Ez.
 - d) Bai, baina gehienez ere 2 pala.
- 283. Nazioarteko Padel Federazioaren arabera, kontaktzen zaio arreta-txanda jokalaria bati, jokoaren ondorio zuzen izan ez den istripu baten kasuan?**
- a) Ez, aldeko puntu bat lortu duen kasuetan izan ezik.
 - b) Ez, ez zaio kontaktzen.
 - c) Bai, kasu guztietan.
 - d) Bai, aldeko puntu bat lortu duen kasuetan izan ezik.
- 284. Nazioarteko Padel Federazioaren arabera, zer atsedene- edo eten-denbora izan daiteke lehen eta bigarren zerbitzuaren artean?**
- a) Jokalariak hidratatzeko behar duena bakarrik.
 - b) Batere ez. Jokoak etenik gabe jarraitu behar du.
 - c) Bi minutu, jokoaren jarraipena galarazi gabe.
 - d) Batere ez. Jokoak tartekak izan behar ditu.
- 285. Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, noren eskumena da unibertsitateen arteko txapelketak ordenatzea, kalifikatzea eta baimentzea?**
- a) Autonomia Erkidegoaren instituzio komunena.
 - b) Eusko Jaurlaritzarena, baina Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen laguntzarekin.
 - c) Antolatzen dituen unibertsitatearena.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitatearena.

286. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, noren eskumena da unibertsitate-txapelketak ordenatzea, kalifikatzea eta baimentzea?**
- a) Autonomia Erkidegoaren instituzio komunena.
 - b) Eusko Jaurlaritzarena, baina Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen laguntzarekin.
 - c) Unibertsitate bakoitzarena.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitatearena.
287. **Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, zerbitzu publikoen zer eratako kudeaketan sartzen da tokiko enpresa-erakunde publikoa?**
- a) Zuzeneko kudeaketa.
 - b) Zeharkako kudeaketa.
 - c) Zuzeneko kudeaketa eta zeharkako kudeaketa.
 - d) Kudeaketa mistoa.
288. **Duatloietan ordena honetan jokatzeko dira diziplinak:**
- a) Igeriketa-Oinezko lasterketa-Igeriketa.
 - b) Txirrindularitza-Igeriketa-Txirrindularitza.
 - c) Oinezko lasterketa-Igeriketa-Oinezko lasterketa.
 - d) Oinezko lasterketa-Txirrindularitza-Oinezko lasterketa.
289. **Akuatloietan ordena honetan jokatzeko dira diziplinak:**
- a) Igeriketa-Oinezko lasterketa-Igeriketa.
 - b) Txirrindularitza-Igeriketa-Txirrindularitza.
 - c) Oinezko lasterketa-Igeriketa-Oinezko lasterketa.
 - d) Oinezko lasterketa-Txirrindularitza-Oinezko lasterketa.
290. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, kirol-instalazioen eta kirol-altzarrietan edo kirol-ekipamenduen kontserbazioan eta zaintzan ardura faltaz edo utzikieriaz jokatzeko...**
- a) arau-hauste arina da.
 - b) arau-hauste astuna da.
 - c) arau-hauste oso astuna da.
 - d) delitua da.
291. **Euskadiko Kirol Federazioen 16/2016 Dekretuaren arabera, kirol-federazioek honako hauek prestatu, onetsi eta exekutatu behar dituzte dagozkien tutoretza-administrazioek ezarritako epe eta baldintzetan:**
- a) Emakumeen arteko berdintasunerako ekintza positiboko planak.
 - b) Hizkuntza-normalizazioko planak.
 - c) Laneratze-planak.
 - d) Tutoretza akademikorako planak.

292. **Euskadiko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko 94/1990 Dekretuaren arabera, erregistroan izena ematekoak izango dira:**
- Estatutu-aldaketak.
 - Liga profesionalen eraketak.
 - Kluben eta federazioen erabilgarritasun pribatuaren aitortpena.
 - Goi-mailako kirolariak.
293. **Euskadiko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko 94/1990 Dekretuaren arabera, agiri hauen bina kopia aurkeztu behar dira klub bati Erregistroan izena emateko:**
- Izen-ematearen eskaera-instantzia eta eraketa-akta.
 - Eraketa-akta eta estatutuak.
 - Eraketa-akta eta kirolarien zerrenda.
 - Izen-ematearen eskaera-instantzia, eraketa-akta eta estatutuak.
294. **Euskadiko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko 94/1990 Dekretuaren arabera, honako hau da Erregistroaren dokumentu-araubidea:**
- Erregistro-liburua eta entitateen liburua.
 - Entitateen liburua eta akta-liburua.
 - Erregistro-liburua, entitateen liburua, liburu osagarriak eta dokumentuen orri sorta.
 - Erregistro-liburua, entitateen liburua, liburu osagarriak eta akta-liburua.
295. **Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuaren arabera, kirol-federazioetako zuzendariek ordainsaria jaso dezakete federazioarekin dedikazio-maila handia izateagatik, beren egitekoak betetzearen konpentsazio gisa:**
- Baldin eta hala aurreikusten badute estatutuek.
 - Baldin eta hala adosten badu Zuzendaritza Batzordeak.
 - Baldin eta hala erabakitzen badu presidenteak.
 - Inoiz ere ez.
296. **Kirol Kluben eta Elkarteen 163/2010 Dekretuak ezartzen duenaren arabera, Batzar Orokorra konpromisarioekin osatu ahal izango da baldin eta klubak bazkide kopuru hau badu:**
- Bi milatik gorakoa.
 - Bi mila eta bostehunetik gorakoa.
 - Milatik gorakoa.
 - Mila eta bostehunetik gorakoa.

297. **Kulturako sailburuaren 2012ko urriaren 19ko AGINDUAren arabera, zeinaren bidez kirol-diziplina berriak aitortzen baitira eta modalitate eta diziplinen katalogoa (Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean dago) eguneratzen baita, zein kirol-modalitatetan dago «Eski alpetar» kirol-diziplina?**
- a) Eskia
 - b) Elurretako kirolak
 - c) Neguko kirolak
 - d) Denboraldiko kirolak
298. **Kulturako sailburuaren 2012ko urriaren 19ko AGINDUAren arabera, zeinaren bidez kirol-diziplina berriak aitortzen baitira eta modalitate eta diziplinen katalogoa (Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean dago) eguneratzen baita, diziplina hauetako zein ez da sartzen «euskal pilota» modalitatean?**
- a) Plaza libreko frontoia
 - b) Eskuin-paretako frontoia
 - c) Frontenisa
 - d) Trinketa
299. **ECD/273/2004 AGINDUAren arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, zeinek izendatuko ditu aholkulari teknikoak?**
- a) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordeko lehendakariak, Komisio Iraunkorrek proposatuta.
 - b) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordeko lehendakariak, Komisio Teknikoak proposatuta.
 - c) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordeko lehendakariordeak, Komisio Iraunkorrek proposatuta.
 - d) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordeko lehendakariordeak, Komisio Teknikoak proposatuta.
300. **ECD/273/2004 AGINDUAren arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, nola bilduko da Osoko Bilkura?**
- a) Ohiko bilkuran bakarrik, urtean bitan.
 - b) Ohiko bilkuran bakarrik, urtean behin.
 - c) Ohiko bilkuran urtean bitan, baina bilkura bereziak ere egin ahal izango ditu.
 - d) Ohiko bilkuran urtean behin, baina bilkura bereziak ere egin ahal izango ditu.
301. **ECD/273/2004 AGINDUAren arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, honela egingo da da Osoko Bilkurarako deia:**
- a) Gehienez ere hamabost egun natural lehenago.
 - b) Gutxienez ere hamabost egun baliodun lehenago.
 - c) Gutxienez ere hamabost egun natural lehenago.
 - d) Gehienez ere hamabost egun baliodun lehenago.

302. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, honela egingo dira batzordearen bilkuretarako deiak:**
- a) Gutxienez zazpi egun natural lehenago.
 - b) Gehienez zazpi egun natural lehenago.
 - c) Gutxienez hamabost egun natural lehenago.
 - d) Gutxienez zazpi egun baliodun lehenago.
303. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, batzordeko kide izateak abantaila hau izango du:**
- a) Diru-ordainketa bat jasotzea, baina gastuak eta dietak ordaintzeko eskubiderik gabe.
 - b) Diru-ordainketarik ez da izango, baina gastuak eta dietak ordaintzeko eskubidea izango dute kideek.
 - c) Diru-ordainketa bat jasotzea, eta, horrez gainera, gastuak eta dietak ordaintzeko eskubidea izango dute kideek.
 - d) Diru-ordainketarik ez da izango, ez eta gastuak eta dietak ordaintzeko eskubiderik ere.
304. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, batzordean pertsona espezializatuak egoteak abantaila hau izango du:**
- a) Diru-ordainketa bat jasotzea, baina gastuak eta dietak ordaintzeko eskubiderik gabe.
 - b) Diru-ordainketarik ez da izango, baina gastuak eta dietak ordaintzeko eskubidea izango dute kideek.
 - c) Diru-ordainketa bat jasotzea, eta, horrez gainera, gastuak eta dietak ordaintzeko eskubidea izango dute kideek.
 - d) Diru-ordainketarik ez da izango, ez eta gastuak eta dietak ordaintzeko eskubiderik ere.
305. **Boluntariotzaren 45/2015 Legearen arabera, boluntariotzat hartuko dira:**
- a) Askatasunez eta beren borondatez beren denbora guztia edo haren parte bat interes orokorreko jardueretara dedikatzea erabakitzen duten pertsona fisikoak.
 - b) Askatasunez eta baldintzatuta beren denbora guztia edo haren parte bat interes orokorreko jardueretara dedikatzea erabakitzen duten pertsona fisikoak.
 - c) Askatasunez eta beren borondatez beren denbora guztia edo haren parte bat interes orokorreko jardueretara dedikatzea erabakitzen duten pertsona juridikoak.
 - d) Askatasunez eta beren borondatez beren denbora guztia edo haren parte bat interes partikularreko jardueretara dedikatzea erabakitzen duten pertsona fisikoak.

306. **45/2015 Legean boluntariotzari buruz bildutako kontzeptuaren arabera, zer-nola gauzatuko da boluntariotza osatzen duten interes orokorreko jardueren multzoa?**
- a) Ordain ekonomiko edo materialik gabe, eta ekintza boluntarioa gauzatzeak boluntarioei sorrarazten dizkien gastuak ordaindu gabe.
 - b) Ordain ekonomiko edo materialarekin, baina ekintza boluntarioa gauzatzeak boluntarioei sorrarazten dizkien gastuak ordaindu gabe.
 - c) Ordain materialarekin, baina ekintza boluntarioa gauzatzeak boluntarioei sorrarazten dizkien gastuak ordainduta.
 - d) Ordain ekonomiko edo materialik gabe, baina ekintza boluntarioa gauzatzeak boluntarioei sorrarazten dizkien ordaindu beharreko gastuak ordainduta.
307. **Zer entitatek egiten du Espainiako unibertsitate-txapelketeten programaren deialdia?**
- a) Kirol Kontseilu Gorenak.
 - b) Unibertsitate Kontseilu Gorenak.
 - c) Errektoreen Konferentziak.
 - d) Unibertsitate antolatzaileko dekanok.
308. **Zertarako sortuko da Espainiako unibertsitate-txapelketen Kontrol Batzordea?**
- a) Parte-hartzaileak akreditatzeko.
 - b) Ikusleak akreditatzeko.
 - c) Epaileak akreditatzeko.
 - d) Parte-hartzaileei aholkularitza eskaintzeko.
309. **Honako esparru hauetatik, zein ez dagokio Kirolaren Europako Gutunari?**
- a) Kirola eta garapen egonkorraren printzipioa.
 - b) Berrikuntza.
 - c) Giza baliabideak.
 - d) Errendimendua hobetzea.
310. **ECD/273/2004 AGINDUAren arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, zeri atxikita dago batzordea?**
- a) Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari.
 - b) Lehendakaritza Ministerioari.
 - c) Kirol Kontseilu Gorenaren lehendakaritzari.
 - d) Kirol Ministerioari.
311. **Noren ardura da Europako unibertsitate-txapelketak antolatzea?**
- a) CEDU
 - b) PISA
 - c) CSD
 - d) EUSA

312. **ECD/273/2004 AGINDU**Aren arabera (zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea), 9 bokal ditu batzordearen komisioko iraunkorrak, eta haietako 8 unibertsitate eta autonomia-erkidegoen artean banatzen dira. Zenbat dagozkie unibertsitateei?
- a) 4
 - b) 5
 - c) 6
 - d) 7
313. **ECD/273/2004 AGINDU**Aren arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, Batzorde hori:
- a) batzorde administratibo bat da.
 - b) laguntza eta aholkularitzarako organo kolegiatu bat da.
 - c) antolaketarako organo kolegiatu bat da.
 - d) unibertsitate-txapelketak antolatzeko organo betearazle bat da.
314. **ECD/273/2004 AGINDU**Aren arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, hauek dira Batzorde horretako organoak:
- a) Lehendakaria, osoko bilkura, komisioko iraunkorra, komisioko teknikoak, idazkaria eta aholkulari teknikoak.
 - b) Lehendakaria, osoko bilkura, komisioko iraunkorra eta idazkaria.
 - c) Lehendakaria, osoko bilkura, komisioko teknikoak eta aholkulari teknikoak.
 - d) Lehendakaria, bokalak eta aholkulari teknikoak.
315. **ECD/273/2004 AGINDU**Aren arabera, zeinaren bidez arautzen baita Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, nor izango da batzorde teknikoaren lehendakaria?
- a) Unibertsitate-kiroleko eskumenak dituen Kirol Kontseilu Goreneko zuzendari nagusia.
 - b) Unibertsitate-kiroleko eskumenak dituen Kirol Kontseilu Goreneko zuzendariorde nagusia.
 - c) Kirol Kontseilu Goreneko Unibertsitate Kiroleko zerbitzaburua.
 - d) Unibertsitate Batzordeko lehendakaria.
316. **UPV/EHU**ren kirol-lehiaketetan, zer kolore korporatibo izaten du campus bakoitzak?
- a) Bizkaia: URDINA – Gipuzkoa: GORRIA – Araba: BERDEA.
 - b) Bizkaia: GORRIA – Gipuzkoa: URDINA – Araba: HORIA.
 - c) Bizkaia: GORRIA – Gipuzkoa: URDINA – Araba: BERDEA.
 - d) Bizkaia: BERDEA – Gipuzkoa: URDINA – Araba: GORRIA.

317. **Zein da padel-pista baten gutxieneko garaiera askea, Nazioarteko Padel Federazioaren arabera?**
- a) 6 metro, pistaren erdigunean.
 - b) Ez dago gutxieneko garaierarik.
 - c) 7 metro, pista osoan.
 - d) 6 metro, pista osoan.
318. **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21eko Ebazpenak ezartzen duenez, zeinak graduko ikasketetan kredituak onartzeko eta transferitzeko arautegia argitaratzen baitu, zenbat kreditu eskuratu daitezke gehienez ere ikasturte akademiko bakoitzean «naturan egindako jarduerak» kontzeptuarengatik?**
- a) Sei kreditu gehienez, ikasturte bakoitzean.
 - b) Bi kreditu gehienez, ikasturte bakoitzean.
 - c) Ez dago gehienekorik, orduko zenbatzen da, baliokidetasun hau kontuan hartuta: kreditu bat 25 praktika-orduko.
 - d) Hiru kreditu gehienez, ikasturte bakoitzean.
319. **Zenbat kreditu eskura daitezke gehienez ere ikasturte bakoitzean, «kirol-ikastaroak» kontzeptuarekin?**
- a) Sei kreditu gehienez, ikasturte bakoitzean.
 - b) Hiru kreditu gehienez, ikasturte bakoitzean.
 - c) Kreditu bat, 25 praktika-orduko, gehienekorik gabe.
 - d) Hiru kreditu gehienez, ikasturte bakoitzean.
320. **UPV/EHUren graduko ikasketetan kredituak onartzeko arautegiaren arabera, zer kontzepturekin eskuratu daitezke gehienez ere bi kreditu ikasturteko?**
- a) Kirol-jarduerengatik eta naturan egindako jarduerengatik.
 - b) Txapelketengatik eta prestakuntza-ikastaroengatik.
 - c) Naturan egindako jarduerengatik eta prestakuntza-ikastaroengatik.
 - d) Lankidetzengatik eta txapelketengatik.
321. **UPV/EHUko ikasleek egiaztatzen badute ikasturte akademiko batean 90 orduko praktikak egin dituztela Kirol Zerbitzuak «kirol-ikastaroak» atalean homologatutako kirol-jardueraren batean, zenbat kreditu egokituko zaizkio?**
- a) 3,5 kreditu; hau da, kreditu bat 25 orduko, eta 0,5 kreditu gainerako 15 orduen truke.
 - b) Sei, ezin baita gehiago eman titulazioko.
 - c) Sei, ezin baita kreditu gehiago eman ikasturte batean, «kirol-ikastaroen» kontzeptuan.
 - d) Hiru, ezin baita kreditu gehiago eman ikasturte batean, «kirol-ikastaroen» kontzeptuan.

322. **Hautatu zuzen dagoena:**

- a) UPV/EHUko ikasleek kultura- eta kirol-ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkartzan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute. Unibertsitatean ikasten aritu diren bitartean gauzatutako ekintzak izan beharko dute, eta gehienez ere ikasketa-planeko 6 kreditu eskatu ahal izango dituzte haien truke.
- b) UPV/EHUko ikasleek kultura- eta kirol-ekintzetan eta ikasleen ordezkartzan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute. Unibertsitatean ikasten aritu diren bitartean gauzatutako ekintzak izan beharko dute, eta gehienez ere ikasketa-planeko kredituen % 15 eskatu ahal izango dituzte haien truke.
- c) UPV/EHUko ikasleek kultura- eta kirol-ekintzetan eta ikasleen ordezkartzan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute. Gehienez ere sei kreditu eskatu ahal izango dituzte alor bakoitzean, ikasketa-planaren guztizkotik.
- d) UPV/EHUko ikasleek kultura- eta kirol-ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkartzan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute. Gehienez ere ikasketa-planeko kredituen % 15 eskatu ahal izango dituzte haien truke.

323. **Zenbat kreditu lor litezke gehienez ere kirol-jardueren truke ikasturte akademiko bakoitzean?**

- a) 6.
- b) 3.
- c) Ikasketa-planeko kreditu guztien % 15.
- d) Kreditu bat 25 praktika-orduko, gehienekorik gabe.

324. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legean, lehiaketan sailkapena honela egiten da, besteak beste:**

- a) Lehiaketa ofizialak eta ez-ofizialak.
- b) Kirol amateurreko lehiaketak eta eskola-kiroleko lehiaketak.
- c) Jolas-lehiaketak eta lehiaketa federatuak.
- d) Lehiaketa federatuak eta unibertsitate-kiroleko lehiaketak.

325. **Zein da Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen xedea eta aplikazio-eremua?**

- a) Euskadiko kirola arautzea, federazioekin batera.
- b) Euskadiko kirola arautzea, federazioekin eta beste erakunde batzuekin batera, Estatuak esleitutako eskumenei erantzunez.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko kirola arautzea.
- d) Kirola eta gorputz-heziketa bermatzea hezkuntza-sisteman.

326. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, hau jotzen da eskola-kiroltzat:**

- a) Unibertsitate-populazioak eskusiboki unibertsitateetako kirol-programen barruan praktikaturako kirol-, lehia- edo jolas-jarduera oro.
- b) Unibertsitate-populazioak eskusiboki unibertsitateetako kirol-programen barruan praktikaturako kirol-, lehia- edo aisia-jarduera oro.
- c) Unibertsitateek eskola-orduetan antolatutako kirol-jarduera guztiak.
- d) Unibertsitateek eskola-orduz kanpo antolatutako kirol-jarduera guztiak.

327. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak unibertsitate-kirolari buruz emandako definizioaren arabera, unibertsitate-kirola:**
- a) Lagungarria da ikasleen prestakuntza integralerako.
 - b) Aisialdikoa nahiz lehiakoa da.
 - c) Lagungarria da ikasleak balioetan eta gaitasunetan prestatzeko.
 - d) Lehiakoa eta ludikoa da.
328. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legean, kirol-erakundeen sailkapen hau egiten da:**
- a) Kirol-klubak, kirol-sozietate anonimoak eta kirol-federazioak.
 - b) Kirol-klubak, kirol-elkarteak, sozietate anonimoak, kirol-sozietate profesionalak eta kirol-federazioak.
 - c) Kirol-klubak, kirol-elkarteak, kirol-sozietate anonimoak, kirol-federazioak eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna.
 - d) Kirol-klubak, sozietate anonimoak, kirol-sozietate profesionalak, kirol-federazioak eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna.
329. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, nori dagokio jarduera bat kirol-modalitate gisa kalifikatzea eta hura osatzen duten diziplinak zehaztea?**
- a) Kirolen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, aldez aurretik txostenik egin beharrik gabe.
 - b) Kirolen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, aldez aurretik Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena aurkeztuta.
 - c) Kirolaren Euskal Kontseiluari, aldez aurretik txostenik aurkeztu gabe.
 - d) Kirolaren Euskal Kontseiluari, aurrez kirolen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren txostena aurkeztuta.
330. **Zer da Kirolaren Euskal Kontseilua?**
- a) Behe-mailako organo bat, diziplina- eta zehapen-funtzioak gauzatzen dituena.
 - b) Goi-mailako organo bat, diziplina- eta zehapen-funtzioak gauzatzen dituena.
 - c) Behe-mailako organo bat, aholkularitza, kontsulta, jarraipena eta eztabaida sektoriala gauzatzeko.
 - d) Goi-mailako organo bat, aholkularitza, kontsulta, jarraipena eta eztabaida sektoriala gauzatzeko.
331. **Nor da Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordearen presidentea?**
- a) Lehendakaria edo hark eskuordetutako pertsona.
 - b) Demokratikoki hautatzen da Euskadiko Kirol Federazioen presidenteen artean.
 - c) Kirolaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko titularra.
 - d) Lau urtetik behin, txandakatu egiten da lurralde historiko bakoitzeko Kiroletako foru-diputatuen artean.

332. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, noren eskumena da unibertsitateen arteko kirol-jarduerak ordenatzea eta koordinatzea?**
- a) Autonomia Erkidegoaren instituzio komunena.
 - b) Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearena.
 - c) Antolatzen dituen unibertsitatearena.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitatearena.
333. **Kirolaren Euskal Kontseiluko kideak honen aginduz izendatzen dira:**
- a) Kulturako sailburua.
 - b) Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordea.
 - c) Gazteria eta Kiroleko zuzendaria.
 - d) Kirolaren Euskal Kontseiluko osoko bilkuraren lehendakaria.
334. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, kirol-federazioen gobernu- eta ordezkaritza-organo dira, nahitaez:**
- a) Batzar Orokorra, presidentea, diruzaina, idazkaria eta batzordekideak.
 - b) Batzar Orokorra eta presidentea, haien estatutuetan aurreikusten direnez gainera.
 - c) Kirol-klubak eta haien estatutuetan aitortutako bestelako erakundeak.
 - d) Zuzendaritza Batzordea eta presidentea.
335. **Kirol-modalitate bakoitzeko UPV/EHUko campus arteko txapelketako garaileak ordezkatzeko du UPV/EHU:**
- a) Unibertsitate Kiroleko Euskadiko Txapelketan, Deustuko Unibertsitatearen kontra.
 - b) Modalitate bakoitzeko Euskadiko Txapelketan, sailkatutako kirolari federatu guztien kontra.
 - c) Unibertsitate Kiroleko Euskadiko Txapelketan, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen kontra.
 - d) Unibertsitate Kiroleko Euskadiko Txapelketan, Mondragon Unibertsitatearen kontra.
336. **Goi-mailako Kirolaren 203/2010 Dekretuaren arabera, goi-mailako kirolari, teknikari edo epailearen izaeraren indarraldia (aitorpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita) hau izango da oro har:**
- a) Bi urte.
 - b) Hiru urte.
 - c) Lau urte.
 - d) Bost urte.

337. **Goi-mailako Kirolaren 203/2010 Dekretuaren arabera, goi-mailako kirolariak sailkatzeko unean, honako hauek sartzen dira C taldean:**
- a) Modalitate olinpikoetako kirolariak, eskualde-kategorian lehiatzen direnak.
 - b) Edozein modalitate eta diziplinako kirolariak, kategoria gorenaren aurreko kategorian lehiatzen direnak.
 - c) Kirol-modalitate olinpikoetako kirolari ez-profesionalak, diziplina ez-olimpikoetan lehiatzen direnak.
 - d) Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten kirolariak.
338. **Aukeratu zuzen dagoena, Goi-mailako Kirolari buruzko 203/2010 Dekretuaren arabera:**
- a) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak irakaskuntza-maila bakoitzean eskaintzen dituen ikastaro edo irakasmila bakoitzeko plazen gutxienez ehuneko hiru gordeko ditu Euskal Autonomia Erkidego goi-mailako kirolarientzat, betiere gainerako eskakizun akademikoak betetzen badituzte, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduan eskainitako plazen gutxienez ehuneko bost.
 - b) Goi-mailako kirolariak ez dira egongo salbuetsita beren kirol-modalitateko proba espezifikoa egitetik eta beren espezialitateari lotutako kirol-baldintzak betetzetik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduko ikasketetan plaza lortzeko ezarritako proba eta kirol-betekizunei dagokienez.
 - c) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak irakaskuntza-maila bakoitzean eskaintzen dituen plazen gutxienez ehuneko hamabost gordeko ditu Euskal Autonomia Erkidego goi-mailako kirolarientzat, betiere gainerako baldintza akademiko orokorrak betetzen badituzte.
 - d) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak gainerako baldintza akademiko orokorrak betetzen ez dituzten Euskal Autonomia Erkidego goi-mailako kirolarientzat gordeko ditu irakaskuntza-maila bakoitzean plazen gutxienez ehuneko bost.
339. **Goi-mailako kirolarien zein onura ez daude aurreikusita Goi-mailako Kirolari buruzko 203/2010 Dekretuan?**
- a) Kirol-jarduera eta jarduera akademikoa bateragarri egiten laguntzeko, honako onura hauek baliatu ahal izango dituzte: ordutegi, txanda edo talde egokiena aukeratzeari, eskoletara joatea eta kirola egitea bateragarri egiteko.
 - b) Lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik, dagokion kirol-federazioaren ziurtagiriarekin justifikatuta, nahitaezko irakastorduen ehuneko 40ko asistentzia-baliokidetzaz izango dute.
 - c) Azterketa-egutegiaren malgutasuna, lehiaketa ofizialekin batera egokitzen direnean, dagokion kirol-federazioaren ziurtagiriaren bidez justifikatuta.
 - d) Aukera askeko kredituen baliokidetzaz: 6 kreditu ikasturteko, hala eskatzen duten goi-mailako kirolariei, teknikariei eta epaileei.
340. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, zein da batzordeko lehendakaria?**
- a) Kulturako sailburua.
 - b) Euskal Herriko unibertsitateetako errektoreen artean demokratikoki aukeratzen dena.
 - c) Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea osatzen duten kide guztien artean demokratikoki aukeratzen dena.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

341. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, batzorde hori:**
- a) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren egitura hierarkikoan txertatuta dago.
 - d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren mendeko organo bat da.
 - c) Zehapen-gaitasuna duen organo bat da.
 - d) Aholkulari-izaerako organo bat da.
342. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, esan zein den batzordearen funtzionamenduari buruzko erantzun zuzena:**
- a) Ohiko bilkura egingo du hilean behin.
 - b) Ohiko bilkura egingo du bi urtean behin.
 - c) Ohiko bilkura egingo du urtean bitan, gutxienez. Bilkura bereziak egin ahal izango ditu lehendakariaren ekimenez, egoki irizten bazaio.
 - d) Ohiko bilkura egingo du, urtean behin. Bilkura bereziak egin ahal izango ditu lehendakariaren ekimenez, egoki irizten bazaio.
343. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, batzordeak funtzio hauek ditu, besteak beste:**
- a) Unibertsitate arteko nazioarteko kirol-lehiaketan antolaketa koordinatzea eta haren jarraipena egitea.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate arteko kirol-praktiken koordinazioa eta jarraipena egitea.
 - c) Gidalerro eta proposamen orokorrak formulatzea eskola- eta unibertsitate-kirolaren alorrean.
 - d) Unibertsitate-kirolarekin lotutako auziei buruzko txostenak eta gomendioak ematea, UPV/EHUK eskatuta.
344. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, zein baieztapen da zuzena?**
- a) Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordeko kideek presidentetzari eskatu ahal izango diote sar dezala gai-zerrendan punturen bat, baldin eta behar besteko aurrerapenez egiten bada eta justifikatzeko memoria labur bat jasotzen bada proposamenarekin batera.
 - b) Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordeko kideek boto partikularra eman ahal izango dute, betiere deialdiaren aurretik behar adinako aurrerapenez iragartzen badute.
 - c) Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen premiazko deialdiak gutxienez zazpi egun naturaleko aurrerapenez egingo dira.
 - d) Batzordearen akordioak bertaratutako kideen gehiengo absolutuz onartuko dira.
345. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, figura hauetako zein ez dago batzorde horretan?**
- a) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko dekanoa.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoan ikastetxeak dituzten unibertsitate guztietako kide bana.
 - c) Euskal Kirol Federazioen Batasunak aukeratutako pertsona bat, euskal kirol-federazioen ordezkari izango dena.
 - d) Kiroletako zuzendaria.

346. **Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortzen eta arautzen duen 131/2004 Dekretuaren arabera, besteak beste honako hauek osatzen dute batzordea:**
- a) UPV/EHUko errektoreak.
 - b) Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordeak.
 - c) Bi bokalek.
 - d) Kontseilu Errektoreak.
347. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, zer garaiera izan behar du boleibol eseriko sarea emakumezkoen kategorian?**
- a) 2 m
 - b) 2,24 m
 - c) 2,43 m
 - d) 105 cm
348. **Noren artean egiten da UPV/EHUko Campus arteko Lehiaketa?**
- a) Fakultate bakoitzeko udazkeneko txapelketako irabazleen artean.
 - b) Fakultate bakoitzeko udaberriko txapelketako irabazleen artean.
 - c) Hiru campusetako udaberriko txapelketako irabazleen artean.
 - d) Hiru campusetako udazkeneko txapelketako irabazleen artean.
349. **«Banakako kirolen» zenbat modalitate eta diziplinatarako deialdia egin da 2019ko Espainiako Unibertsitate Txapelketetarako?**
- a) 23
 - b) 9
 - c) 12
 - d) 18
350. **«Taldeko kirol» izendatutako zenbat modalitate eta diziplinatarako deialdia egin da 2019ko Espainiako Unibertsitate Txapelketetarako?**
- a) 6
 - b) 8
 - c) 12
 - d) 7
351. **Hauetatik, zer modalitate eta diziplinatarako deialdia egin da 2019ko Espainiako Unibertsitate Txapelketetarako?**
- a) Igeriketa, orientazioa eta halterofilia.
 - b) Esgrima, hipika eta softbola.
 - c) Atletismoa, judoa, automobilismoa eta duatloia.
 - d) Belar gaineko hockeya, taekwondo eta triatloia.

352. **Hauetatik, zer modalitate eta diziplinatarako deialdia egin da 2019ko Espainiako Unibertsitate Txapelketetarako?**
- a) Cross country-a.
 - b) Esku-pilota.
 - c) Duatloia.
 - d) Arku-tiroa.
353. **Espainiako Unibertsitate Txapelketetan, honako kategoria hauetarako deialdiak egiten dira kirol-diziplina guztietan:**
- a) Emakumezkoen kategoria eta gizonezkoena.
 - b) Emakumezkoen kategoria eta gizonezkoena. Taldeko modalitate guztietan txapelketa mistorako deialdia ere egiten da.
 - c) Gizonezkoena, emakumezkoena eta mistoa modalitate guztietan, dela taldekoetan, dela banakakoetan.
 - d) Emakumezkoen kategoria eta gizonezkoena, futbolean izan ezik.
354. **Taldeko kiroletan, zenbat talde aritzen dira Espainiako Unibertsitate Txapelketako azken fasean?**
- a) 8.
 - b) 4.
 - c) 12.
 - d) Ez dago mugarik.
355. **Espainiako Unibertsitate Txapelketen Antolaketa Batzordeak, beste egiteko batzuen artean, honako betebeharrak ditu:**
- a) Deialdia egitea eta Espainiako Unibertsitate Txapelketetan parte hartuko duten unibertsitateek jasoko duten dirulaguntza ordaintzea.
 - b) Espainiako Unibertsitate Txapelketaren memoria egitea, Kirol Kontseilu Gorenari helaraztea eta antolaketari lotutako protokolo-gastuen kargu egitea.
 - c) Unibertsitate Kirolaren Espainiako batzordea ordezkatzeko Espainiako eta Munduko Txapelketaren harira antolatzen diren ekitaldi ofizial eta protokolo-ekitaldi guztietan.
 - d) Gida-dokumentu bat prestatzea, non agertuko baitira txapelketaren barneko kirol-modalitate bakoitzari dagozkion Espainiako Txapelketaren antolaketaren irizpideak eta gako-elementuak.
356. **Nork osatuko du Espainiako Unibertsitate Txapelketen Kontrol Batzordea?**
- a) Epaila bakar batek; hark ebatziko ditu sortzen diren gorabehera guztiak.
 - b) Gutxienez bi pertsonak: unibertsitate antolatzaileko errektoreak eta Espainiako txapelketak garatzen aditua den abokatu batek.
 - c) Egoitza antolatzaile bakoitzak erabakiko du zenbat kide izango dituen.
 - d) Bi pertsonak: unibertsitate antolatzaileko kide bat eta Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordearen ordezkari batek.

357. **Espainiako Unibertsitate Txapelketetan parte hartzen duten unibertsitateek gehie-
nez ere parte-hartzaile kopuru hauek inskribatu ahal izango dituzte kirol eta kate-
goria bakoitzeko:**
- a) Saskibaloian eta boleibolean, 18 lagun, bai gizonezkoen kategorian, bai emakumez-
koenean.
 - b) Eskubaloian eta areto futbolean, 7 lagun, bai gizonezkoen kategorian, bai emaku-
mezkoenean.
 - c) Zazpiko errugbian eta zazpiko futbolean, 10 lagun, bai gizonezkoen kategorian, bai
emakumezkoenean.
 - d) Talde-kiroletan (hamaikako futbolean izan ezik), 12 lagun, bai gizonezkoen katego-
rian, bai emakumezkoenean. Hamaikako futbolean, 42 lagun.
358. **Espainiako 2019ko Unibertsitate Txapelketen azken faseko 7. eta 8. postuak, kirol
kolektiboen modalitatean, autonomia-erkidego hauen artean jokatu behar dira:**
- a) Aragoi, Asturiasko printzerria, Extremadura, Euskadi, Galizia, Gaztela-Mantxa, Kan-
tabria, Katalunia, Murtziako eskualdea eta Nafarroako Foru Erkidegoa.
 - b) Aragoi, Asturiasko printzerria, Euskadi, Extremadura, Galizia, Gaztela-Mantxa, Gaz-
tela eta Leon, Kantabria, Murtziako eskualdea eta Nafarroako Foru Erkidegoa.
 - c) Aragoi, Asturiasko printzerria, Euskadi, Errioxa, Extremadura, Galizia, Gaztela-Man-
txa, Kantabria, Katalunia eta Nafarroako Foru Erkidegoa.
 - d) Aragoi, Asturiasko printzerria, Balearrak, Errioxa, Euskadi, Extremadura, Galizia,
Gaztela-Mantxa, Kanariak, Kantabria, Murtziako eskualdea eta Nafarroako Foru Er-
kidegoa.
359. **Espainiako Unibertsitate Txapelketetan, Kirol Kontseilu Gorenaren betebeharren
arte, hau ageri da:**
- a) Kirol-topaketak egiteko behar diren epaileak edo arbitro-taldeak eskuragarri egon
daitezen saiatzea.
 - b) Unibertsitate antolatzaileek proposatutako lehiaketa-epaile bakarra izendatzea.
 - c) Dagokion kirol-modalitateko alderdi teknikoari eta antolaketako buruzko ahol-
kularitza eskaintzea, eta lehiatzaileei ostatu ematea.
 - d) Jokatzen den kirol-modalitatearen txosten teknikoa egitea.
360. **Ez da izango Espainiako Unibertsitate Txapelketa baten Antolaketa Batzordearen
egitekoa:**
- a) Lehiaketa-epaile bakarri bere egitekoak betetzeko behar duen dokumentazioa hel-
raztea.
 - b) Espainiako Unibertsitate Txapelketan parte hartzen duten pertsonen izen-emateak
koordinatzea, antolatzea eta kudeatzea, bere bitartekoekin.
 - c) Lokal eta bitarteko egokiak ematea antolaketa-idazkaritzarako, kontrol batzordea-
rentzat eta parte-hartzaileak akreditatzeko.
 - d) Ziurtatzea behar diren kirol-instalazioen eskura daudela lehiaketak egiteko, behar
diren egunetan eta ordutegietan.

361. **Espainiako Unibertsitate Txapelketetan, noren eskumena izango da erregelamendu orokorra eta kirol-modalitate bakoitzaren erregelamendu tekniko espezifikokoak argitaratzea?**
- a) Txapelketa antolatzen duen unibertsitatearena.
 - b) Erregelamendu orokorra Kirol Kontseilu Gorenaren eskumena da, eta erregelamendu teknikoak, berriz, dagokion federazioarena.
 - c) Kirol Kontseilu Gorenarena.
 - d) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordearena.
362. **Espainiako unibertsitate-txapelketetan, Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordearen komisio iraunkorrek hauek ebatziko ditu:**
- a) Kirol-diziplinaren esparruan gertatzen diren arau-haustekak.
 - b) Ez dauka inolako ebazpen-ahalik Espainiako unibertsitate-txapelketetan.
 - c) Kirol-diziplinaren gainean gertatzen diren arau-haustekak.
 - d) Lehiaketatik kanpo gertatzen diren arau-haustekak, kirol-diziplinaren esparruan sartuta ez daudenak.
363. **Espainiako Unibertsitate Txapelketetan, Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordearen komisio iraunkorrek zigor hauek ezar ditzake:**
- a) Ohartaraztapena (pertsonala/unibertsitatea), zehapen pertsonalizatua, unibertsitatearentzako zehapena.
 - b) Ohartarazpenak bakarrik.
 - c) Zehapen pertsonalizatuak bakarrik.
 - d) Unibertsitate antolatzailearentzako zehapenak bakarrik.
364. **Zer maiztasunekin egiten dira Espainiako Unibertsitate Txapelketak?**
- a) Lau urtean behin, olinpiar jokoak bezala.
 - b) Bi urtean behin.
 - c) Urtero.
 - d) Hiru hilean behin.
365. **UNE Espainiako Normalizazio Elkartearen zer da?**
- a) Espainiako normalizazio-erakunde bakarra da, eta halakotzat izendatu du Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak Europako Batzordean.
 - b) Espainiako bi normalizazio-erakundeetako bat, eta halakotzat izendatu du Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak Europako Batzordean.
 - c) Espainiako normalizazio- eta egiaztapen-erakunde bakarra, eta halakotzat izendatu du Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak Europako Batzordean.
 - d) Espainiako bi normalizazio- eta egiaztapen-erakundeetako bat, eta halakotzat izendatu du Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak Europako Batzordean.

366. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, areto-futboleko atek zabalera hau izan behar dute:**
- a) 3,16 m
 - b) 4,16 m
 - c) 4 m
 - d) 3,8 m
367. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, areto-futboleko atek garaiera hau izan behar dute:**
- a) 2,5 m
 - b) 3,16 m
 - c) 3 m.
 - d) 2,08 m
368. **Doitasun-kirol hauetatik, zein da olinpikoa?**
- a) Billarra.
 - b) Arku-tiroa.
 - c) Petanka.
 - d) Dardoak.
 - jokoaren aisialdi-jardueretarako establezimenduak dira.
 - aisialdi- eta kirol-erabilerako aisialdi-jardueretarako establezimenduak dira.
536. **Kirol Kluben eta Elkarteen 163/2010 Dekretuak ezartzen duenaren arabera, eskaera jasotzen denetik, zenbat egun beharko dira kirol-klub bati Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan izena emateko?**
- 15 egun.
 - Hilabete.
 - 2 hilabete.
 - 3 hilabete.

537. **Kirol Kluben eta Elkarteen 163/2010 Dekretuak ezartzen duenaren arabera, kirol-klub bat eratzeko, ezinbestekoa izango da eraketa-akta sinatzea. Gutxienez, honako hauek sinatu beharko dute:**
- a) Fundatzaileen % 50ek.
 - b) Hiru pertsona fisikok edo juridikok.
 - c) Fundatzaileen erdiek gehi batek.
 - d) Bost pertsona fisikok edo juridikok.
538. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, kirolaritzat hartzen dira:**
- a) Kirola egiten duen federatutako edozein pertsona.
 - b) Kirol-txapelketa ofizialetan esku hartzen duen federatutako edozein pertsona.
 - c) Kirola egiten duen edozein pertsona eta kirol-txapelketetan, izan ofizialak ala ez, parte hartzen duena.
 - d) Kirola egiten duen edozein pertsona, nahiz eta federatuta ez egon edo kirol-lehiaketetan parte ez hartu.
539. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, nahitaezkoak izango dira dopinaren aurkako kontrolak:**
- a) Kirolari guztientzat.
 - b) Federazio-, eskola- edo unibertsitate-lizentzia duten kirolari guztientzat.
 - c) Kirolari guztientzat, lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.
 - d) Federazioaren lizentzia duten kirolari guztientzat, lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.
540. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, kirol-ekipamenduen plangintzak:**
- a) Lehentasuna eman beharko dio hainbat kirolestako ekipamenduak sortzeari.
 - b) Lehentasuna eman beharko die udalez gaindiko azpiegituri.
 - c) Lehentasuna eman beharko dio kirol-ekipamenduak ikastetxe eta unibertsitate-zentroetan instalatzeari.
 - d) Lehentasuna eman beharko dio jolas-eremuak sortzeari.
541. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, sarrerak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua prebentzio-neurri bat da, eta nahitaez eduki behar dute sistema hori:**
- a) Kirol- eta jolas-alor ofizial guztiek.
 - b) Kirol-lehiaketak hartzen dituzten kirol-instalazio guztiek.
 - c) Kirol-lehiaketa ofizialak hartzen dituzten kirol-instalazio guztiek.
 - d) Kirol-lehiaketa ofizial profesionalak hartzen dituzten kirol-instalazio guztiek.
542. **P.Parlebas egilearen arabera, hauek dira egoera psikomotorrak:**
- A) Kiderik eta aurkaririk gabe gertatzen dira, eta ziurgabetasunarekin edo gabe.
 - b) Kiderik eta ziurgabetasunik gabe gertatzen dira.
 - c) Kidearekin eta aurkaririk gabe gertatzen dira.
 - d) Kiderik gabe eta aurkariarekin gertatzen dira.

543. **Parlebasen ekintza motorraren irizpideetan oinarritutako kirolaren sailkapenaren arabera, saskibaloian:**
- a) Kidearekin, aurkariarekin, ziurgabetasunik gabe eta baloiarekin jokatzen da.
 - b) Kidearekin, aurkariarekin, ziurgabetasunarekin eta baloiarekin jokatzen da.
 - c) Kidearekin, aurkariarekin eta ziurgabetasunarekin jokatzen da.
 - d) Kidearekin, aurkariarekin eta ziurgabetasunik gabe jokatzen da.
544. **Parlebasen ekintza motorraren irizpideetan oinarritutako kirolaren sailkapenaren arabera, esgrima:**
- a) Kidearekin, aurkariarekin, ziurgabetasunik gabe eta elementu batekin praktikatzen da.
 - b) Kidearekin, aurkariarekin, ziurgabetasunarekin eta elementu batekin praktikatzen da.
 - c) Kiderik gabe, aurkariarekin eta ziurgabetasunik gabe praktikatzen da.
 - d) Kiderik gabe, aurkariarekin eta ziurgabetasunarekin praktikatzen da.
545. **Parlebasen ekintza motorraren irizpideetan oinarritutako kirolaren sailkapenaren arabera, 100 metroko lasterketa:**
- a) Kiderik gabe, aurkariarekin, ziurgabetasunik gabe eta elementurik gabe praktikatzen da.
 - b) Kiderik gabe, aurkariarekin eta ziurgabetasunarekin praktikatzen da.
 - c) Kiderik gabe, aurkaririk gabe eta ziurgabetasunarekin praktikatzen da.
 - d) Kiderik gabe, aurkaririk gabe eta ziurgabetasunik gabe praktikatzen da.
546. **Noiz sortu zen Nazioarteko Olinpiar Batzordea?**
- a) 1894ko ekainaren 23an.
 - b) 1895eko ekainaren 23an.
 - c) 1894ko ekainaren 24an.
 - d) 1895eko ekainaren 25ean.
547. **Zenbatetik behin egiten dira Unibertsidadak?**
- a) Urtean bitan (udan eta neguan).
 - b) Urtean bitan (udaberrian eta udazkenean).
 - c) Urte bakoitietan (udan eta neguan).
 - d) Urte bikoitietan (udan eta neguan).
548. **Zenbatetik behin egiten dira Munduko Unibertsitate Txapelketak?**
- a) Urtero.
 - b) Bi urtetik behin (urte bakoitiak).
 - c) Hiru urtetik behin.
 - d) Lau urtetik behin (urte bakoitiak).

549. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko Estatuko araudiaren arabera, unibertsitate-ikasketak egiteko, autonomia-erkidegoek plazen ehuneko jakin bat gordeko dute goi-mailako eta goi-errendimenduko baldintzak egiaztatzen dituztenentzat, betiere gainerako eskakizun akademikoak betetzen baldin badituzte:**
- a) Eskainitako plazetatik, gutxienez % 3.
 - b) Eskainitako plazetatik, gutxienez % 5.
 - c) Eskainitako plazetatik, gutxienez % 3, goi-mailako kirolarientzat bakarrik.
 - d) Eskainitako plazetatik, gutxienez % 5, goi-mailako kirolarientzat bakarrik.
550. **Kirolari bat lehiatu daiteke modu indibidualean, eta beste une batean modu kolekti-boan?**
- a) Ezinezkoa da, batak bestea galarazten du.
 - b) Ez, oraindik ez dago halako ezaugarriak dituen lehiaketarik.
 - c) Bai, baldin eta lehenbizi kirol indibidualean lehiatzen bada, eta, ondoren, kolekti-boan.
 - d) Bai, lehiaketa batzuek badute ezaugarri hori.
551. **Kirolari indibidual batek parte har dezake diziplina desberdin batzuetan lehiaketa berean?**
- a) Bai, batzuetan gertatzen da ezaugarri hori.
 - b) Bai, baina Kirolaren Europako Gutunak ez du gomendatzen.
 - c) Ez, horrek eskatuko luke beste proba batzuk beranduago hasi beharra, kirolari indibidualari egokitzeko.
 - d) Ez, kirolari batek diziplina bat aukeratu behar du, eta hartan zentratu.
552. **Atletismoa taldekatutako probak biltzen dituen kirol bat da. Adibidez:**
- a) Lasterketak, jauziak, proba konbinatuak eta martxa.
 - b) Lasterketak, jauziak, jaurtiketak, proba konbinatuak eta martxa.
 - c) Lasterketak, jauziak, jaurtiketak eta martxa.
 - d) Lasterketak, jauziak eta martxa.
553. **Hauek dira igeriketaren oinarrizko printzipioak:**
- a) Ingurune urtarrera ohitzea, flotazioa, arnasketa eta propulzioa.
 - b) Flotazioa eta arnasketa.
 - c) Ingurune urtarrera ohitzea eta flotazioa.
 - d) Ingurune urtarrera ohitzea eta arnasketa.
554. **Zer eratako kirola da badminton indibiduala?**
- a) Aurkaritzarik eta kolaboraziorik gabekoa.
 - b) Aurkaritza eta kolaboraziokoa.
 - c) Kolaboraziokoa.
 - d) Aurkaritzakoa eta kolaboraziorik gabekoa.

555. **Kirol-instalazioei eta aisialdirako instalazioei buruzko araudiaren arabera, teniseko joko-eremuak zabalera hau izan behar du bikotekako partidetan:**
- a) 8,23 m
 - b) 7,23 m
 - c) 10,97 m
 - d) 9,97 m
556. **Zer eratako kirola da halterofilia?**
- a) Aurkaritza eta kolaboraziokoa.
 - b) Aurkaritzarik gabe eta kolaboraziokoa.
 - c) Aurkaritzarik eta kolaboraziorik gabekoa.
 - d) Kolaboraziorik gabekoa.
557. **Goi-errendimenduko kirolari bat kirol-jarduerari loturiko funtzionario publikoen kidego edo eskaletara edo langile lan-kontratudunen lan-kategorietara sartzeko probak egitera aurkeztu da. Merezimendu ebaluagarria izango da goi-errendimenduko kirolari izatea?**
- a) Ez, goi-mailako kirolarientzat da bakarrik.
 - b) Bai, baldin eta merezimendu espezifikoen balioespena deialdian aurreikusita badago.
 - c) Bai, oposizio-lehiaketa baldin bada.
 - d) Bai, beti.
558. **Euskadiko federazio batek kirol batzuei deitu die, bere modalitateko Euskadiko selekzioa osatzeko. Deialdi horren aurrean:**
- a) Nahitaez joan behar da.
 - b) Kirolari horien klubak aukeratuko du joan ala ez.
 - c) Ezinbestekoa da joatea, araudian aurreikusitako sustapen-neurriren baten onuradun izanez gero.
 - d) Aukerakoa da joatea, eskubide bat baita, eta ez betebeharrak.
559. **Euskadin egindako lehiaketa ofizial batean, zenbait gertakari izan dira, eta, haiek direla eta, zehatu egin dute klub bat. Kluba ez dago ados zehapenarekin. Non jarriko du errekurtsua?**
- a) Kirol Justiziako Euskal Batzordean.
 - b) Kirol Kontseilu Gorenean.
 - c) Kirol Diziplinako Batzordean.
 - d) Kirolaren alorreko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailean.
560. **Zer eratako kirola da tenisa, binakako modalitatean?**
- a) Kooperaziokoa, aurkaritzakoa, berezia, alternatiboa eta sare bidezkoa.
 - b) Kooperaziokoa, aurkaritzakoa, berezia, alternatiboa eta diana bidezkoa.
 - c) Aurkaritzakoa, berezia, alternatiboa eta sare bidezkoa.
 - d) Kooperaziokoa, aurkaritzakoa, partekatua, alternatiboa eta sare bidezkoa.

561. **Zer ekintza tekniko gauzatu ditzake talde batek baloia eduki gabe?**
- a) Pasea.
 - b) Botea.
 - c) Mozketa.
 - d) Jaurtiketa.
562. **Jokatzeko moduaren arabera, zer eratako kirola da boleibola?**
- a) Kooperaziokoa, aurkaritzakoa, bereizia, alternatiboa eta sare bidezkoa.
 - b) Kooperaziokoa, bereizia, aldiberekoa eta sare bidezkoa.
 - c) Aurkaritzakoa, partekatua, aldiberekoa eta sare bidezkoa.
 - d) Aurkaritzakoa, partekatua, alternatiboa eta sare bidezkoa.
563. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, nola tipifikatzen dira kirol-duintasunari eta -ohoreari eraso egiten dioten egintza nabarmenak eta publikoak?**
- a) Arau-hauste oso astunak.
 - b) Arau-hauste astunak.
 - c) Arau-hauste arinak.
 - d) Ez dira tipifikatzen arau-hauste gisa.
564. **Inbasio-kirol kolektiboetan, jokalarri guztiek okupa ditzakete joko-eremu guztiak:**
- a) Bai, inbasio-jokoen berezko ezaugarria da.
 - b) Ez, kirolaren arabera, ahal izango da edo ez.
 - c) Bai, kirolari guztiek aukera berberak izan behar dituzte.
 - d) Ez, inoiz ez.
565. **Joko kolektiboetara dagokienez, Parlebasek honako talde hauek bereizten ditu:**
- a) Kooperaziokoa eta kooperazio-aurkaritzakoa.
 - b) Alternatiboa eta aldiberekoa.
 - c) Bereizia eta oposiziokoa.
 - d) Aurkaritzakoa eta partekatua.
566. **Zein da bilaketa edo ikerketa bidezko irakaskuntza-teknikaren oinarria?**
- a) Irakaslea da zuzeneko erreferentzia.
 - b) Ikaslearengandik abiatzen da ikaskuntza-prozesua.
 - c) Ez dago halako irakaskuntza-teknikarik.
 - d) Imitatu beharreko ereduak erakutsiz esku hartzen du irakasleak.
567. **García Ferrandoren arabera (1990), kirolaren lehia- edo jolas-maila handiagoa edo txikiagoa kontuan hartuta, hiru kategoria bereiz daitezke:**
- a) Kirol formalak, kirol informalak eta kirol erdiformalak.
 - b) Kirol formalak, kirol ez-formalak, kirol informalak eta kirol erdiformalak.
 - c) Kirol formalak, kirol informalak, kirol erdiformalak eta kirolak.
 - d) Kirol formalak, kirol informalak eta kirol erdiformalak eta kirol mistoak.

568. **Kirol- eta jolas-jardueretan, kirola, bizipen gisa:**
- a) Autotelikoa da.
 - b) Bat-batekoa da.
 - c) Modu askean egina da.
 - d) Inposatua da.
569. **Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legearen arabera, enpresa- eta lanbide-jardue-
ren irabazi-asmoa irabazi-asmorik gabeko kirol-entitate bidez estaltzea:**
- a) Arau-hauste arina da.
 - b) Arau-hauste astuna da.
 - c) Arau-hauste oso astuna da.
 - d) Delitua da.
570. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, federatu-lizentziak ez jaulkitzea edo
atzerapenez jaulkitzea inolako justifikaziorik gabe eta asmo gaiztoz...**
- a) arau-hauste arina da.
 - b) arau-hauste astuna da.
 - c) arau-hauste oso astuna da.
 - d) delitua da.
571. **Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-modalitate berri bat onartuz gero, non sar
liteke?**
- a) Lehiaketak partekatzen dituzten Euskadiko kirol-federazio batean edo gehiagotan.
 - b) Euskadiko federazio bakar batean.
 - c) Kirol anitzeko federazio batzuetan.
 - d) Federazio batean modalitatearen arabera, eta kirol-klub batean espezialitatearen
arabera.
572. **J.M. Bucetaren arabera (1998), zer da taktika?**
- a) Txapelketaren aurretik jarduketa-planean hartzen diren erabakiak.
 - b) Unean bertan hartzen diren erabakiak.
 - c) Jarduketa-plana mantentzeari edo berraztertzeari dagozkion erabakiak.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
573. **AMIA metodoan, zer dira aukerak (París Roche, F. (2015))?**
- a) etorkizunean era globalean eragingo duten alderdiak.
 - b) positiboak izan daitezkeen kanpo-alderdiak.
 - c) era positiboan eragiten ari diren kanpo-alderdiak.
 - d) uneko puntu sendoak.

574. **AMIA metodoan, zer dira mehatxuak (París Roche, F. (2015))?**
- a) etorkizunean erabat eragingo duten alderdiak.
 - b) negatiboak izan daitezkeen kanpo-alderdiak.
 - c) era negatiboan eragiten ari diren kanpo-alderdiak.
 - d) uneko puntu ahulak.
575. **Plangintza estrategikoa:**
- a) Epe ertainera egiten da, maila ertainetan.
 - b) Epe luzera egiten da, zuzendaritza-mailetan.
 - c) Berehalakoa, agintari operazionaleri lotuta.
 - d) Ezaugarri teknikoak biltzen ditu, eta epe laburrera egiten da.
576. **AMIA metodoan, zer dira ahultasunak (París Roche, F. (2015))?**
- a) etorkizunean era globalean eragingo duten barne-alderdiak.
 - b) negatiboak izan daitezkeen kanpo-alderdiak.
 - c) era negatiboan eragiten ari diren kanpo-alderdiak.
 - d) erakundearen puntu ahulak.
577. **AMIA metodoan, zer dira indarguneak (París Roche, F. (2015))?**
- a) etorkizunean era globalean eragingo duten barne-alderdiak.
 - b) positiboak izan daitezkeen kanpo-alderdiak.
 - c) era positiboan eragiten ari diren kanpo-alderdiak.
 - d) erakundearen puntu sendoak.
578. **J.M. Bucetaren arabera (1998), zer erabaki mota dauden jokabide taktikoan?**
- a) Txapelketaren aurretik jarduketa-planean hartzen diren erabakiak.
 - b) Unean bertan hartzen diren erabakiak.
 - c) Jarduketa-plana mantentzeari edo berraztertzeari dagozkion erabakiak.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
579. **Oinarrizko diseinuaren barruan, hauek hartzen dira plangintzaren etapatzat:**
- a) Plangintza, programazioa, diagnostikoa eta ebazpena.
 - b) Diagnostikoa, programazioa, exekuzioa eta ebaluazioa.
 - c) Plangintza, programazioa eta diagnostikoa.
 - d) Diagnostikoa, ebaluazioa eta exekuzioa.
580. **Kirol-plan estrategiko baten oinarrizko eskeman, honako galdera honi erantzuten dio diagnostikoak:**
- a) Nor naiz?
 - b) Noraino iristen naiz?
 - c) Nora joan nahi dut?
 - d) Non nago?

581. **Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, zeren definizioa da «jarduera bat normaltzat jotzen den moduan gauzatzeko gaitasunaren urritasun batek eragindako murrizketa»?**
- a) Urritasunarena.
 - b) Desgaitasunarena.
 - c) Minusbaliotasunarena.
 - d) % 33tik gorako gutxiegitasunarena.
582. **Noiz egin ziren lehendabiziko Joko Paralinpikoak?**
- a) 1960an, Erroman.
 - b) 1964an, Tokion.
 - c) 1968an, Tel Aviven.
 - d) 1976an, Toronton.
583. **Noiz sortu zen ofizialki Nazioarteko Batzorde Paralinpikoa?**
- a) 1992ko maiatzaren 2an.
 - b) 1990eko martxoaren 5ean.
 - c) 1991ko urriaren 15ean.
 - d) 1989ko irailaren 22an.
584. **Non sortu zen ofizialki Nazioarteko Batzorde Paralinpikoa?**
- a) Bartzelonan.
 - b) Düsseldorf.
 - c) Berlinen.
 - d) Bruselan.
585. **Nazioarteko Batzorde Paralinpikoaren arabera, nola sailkatzen dira kirol paralinpikoak?**
- a) Udako eta neguko kirolak.
 - b) Udaberriko, udako, udazkeneko eta neguko kirolak.
 - c) Tresna bidezko kirolak eta tresnarik gabeko kirolak.
 - d) Kirol kolektiboak eta kirol indibidualak.
586. **Mugimendu paralinpikoak aukerak ematen dizkie desgaitasun fisikoa, ikusizkoa edo intelektuala duten atletei, baldin eta 10 desgaitasun hautagarrietako bat gutxienez badute. Desgaitasun hauetako zein ez dago haien artean?**
- a) Malgutasun falta.
 - b) Garaiera txikia.
 - c) Atetosia.
 - d) Ataxia.

587. **Zer igeriketa-estilo onartzen ditu Espainiako Igeriketako Errege Federazioak (RFEN)?**
- a) Estilo librea, bizkarra, tximeleta, bularra eta estilo indibiduala.
 - b) Crawl, bizkarra, bularra eta tximeleta.
 - c) Crawl, bizkarra, bularra, tximeleta eta estilo librea.
 - d) Estilo librea, bizkarra, tximeleta, bularra.
588. **Zer ulertzen dugu kirol-modalitate gisa?**
- a) Kirol Kontseilu Gorenak onartutako kirola.
 - b) Kirol profesionala eta goi-mailako edo goi-errendimenduko kirola.
 - c) Kirol federatua, eskola-kirola eta unibertsitate-kirola.
 - d) Nazioarteko Olinpiar Batzordeak olinpikotzat onartutako kirola.
589. **Zein dira Kirolaren Goi Kontseiluaren zuzendaritza-organoak?**
- a) Batzar Orokorra eta presidentea.
 - b) Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea.
 - c) Zuzendaritza Batzarra eta presidentea.
 - d) Presidentea eta Batzorde Exekutiboa.
590. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, liga profesionalak eratzeko, nahitaez-koa izango da:**
- a) Haien kirol-modalitatea onartzea.
 - b) Federazioek aurrekusi gabeko modalitateetan eta aktibitateetan gauzatzea kirol-jarduerak.
 - c) Txapelketa ofizialak existitzea, profesionalak eta estatu-mailakoak.
 - d) Autonomia-erkidegoen esparruko kirol-federazioek aurreikusita edukitzea haien kirol-modalitatea.
591. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, Espainiako kirol-federazioek aurreikus-ten ez dituzten modalitate eta aktibitateetan kirol-jarduerak garatzeko helburuz, onartu ahal izango da:**
- a) Kirol-sozietate anonimo bat.
 - b) Kirol-klub bat kirol-modalitate bakoitzeko.
 - c) Estatuko liga profesional bat kirol-modalitate bakoitzeko.
 - d) Estatuko klubak elkarte bat kirol-modalitate bakoitzeko.
592. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, honela sailkatzen dira kirol-klubak:**
- a) Estatuko kirol-klubak eta autonomia-erkidegoko kirol-klubak.
 - b) Kirol-klub elementalak, oinarrizkoak eta kirol-sozietate anonimoak.
 - b) Kirol-klub federatuak eta kirol-klub amateurrak.
 - d) Kirol-klub elementalak eta oinarrizko kirol-klubak.

593. **Kirolari buruzko 10/1990 Legean xedatutakoaren arabera, zer forma hartuko dute Estatuko kirol-lehiaketa ofizialetan eta profesionaletan parte hartzen duten klubek edo haien talde profesionalak?**
- a) Kirol-sozietate anonimoa.
 - b) Kirola sustatzeko erakundea.
 - c) Kirol-federazioa.
 - d) Liga profesionala
594. **Kirol-erakunde baten jarduna eta haren eskumenen eta funtzioen garapena mami-tzeko, zenbait ekintza, programa eta jarduera martxan ipintzen eta gauzatzen dira. Nola deitzen dira horiek, F. Paris Rocheren arabera (2015)?**
- a) Proiektuak.
 - b) Planak.
 - c) Saioak.
 - d) Estrategiak.
595. **Kirolaren 10/1990 Legearen arabera, hainbat zirkunstantzia izaten dira kontuan kirolari bat goi-mailakotzat hartzeko. Horien artean:**
- a) Nazioarteko kirol-lehiaketa guztietan eskuratutako sailkapenen batezbestekoa.
 - b) Azkeneko bost urteetan kirol-lehiaketetan eskuratutako sailkapenak.
 - c) Kirolariak kirol-sailkapeneko ranking edo zerrenda ofizialean duen sailkapena, dagokion federazioak onartua.
 - d) Nazioarteko kirol-lehiaketa edo -probetan eskuratutako sailkapenak.
596. **Nori dagokio partida bat arrisku handikotzat jotzea?**
- a) Kirol-federazioei.
 - b) Ekitaldiaren antolatzaileari, segurtasun-koordinatzailearen iritzia jakin ostean.
 - c) Kiroleko Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako Estatu Batzordeari
 - d) Kirol Kontseilu Gorenari.
597. **Nori dagokio partida edo proba bat behin betiko bertan behera uztea?**
- a) Kiroleko Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako Estatu Batzordeari, arbitroaren edo kirol-epailearen iritzia jakin ondoren.
 - b) Arbitroari edo kirol-epaileari, segurtasun-koordinatzailearen iritzia jakin ostean.
 - c) Segurtasun-koordinatzaileari, kirol-ekitaldiaren antolatzaileak izendatutako segurtasun-arduradunaren iritzia jakin ostean.
 - d) Kirol Kontseilu Gorenako presidenteari, Kiroleko Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako Estatu Batzordearen iritzia jakin ostean.

598. **Kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legearen arabera, kirolaren eta indarkeriaren artean:**
- a) Erabateko bateraezintasuna dago.
 - b) Harreman estua dago.
 - c) Mendekotasuna dago.
 - d) Korrelazio estua dago.
599. **Kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legearen arabera, kiroleko indarkeria:**
- a) Onartezina da beti.
 - b) Indarraren aplikazio baimenduna da, eta hartarako arauak aplikatua.
 - c) Kasu guztietan, erregelamenduaren kontrako arau-hauste edo eraso da.
 - d) Ez da inoiz ere gertatzen.
600. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, zer izaera du kirolak?**
- a) Hezkuntza-sistemaren funtsezko elementu bat da.
 - b) Osasun-sistemaren funtsezko elementu bat da.
 - c) Sistema sozioekonomikoaren funtsezko elementu bat da.
 - d) Gizarte-sistemaren funtsezko elementu bat da.
601. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, kirola sustatzea:**
- a) Gomendio sozial bat da.
 - b) Konstituzioak agindutako eginbehar bat da.
 - c) Eginbehar zibiko bat da.
 - d) Hezkuntza-komenentzia bat da.
602. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, zer eratako entitateak dira Espainiako kirol-federazioak?**
- a) izaera juridiko pribatukoak; horrenbestez, ezin dute egiteko publiko administratiborik gauzatu.
 - b) izaera juridiko publikokoak; horrenbestez, egiteko publiko administratiboak esleitzen zaizkie.
 - c) izaera juridiko pribatukoak; horrenbestez, egiteko publiko administratiboak esleitzen zaizkie.
 - d) izaera juridiko publikokoak; horrenbestez, galarazi egiten da haiei egiteko publiko administratiboak esleitzea.

603. **Kirolari buruzko 10/1990 Legean, nola konfiguratzeko dira kirola sustatzeko erakundeak?**
- a) Estatu-mailako elkarte gisa, autonomia-erkidegoz gaindi ezarriak, Estatuko federazioek aurreikusi gabeko modalitate eta aktibitateetako kirol-jarduerak gauzatu ahal izateko.
 - b) Autonomia-erkidegoaren mailako eta bertan ezarritako elkarte gisa, jolas-, prestakuntza- edo gizarte-xedeak dituzten jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak sustatzeko eta antolatzeke.
 - c) Autonomia-erkidegoaren mailako eta bertan ezarritako elkarte gisa, autonomia-erkidegoko federazioek aurreikusi gabeko modalitate eta aktibitateetako kirol-jarduerak gauzatu ahal izateko.
 - d) Estatu-mailako eta autonomia-erkidegoz gaindi ezarritako elkarte gisa, jolas-, prestakuntza- edo gizarte-xedeak dituzten jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak sustatzeko eta antolatzeke.
604. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoak prebentzio-esparru orokor bat ezartzen du honako alor honetan osasuna prebenitzeko eta dopinaren aurka borrokatzeke:**
- a) Kirol-praktika orokorrean.
 - b) Goi-mailako edo goi-errendimenduko kirol-praktikan.
 - c) Kirol-lizentziadun kirolean.
 - d) Eskola- eta unibertsitate-kirolean.
605. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera, zer eduki beharko du Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzian egokiro erregistratutako liburuak?**
- a) Medikuek beren zuzendaritzapean dituzten kirolariei preskribatutako tratamendu mediko eta sanitarioak, baldin eta mekikuok izena emateko baimena ematen badute.
 - b) Kirolariaren datu pertsonalak eta historia mediko-sanitarioa.
 - c) Kirolariaren errendimendua eta osasuna hobetzera bideratutako nutrizio-irizpideak.
 - d) Kirolariari laguntzen dion talde medikoa.
606. **Zein da kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren aplikazio-eremu objektiboa, Estatuko edo autonomia-erkidegoko federazio-baimen homologatuz praktikatzeko den kirolaren esparruan, dopinaren ondoreetarako?**
- a) Edozein kirol-lehiaketa.
 - b) Kirol-erakundeek antolatutako estatu-mailako kirol-lehiaketa ofizialak, Kirolari buruzko 10/1990 Legearen esparruan.
 - c) Estatuko edo autonomia-erkidegoetako kirol-lehiaketa ofizialak, liga profesionalek antolatuak Kirolari buruzko 10/1990 Legearen esparruan.
 - d) Estatuko edo autonomia-erkidegoetako kirol-lehiaketa ofizialak, federazioek antolatuak, Kirolari buruzko 10/1990 Legearen esparruan.

607. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoan, honelakoak dira lehiaketaz kanpoko dopinaren aurkako kontrolak:**
- a) Nahitaezkoak edo borondatezkoak.
 - b) Ustekabekoak edo aldez aurretik hitzordua ipinitakoak.
 - c) Nazionalak edo nazioartekoak.
 - d) Kirol-lehiaketaren aurrekoak edo ostekoak.
608. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren aplikazio-eremu subjektiboak, kirol-lizentziadun kirolaren esparruan, hauek hartzen ditu barne:**
- a) Kirol-lehiaketa profesionaletan parte hartzen duten kirolari atzerritarrak.
 - b) Espainiako lizentzia ez izanik, edozein kirol-lehiaketatan parte hartzen duten kirolariak.
 - c) Espainiako lizentzia ez izanik, Espainian egiten diren estatu-mailako zein nazioarteko lehiaketatan parte hartzen duten kirolariak, edo Espainiako lurraldean daudenak.
 - d) Lehiaketaz kanpo kontrolak egitera behartuak izan daitezkeen kirolari atzerritarrak.
609. **Kirolariei gau-partean atsedean egokia bermatzeko, zein da horretarako ordu-tarte egokia kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera?**
- a) Gaueko hamarretatik goizeko zazpiak arte.
 - b) Gaueko hamarretatik goizeko seiak arte.
 - c) Gaueko hamaiketatik goizeko zazpiak arte.
 - d) Gaueko hamaiketatik goizeko seiak arte.
610. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera, nori ematen zaio kirolariaren osasun-txartela?**
- a) Espezifikoki goi-mailako kirolari gisa onartuta daudenei.
 - b) Kontratuz kirolari profesional gisa onartuta daudenei.
 - c) Ondore horretarako hitzarmen espezifikoeekin federatutako kirolariei.
 - d) Espezifikoki goi-mailako kirolari gisa onartuta daudenei, kontratuz kirolari profesional gisa onartuta daudenei edo ondore horretarako hitzarmen espezifikoeekin federatutako kirolariei.
611. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoaren arabera, zer helburu du osasun-txartelak?**
- a) Kirolariak eta hura artatzen duten osasun-profesionalek ahalik eta informaziorik onena izatea, gaitz baten aurrean aplikatzekoa zaion tratamendua erabakitzean.
 - b) Aseguru-poliza osagarri bat izatea, kirola dela medio hartutako gaixotasunen edo izandako istripuen estaldura bermatzeko.
 - c) Aseguru-poliza bat izatea, hirugarrenei eragindako kalte-galerengatik sortutako gizarte-erantzukizunaren estaldura bermatzeko.
 - d) Aseguru-poliza osagarri bat izatea, heriotzaren edo ezintasun iraunkorraren estaldura bermatzeko.

612. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoan jasotako definizioaren arabera, zer da lehiaketa bat?**
- a) Kirol-organismo bakar batek zuzenduta egiten diren kirol-gertakariak, organismo horrek hartutako partaidetza- eta antolaketa-arauekin gauzatuak.
 - b) Nazioarteko Olinpiar Batzordeak, Nazioarteko Batzorde Paralinpikoak, nazioarteko federazio batek, gertakari handien antolatzaileek edo bestelako nazioarteko kirol-erakunderen batek zuzenduta antolatutako kirol-gertakari bat.
 - c) Proba bakar, partida, jokaldi edo kirol-lehiaketa jakin bat.
 - d) Kirol-praktika federatua.
613. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoan jasotako definizioaren arabera, zer da talde-kirola?**
- a) Lehiaketa batean kirolariak ordezteka baimentzen duen kirola.
 - b) Arbitro edo epaile baten presentzia eskatzen duen kirola.
 - c) Aldi berean edo bata besteari jarraian bi kirolariren edo gehiagoren presentzia eskatzen duen kirola.
 - d) Aldi berean beti bi kirolariren edo gehiagoren presentzia eskatzen duen kirola.
614. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoan jasotako definizioaren arabera, zer da iraupena lehiaketetan?**
- a) Gertakari baten hasieratik amaierara bitartean igarotako denbora, gertakari horretaz arduratzen den organismoak ezartzen duenaren arabera.
 - b) Kirolariak parte hartzea aurreikusi duen lehiaketa egin baino 12 ordu lehenago hasten da, harik eta lehiaketa amaitu arte.
 - c) Gertakari baten hasieratik amaierara bitartean igarotako aldia, eta harekin lotutako laginak biltzeko prozesua.
 - d) Kirolariak parte hartzea aurreikusi duen lehiaketa egin baino 12 ordu lehenago hasten da, harik eta lehiaketa amaitu arte, baita harekin lotutako laginak biltzeko prozesua ere.
615. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoan jasotako definizioaren arabera, zer da jarraipen-taldea?**
- a) Nazioarteko federazio bakoitzak identifikatutako goi-mailako kirolarien taldea, zeinak aldi berean lehiaketa barneko kontrol-taldea lotuta egongo baitira nazioarteko federazioaren kontrolen plangintzaren esparruan.
 - b) Dopinaren kontrako erakunde nazional bakoitzak identifikatutako goi-mailako kirolarien taldea, zeinak aldi berean lehiaketa barneko kontrol-taldea lotuta egongo baitira dopinaren kontrako delako erakunde nazional horren kontrol-plangintzaren esparruan.
 - c) Nazioarteko federazio edo dopinaren kontrako erakunde nazional bakoitzak identifikatutako goi-mailako kirolarien taldea, zeinak aldi berean lehiaketa barneko kontrol-taldea eta lehiaketatik kanpoko kontrol-taldea lotuta egongo baitira nazioarteko federazioaren edo dopinaren kontrako delako erakunde nazional horren kontrol-plangintzaren esparruan.
 - d) Nazioarteko federazio edo dopinaren kontrako erakunde nazional bakoitzak identifikatutako goi-mailako kirolarien taldea, zeinak aldi berean lehiaketa barneko kontrol-taldea lotuta egongo baitira nazioarteko federazioaren edo dopinaren kontrako delako erakunde nazional horren kontrol-plangintzaren esparruan.

616. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoan jasotako definizioaren arabera, zer ulertzen da markagailu gisa?**
- a) Partida edo kirol-lehiaketa baten emaitza.
 - b) Konposatu bat, konposatu talde bat edo parametro biologiko batzuk, debekatutako substantzia edo metodo baten erabileraren berri ematen dutenak.
 - c) Dopinaren aurkako kontrola egiteko bildutako material biologikoa.
 - d) Kirol-barrutietan ikusteko moduko tokian ipinitako panela; hantxe apuntatuko dira ekitaldiari buruzko informazioak, bereziki lehiatzen ari diren taldeen edo parte-hartzaileen puntuazioari buruzkoak.
617. **Kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko 3/2013 Lege Organikoan jasotako definizioaren arabera, zer ulertzen da metabolito gisa?**
- a) Bioeraldaketa-prozesu batek sortutako edozein substantzia.
 - b) Konposatu bat, konposatu talde bat edo parametro biologikobatzuk, debekatutako substantzia edo metodo baten erabileraren berri ematen dutenak.
 - c) Dopinaren aurkako kontrola egiteko bildutako material biologikoa.
 - d) Debekatutako substantzia eta metodoen zerrendan hala deskribatutako metodoa.
618. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, erakunde hauetatik zein geratuko da sektore pribatuan bilduta?**
- a) Kirol Kontseilu Gorena.
 - b) Espainiako Olinpiar Batzordea.
 - c) Kirol Medikuntzaren Zentroa.
 - d) Kirolaren Euskal Eskola.
619. **J.M. Bucetaren arabera (1998), zer da Estrategia?**
- a) Txapelketaren aurretik jarduketa-planean hartzen diren erabakiak.
 - b) Unean bertan hartzen diren erabakiak.
 - c) Jarduketa-plana mantentzeari edo berraztertzeari dagozkion erabakiak.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
620. **Kirolari buruzko 10/1990 Legearen arabera, figura hauetatik zein da kirol-elkarte bat?**
- a) Liga profesionala.
 - b) Federazio autonomikoa.
 - c) Kirol-patronatua.
 - d) Oinarrizko kirol-kluba.

621. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera, goi-errendimenduko kirolaritzat hartuko dira:**
- a) Eliteko kirolariak.
 - b) Autonomia-erkidegoko federazioaren lizentzia izan eta autonomia-erkidegoaren araudiaren arabera goi-errendimendukotzat edo baliokidetzat hartuak dauden kirolariak.
 - c) Goi-mailako kirolariak.
 - d) Espainiako federazioaren lizentzia izan eta autonomia-erkidegoaren araudiaren arabera goi-errendimendukotzat edo baliokidetzat hartuak dauden kirolariak.
622. **Haur-jolasa jarduera intrintsekoki motibatzailea da, eta:**
- a) Ikaskuntza behar du.
 - b) Bat-batean sortzen da.
 - c) Ez da instintiboa.
 - d) Ez da bat-batekoa.
623. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera, goi-mailako kirolariaren izaera galduko da:**
- a) Kirolaria goi-mailako gisa kalifikatzen duen ebazpena argitaratu eta hiru urte igarotzen direnean.
 - b) Kirolaria goi-mailako gisa kalifikatzen duen ebazpena argitaratu eta bost urte igarotzen direnean.
 - c) Olinpiar Jokoetan edo Joko Paralinpikoetan domina irabazitako kasuetan, bost urte igarotzen direnean.
 - d) Olinpiar Jokoetan edo Joko Paralinpikoetan domina irabazitako kasuetan, hiru urte igarotzen direnean.
624. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuan, zer kalifikazio ematen zaio txirrindularitzako taldekako jazarpen-probari?**
- a) Ahaleginak batzeko proba.
 - b) Borroka-proba.
 - c) Txandakako partaidetzako talde-probak.
 - d) Aldi bereko jarduera-probak.
625. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuan, zer kalifikazio ematen zaie atletismoko erreleboei?**
- a) Ahaleginak batzeko proba.
 - b) Kirol kolektiboa.
 - c) Txandakako partaidetzako talde-proba.
 - d) Aldi bereko jarduera-proba.

626. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuan, zer kalifikazio ematen zaio eskubaloitari?**
- a) Txandakako partaidetzako talde-proba.
 - b) Aldi bereko jarduera-proba.
 - c) Kirol kolektiboa.
 - d) Ahaleginak batzeko proba.
627. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuan, zer kalifikazio ematen zaio arku-tiroari?**
- a) Borroka-proba.
 - b) Txandakako partaidetzako talde-proba.
 - c) Aldi bereko jarduera-proba.
 - d) Ahaleginak batzeko proba.
628. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuan, zer adin-kategoria jasotzen dira?**
- a) Ohorezko kategoria eta behe-kategoriak.
 - b) Kategoria absolutua eta absolutuaz azpiko kategoriak.
 - c) Eskola-kirolekoa eta unibertsitate-kirolekoa.
 - d) Lehen kategoria, bigarren kategoria eta gainerako azpiko kategoriak.
629. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera, zer adin-tartetan daude kategoria absolutuaren azpiko kategorietakoak izan eta beren adinari dagozkion probetan parte hartzen duten kirolariak?**
- a) 23 urte baino gutxiagotik 15 urte beteta izan artekoa.
 - b) 21 urte baino gutxiagotik 15 urte beteta izan artekoa.
 - c) 18 urte baino gutxiagotik 14 urte beteta izan artekoa.
 - d) 21 urte baino gutxiagotik 14 urte beteta izan artekoa.
630. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera, kirol kolektiboetan, hauek hartzen dira taldekidetzat fase bat baino gehiagoko munduko txapelketetan:**
- a) Akta ofizialean izena emandako kirolariak.
 - b) Txapelketaren azken fasean parte hartzen duten kirolariak.
 - c) Txapelketaren edozein fasetan parte hartzen duten kirolariak.
 - d) Taldeko kirolari guztiak.
631. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera, azken fasera jotzeko sailkapen-faseak dituzten Europako txapelketen kasuan, herrialde kopuru hau hartuko da kontuan:**
- a) Parte hartzen duten Europako herrialdeen kopurua.
 - b) Ekitaldiko guztiak, sexua eta adinak bereizita.
 - c) Fase guztiak kontuan hartuta ateratzen dena.
 - d) Kirol-modalitate bakoitzeko Europako herrialdeen kopurua.

632. **Goi-mailako eta goi-errendimenduko kirolariei buruzko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera, goi-mailako kirolari izateko proposatuko dira:**
- a) Kirolari beteranoak, ohorezko izaeraz.
 - b) Munduko unibertsitate-txapelketetan dominak irabazi dituztenak.
 - c) Unibertsitate arteko txapelketetan dominak irabazi dituztenak.
 - d) Errekor ofizialen bat ondu duten kirolariak.
633. **Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, zer da Kirol Justiziako Euskal Batzordea?**
- a) Federazio-organo jurisdikzional bat.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-justiziaren alorreko administrazio-organo gorenaren.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoan Kirol Kontseilu Gorenaren ahalordez edo ordezkari-tzan diziplina-ahala gauzatzen duen organoa.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoan Kirol Diziplinako Batzordearen ahalordez edo ordezkari-tzan diziplina-ahala gauzatzen duen administrazio-organoa.
634. **Honako erakunde hauetatik, zeinek du eskumena Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu-titulua eskuratzeko irakaskuntzak ordenatzeko eta antolatze-ko?**
- a) UPV/EHUK.
 - b) Kirolaren Euskal Eskolak.
 - c) Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordeak.
 - d) Euskadiko Kirol Federazioen Batasunak.
635. **Kirolari buruzko 14/1998 Legearen arabera, nori dagokio Euskadiko selekzioak osatu-tuko dituzten kirolariak hautatzea?**
- a) Euskadiko federazioei.
 - b) Kirol-klubetako hautatzaileei.
 - c) Liga profesionaletako hautatzaileei.
 - d) Eusko Jaurlaritzari, hautaketa-batzordeen bidez.
636. **Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuaren arabera, Euskadiko federazio bat onartzen denetik, federazio horrek ohiko jarduna izango du, eskuordeturiko funtzio publiko administratiboak gauzatuz. Haien artean, hauek:**
- a) Titulartasun publikoko kirol-instalazioak kudeatzea.
 - b) Autonomia-erkidegoko lehiaketa ofizialak kalifikatzea, ordenatzea, antolatzea eta baimentzea.
 - c) Beren kirol-modalitateko klubien hauteskunde-batzordeen kontrola.
 - d) Lurralde-federazioei eta, halakoak direnean, kirol-klubei eta -taldeei ematen zaizkien dirulaguntzak esleitzea eta haien aplikazioa kontrolatzea.

637. **Nola deitzen da Kirol Kontseilu Gorenari unibertsitate-kirolaren alorrean laguntza eta aholkularitza emateaz arduratzen den erakundea?**
- a) Unibertsitate Kontseilua.
 - b) Unibertsitate bakoitzaren kirol-zerbitzua.
 - c) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Federazioa.
 - d) Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea.
638. **Zer organo arduratzen da koordinazio-eskumenaz, unibertsitate-kiroleko lehiaketa-esparrua nazionala edo nazioartekoa denean?**
- a) Dagokion nazioarteko federazioa, lehiaketan parte hartuko duen kirol-modalitatearen arabera.
 - b) Dagokion Espainiako federazioa, lehiaketan parte hartuko duen kirol-modalitatearen arabera.
 - c) Unibertsitate Kontseilua.
 - d) Kirol Kontseilu Gorena.
639. **J.A. Mestrerren arabera (2004), kirol-kudeaketaren plangintza egiteko garaian, zer fasetan baliatzen da kirol-forum komunitarioaren metodoa?**
- a) Diagnosian.
 - b) Programazioan.
 - c) Exekuzioan.
 - d) Ebaluazioan.
640. **Espainiako Olinpiar Batzordearen biziarteko ohorezko kide dira, besteak beste, honako hauek:**
- a) Nazioarteko Olinpiar Batzordeko kide diren edo izan diren eta Espainiako herritartasuna duten pertsonak.
 - b) Espainiako Olinpiar Batzordean batzordekide kargua bete dutenak edo betetzen ari direnak.
 - c) Nazioarteko Olinpiar Batzordeko kide diren eta atzerriko herritartasuna duten pertsonak.
 - d) Espainiako Olinpiar Batzordean presidente edo idazkari nagusi karguak betetzen ari direnak.